


jakin


CHE GUEVARA
oteiza ulertzen
sinistu ezinean, iges egin behar
errusi'ko literatur erreboluzioa
zergatik eta zertarako euskaldun?
euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu



EUSKAL GAZTEDIA KULTURA BIDEETAN

SALNEURRIA

urtekoa: 100 pezta.
alea: 25 pezta.
atzerrian: 2 \$.





jakin —27-28-gnak Arantzazu'n—1967—

zuzendaritza ta zabalkundea:
(dirección y administración)
arantzazu — oñate — gipuzkoa.

**arantzazu'ko frantziskotarren
ardurapean argitaratua.**
(edita: la comunidad franciscana
de arantzazu)

zuzendari: a. kandido zubizarreta
(director: fr. cándido zubizarreta)

argitaratze-eguna:
1967'ko abenduaren 30'ean.
(acabóse de imprimir:
el 30—XII—67).

depósito legal: SS. 323-1964.

EUSKAL GAZTERIA
KULTURA BIDEETAN

JAKIN aldizkariaren xedea euskerari laguntzea da, euskerazko kultura egiten saiatzea.

herriaren izpiritu ta
kulturaren alde



editoriala

Asko ta asko dira egundaiño planteatu ezik, herri amerikanoaren zati haundi baten benetazko egokera ta kinka ezagutzen ere ez zutenak, eta orain, Ernesto Guevara'ren heriotzak beren konzientzian astindu ditunak.

Egundaiño, aunitzentzat Amerika ta "El Dorado" batbera ziran, Amerika altxorrez oparo ornitutako lurraldea zan, lurralde ioria, aberatsa, biziltz eroso ta errezakoa, dirua egiteko toki aproposa, bertara joan ezker, bueltakoan diruz gainezka itzuli ohi zanekoa (itzultzen zanean, noski!).

Orain, bapatean, jakiten du jendeak Arjentina krisis ekonomikoan dabillela, Brasil'en ba dirala giza aurrerapenean oso motx eta baldar doazen lurraldeak (subdesarrollatuak), nazio barru bertako beste zenbaitetan dirua lujo ta alpergastatze amorratuan botatzen dan bitartean. Nundik edo handik entzuten du jendeak Bolivia'n, Venezuela'n, Colombia'n eta Peru'n gerrillazko erreboluzioak errealidade dirala. Beste zenbait Egoamerikako lurraldeetan, hots, Paraguay, Nicaragua, Honduras eta Panama'n, nahiz gaur gaurkoz erreboluzioa menperatua ta eutsia egon, ba dirala, ordea, arazoak, ezbeharrak ezin egona (ezin eutsia, hobe) sortzen dutenak eta herri hauek erreboluzioaren ataurrean jartzen dituztenak. Eta berdintsu gertatzen dala, orobat, Dominica'ko errepublikan eta Haiti bertan, nun Duvalier presidenteak diktadura hertsia ren menpean mantentzen eta manatzen duen herria, bere hain ezagunak diran "tontons macoutes"-etaz baliatuaz.

Egun guban delimitatzen dijoan Amerika Latina'ren ikuspegiak life-rentzia koskor ez nolana hizkoak ditu zenbaitek orainartean —eta orain bertan— beren gisara tajutua zeukatenarekin —eta daukatenarekin—.

Guevara'ren heriotza deadar bat, karraxi bat, ohiu bat da kristau kon-

zientzi aunitzentzat. Egia, errebista katoliko batzuek bandidotzat salatu dutela, esanez ez duela inñolako aipamenik merezi. Gu, ordea, ez gatozkio ados era hontako iritzi "bakun" bati. Zerbait da gertatzen Amerika lurraldean, gizonak hain postura desesperatuak hartzen dituzteneko. Ta kristaun eginkizuna dugu gertatzen ari dan hori aztertzea, herri haiek minberatu ta larritzen dituan gaitzen kausa politiko, ekonomiko ta sozialak desestaltzea.


Hirugarren munduko 18 gotzaiek eskeiñi berria diguten dokumentoak ba du puntu honetan reflexio gai prankorik guretzat. Dokumento honen lerrotan nabarmentzen da konsideramendu osoa merezi duen gizarte atal baten subdesarrolloak sortzen duen gaurko situazio larria eta kristau konzientziari planteatzen dizkion kuestio ta prolemen zailla.

Ez dugu gai ta arazo guzti hauetaz "JAKIN" bat prestatzerik izan behar hainbateko dokumentazioz. Beste batean, apika, itzuliko gera gai hontara. Egungoz, Nacahuazu mendietan ixuri dan odolak eskeintzen digun kinka aprobetxatuaz, Amerika Latinoaren prolema planteatu nahi dugu, lerro apur hauetan.

Uste dugunez, Saizarbitoria, R. Arregi, J. R. Beloki ta Karlos Santamaria'ren artikuloak laguntza bat izanen dira irakurle zenbaitentzat beren ideia garbiketa edo zuzenketan eta, baitipat, bere istante honetan garrantzi guztizko duten eginkizun eta eginbeharraren konzientzi hartzean. Gizonek eta Herriek subdesarrolloaren prolemaren aurrez aurre duten elkartu beharraren eta indar guztiak martxan jarri beharraren eginbeharra, hoi'en artean, baita ere, kristau indarrak, Elizarenak, herri hoi'ek bide gizakoia-goak eta bidezkoagoak arki ditzaten.

JAKIN

'Agresiopean eroriak
daudenekin
gure oiua altxatu
behar dugu.
Heurak
bizi duten
bakardadeak
angustiz betetzen
gaitu'.



"Nunahi heriotzak ustekabeen arrapatzen gaituela ere, bedi ongi etorria, gure gudu-oiua belarri adixkideengana iritxi dedin bitartean eta beste esku batzuek gure harmak har ditzaten eta beste zenbait gizon prest arki ditezen bitartean inperialismoaren illeta-doiñua abesteko, ametralladoraen abesliaz eta gerrate ta garaipen-deadarrez baliaturik".



«CHE» ez da hil

SAIZARBITORIA

Gizon bat dago egun hauetan, dagoenik biaje luzeena egiten, gizon gehienak desiratu eta lortzen ez duten gallurrera iristen. "Che" Guevara mito bat egiten ari da.

"Che" Guevara egunero hiltzen eta berpizten ari diren bizardun hori da. Mundu guziak ikusi du bere begiraldi bizia, milla aldizkarietan; buru erromantiko horrek eguneroko bizitzaren berdintasunetik atera gaitu, eta behar bada European ezkertiarrek eginitako karikatura besterik ikusi ez dugulako, ez digu pentsatu arazi.

Bai. "Che" —bizarra, purua, alkandora berde irikia— Egoameriketako diktadorei, gaiztakeriak egiteko prest dagoen haurtzaz pinta-tu oi digute. "Che" eta bere gerrillak. Zein hitz "exotikoak", pransez ezkertiar intelektualen ahoetan!

"Che", oso urruti dago gugandik gorputzez, biaje oso luzea egiten, beharbada kiskalitako hauts besterik ez da eta espirituz are eta urrutiago dugu. "Che" ba, urruti dugu, gerrilla ere bai, Europako ez kertiar eta eskuindarren zorionerako.

Han, Bolivian, gugandik urruti ba, itsaso batek eta beste zenbait gauzek banatutzen gaituztelarik, "Willy"-k, "Ramón"-en gorputz zauritua bizkar gainean hartu zuen. Hunek ezin eutsi zion oinazeari. Ranger'ak urbil zeuden, "Willy" nekatur. "Ramón" lurtean utzi behar izan zuen arnas hartzeko. Rangerrak gero eta urbilago, altua

eman zioten, "Willy"-k karabina hartu zuen... Bere anaiaren gainean zerraldo erori zen.

Gero pasa zena gerrilleroak etzuten ikus. "Ramón" dalakoa, aldizkari guzietan ikusi ahal izan dugu. "Che"-ren antza ikaragarria zuelako edo ber-bera zelako, bere begiaren hotza, aho zabala, guziok ikusi ditugu... "Willy", alabeharen kapitxuz, ez dugu ezagutu, baina aho zabalik geratuko zen hori ere norki udaberriko zerurari begira...

Dena dela, "Willy", "Ramón" bezala, "Che" izan edo ez izan—malda gora jo zuen ideal batei jarriz, biek eman zuten bizitza kausa baten alde... Baina "Willy" ez duke beharbada, "Le nouvel observateur"-en tirada gehituko. Horra hor kaka!

Gizona, gizon da eta oraindik ba da gizonak. Errezena "Ramón" hiltzea zen —Bolivia'n ez baidago heriotza kondenatzerik (?)— eta esku batek eutsi zuen pistola beste batek bizitza uzten zuen bitartean... Nolanahi ezin izan dizkie mitoari egoak moztu.

Ernesto Guevara ez da hilko. Bein Cuba'n rebozuzioa eginik, ministerioko mahi atzetik Bolivia'ra joan zenean hilezkor egin zen. Régis Debray'ek konprenitu du egia, rebozuzionario bezala juzgatua izateko eskaria egitean. Hor bizi da "Che" ifioiz ez bezala. Ez da hilko eta munduko gazteri guzien barnean, rebozuzioa egiten jarraituko du; gutako bakoitzaren gerrilla zuzentzen, eta bere abots apalak ez du asmaren trabarik izanen, ordenak emateko garaiean.

Ehun edo beharbada milla ero ziren atzoko gerrilleroak. Gaur "Willy" eta "Ramón" hil ondoren lejiioika. Lejio bat Debray.

Han urrutian, gure artean ifioiz ere sumatuko ez genuen "gegiyego" erromantikoa, Don Juan eta Don Quijote ridikulu batekin munda zaharreko mito zaharrekin batera lotara bialiko genuena, bihotzaren barnean sumatu beharko dugu, geuron bizitzan aurrera begiratzearan...

Ernesto "Che" Guevara —oraingoan iturri onetik— ez da hil. Gizonak, militarrek izanda ere, ezin baidituzte beste gizonak dituzten ondasun guziak hil.

«CHE» Guevara

pertsonaje ta mito

J. R. BELOKI

Bidezkoa ez ezik, beharrezkoa derizkiot "Che"-rengan mailla bi bereizteari. Elkar nahasian erabiltzeak, bide okerretik, desbidetik abiarazten gaitu. Fin gaiztora iritxitzeraifio.

"Che" pertsonaje ta mitoa dugu bidebatez. Lehenik pertsonaje.

Eta pertsonaje-ikusalde hontatik eman dan definiziorik egokiene-takoa honoko hau deritzat: "Che" Latinamerikar erreboluziogille ko-munista da.

Lehenik latinamerikar.

"Che" ta Latinamerika elkar erlazioan behar dira ulertu, ulertuko badira. "Che" izan dana izan bada, latinamerikarra izateagatik izan da. Ez naiz hemen ari arrazari eta odolari begira. "Che"-k "bere" postura hartzerakoan, bizitza osoa zuzendu ta definitu dion postura hartzerakoan, Latinamerika'ko situazioari begiratu zion eta arduratu zan. Ez da besterik.

Eta ni ez negoke zihur "Che" ulertzen dutanaren usteen, Latina-merika ulertu binbitartean. Hau pertsonaje-ari dagokionez. Ba, mito billakatzen dan ezkerro, zerbait bestelakorik da gertatzen.

Bidebatez, egun Latinamerika ulertzeko "Che"-ren bizitzak ba du zer ikusirik eta zer esan nahirik. "Che" lako baten bizitzak asko adierazten du bizitz horren kausa edo eragille billakatu dan errealidadeaz.

"Che" bigarrenik erreboluziogille da.

"Che" zerbaitek definitzen badu, erreboluzio harmatuaren proposatzaille izateak da, batez ere. Huxe du, hain zuzen, bereizgarri. "Che"-k zerbait bortizki planteatu badio munduari, erreboluzioaren eta erreboluzio harmatuaren auzia izan da. "Che"-k ez zuan reformismoan sinismenik, ez itxaropenik. "Che"-k erreboluzioa gogo zuan eta bera, tirozkoa. Ez zuan beste erreboluzio biderik somatzen, estruktura aldaketa baterako, benetazko aldaketa gerta zitekean baterako.

"Che"-k Ego-Amerika'ren aurrez-aurre harturiko postura gerri-llagillea da, gerrilleroa. Ez besterik. Ego-Amerika Vietnam berri bilakatu arazi.

"Che", hirugarrenez, komunista da.

Bere postura hortxe, komunismoan, hobe apika, marxismoan, oinarritu uste zuen egokien. Ez noski "Che" bat eta ados zetorrela egungo komunismoaren jokabideekin. "Che"-k bide berriak —nahiz ez erabat berriak— urratu ditu komunismoagan. Eterodoxo da. Komunista jarraiturik.

Hau da "Che" pertsonajea.

Pertsonaje honen gain mitoak usu eraiki dira. Zuzenak nola okerrak, Bidezkoak hala injustiziaz eraikiak, Danetariakoak. Ez goaz gu hemen mito hoiek banaka aztertzeraz. Bakarrik, "Che" pertsonajeak edo, hobe, posturak planteatu digun prolematikaren —mitologia-ren oinarri denaren— berri laburra eman nahi dugu.

"Che" pertsonajea hiru hitzetan definitu dugu. Ez noski uste dugula honekin "Che" erabat konprenitu dugunik, gorde-leku ta zoko illun gabekoa guretzat denik. Gizon bat hiru hitzetan biltzea, edo hobe, banatzea, gizon hori "zerbait" ulertzea da, ezjakin osotik ateratzea. Deus gutxi gehiagorik, ordea. "Che" pertsonajea illunabarrean gelditzen da erabat guretzat, guk esanak esan.

"Che" bidebatez, ordea, postura bat da. "Che" ez zen sekula konformatu berak erreboluzioa egitearekin, teoria bat gogo zuen, "egia" bat. Bere erreboluzioetatik "lezioak" atera nahi zituen. Hortarakoxe aukeratu zuen Régis Debray. Beraz, lehen aitaturiko hiru hitzok

elkar batzen diranean, pertsonaje zehatz bat ez ezik baita postura bat osatzen dute.

Eta postura honetaz galdetu nahi dugu. Hots, hiru hitzok nola batzen diran eta batu ditezken.

Hiru hitzokin egin ditezken hainbat erlazio-modu guztiek beren prolema planteatzen digute.

Hona eredu zenbait:

Latinamerikar batek erreboluziogille behar al du izan? Edo "Che"-ren postura gizon soil bakar batek, "bere" bizitzan, hartutako postura da?

Latinamerikar erreboluziogilleak komunista behar al du izan? Ez al diteke beste erako erreboluziorik, beste zenbait dotriñatan oinarritutakorik?

Erreboluzioak harmatua behar al du izan?

Latinamerikar harmazko erreboluziogilleak komunista behar al du izan?

Eta abar eta abar... Erlazioak ugaltzen diren ala, prolemak ere ugaltzen dituzte. Erantzunak zailgotzen. Baiñan prolema hauek eta beste ahinitzek (hiru hitz hoi erlazioetatik ateratakoak) ihardespen bat behar dute. Ihardespen garbi ta laistera.

Che Guevara

edo pentsamentua lapurtu dioten gizona

RIKARDO ARREGI

“Che” Guevara hil dute. Topikoekin itzegiteko, “Che”-ren gorputza ta espiritua hil dute. Bai, espiritua. Hori da illabete hauetako gertakizunik bortizenetakoa .

Nor da gaur “Che” Guevara’z gaizki mintzatzen dana? Apenas iñor. Oker bazebillen ere, justiziaren alde burrukan zebillela ez du iñork ukatzen. Burrukalari erromantikoaren irudia egin dute eguneroko, aldizkari, irrati ta telebistak. Batzuentzat Argentina’n jaio, Cuba’n Industria’ko ministroa izan eta Bolivia’n hilla delako hispanismoaren personifikazioa (Madrille’ko SP egunerokoak bezela), abenturero sinpatiko bat, “Quijote” bat, pobreen aldekoa etab. besteentzat. Inperialismoaren, kapitalismoaren eta burgesiaren etsairik aundiena zen gizon hontaz, esandako hoiek kontrolatuta daukaten informazioko medioetan horrelako laudorioak edo, bestela, sinpatiak entzun eta ikustea arrunt arrigarria da. Azaletik, ordea.

Hori horrela geratu izatea kasikan derrigorrezkoa da. Ba dira egi ta ideia batzuk aurrez atakatu ezin ditezkenak: demokrazia, justizia, libertatea. Baztertu ezina diralako bitako bat: edo bete edo ustu. Ba dira zenbait, gutxienak baiñan aberatsenak, beteak gertatzea kome-ni ez zaiena. Hoi-en artean arkitzen dira informazioko medioen jabe

diran zenbait. Ideia hoiei bere muña kentzea besterik ez zaie falta orduan. Hori da "Che" Guevara'rekin egin dutena.

"Che" Guevara zen guztia ustu ta irudi erromantiko bat, gaitzik egin ezin lezakena zabaldu dute.

Izan ere "Che" marxista zen. Nazioartekotasunean sifisten zuen. Erreboluziogillea zen. Irugarren munduan armen bitartez egindako erreboluzioa zela egokiena uste zuen. Klaseak ba dirala. Hauek burrukan daudela. Dirua kaltegarri dela. Estatu sozialistak (Europa'koak) egiten duten komertzioan nazioarteko prezioak (hauek kapitalak ezartzen dituenak dira) onartzerakoan sozialismoari traizioa egiten diotela. Estatu sozialista batek produzioko ondasun guztiak kolektibizatu behar dituela. Sozialista den estatu batean lanerako ta produzioko diru sari zirikitzailleak ematea ez dela gizon eta gizarte berri bat jasotzen saiatzea. Hauek ziran "Che"-ren pentsamentuetatik eta egiteetatik batzuek.

Horrelakorik, ordea, ez degu ezer asko irakurri ta entzun. Arri-tzekoa izango zen. Gizon hau hil ondorenean bizi zanean baiño fama-tuagoa biurtu den ezkerero, erabat arriskugarria izango zen osoan, zen bezela, menperatuek eta sufrituek ezagutzea. Komeni zen, beraz, mami-a kentzea. Ta azal politarekin ametsetako beste bat sortzea.

Zen bezelakoa artu dezagun. Mitu biurtu dela ta dutela, estu-diatzea beste zerbait da. Hori bada estudiatu nahi duguna aitortu de-zagun. Ez gaitezen engañamenduetan ibilli.

Galdera zenbait

«Che» Gevara ta kristau-konzienziaz

KARLOS SANTAMARIA

Urrillak zortzi egun zituela, igande eder baten goizeko seiretan, latitude haietan argia zabaltzen hasten den orduan, gaizto sakaildutako gerrillero bat boliviano "rangers" talde baten eskuetan erortzen zan. Zauritutakoaren egiatzko nortasuna berehala jakin zan eta Camiri herriko etxe ta kale guztietan zehar zabaldu, berria. Ander Gevara, miriku arjentindarra ta matxinazale famatua zan, gudari arrapatua! (Urrengo egunean hil omen zan gizarajoa nahiz ta batzuek esan bolivianoak garbitu zutela, korapillo ta istillu guztietatik itzuritzeko).

Estraiña, mundua harrituta gelditu zan, berria ezin siñisturik. Ordurako Che Gevara'ri buruz, hainbat gezur entzuna baizan, ezen bere heriotza zalantzan jarri zuten aldizkari gehienek.

Baifian handik egun gutxitara, alegia, emezortzi egunean, jendetza izugarri baten aurrean La Habana'ko "Revolución' eko" plazan, Fidel Castro'k berak egia osoa jakin arazi zion herriari.

Malkorrak begietan, bere adixkide maitetsuaren heriotza aize guztietara barreiatu zuen.

"Gure Che maitea eredu bat izango da aurrerantzean —esan zuen Fidel Castro jaunak— gure herriarentzat ez ezik baita ere Amerika Latina-ko herri guztientzat. Hamar urteko edo hogeai urteko gudate baterako, gerla baterako, bere bizia bera bezain luzea, prest zegoen, Che Gevara. Aurrera jarraituko dugu eta bere heriotzagaitik erronka jotzen hasi diran imperialistak oker dabiltzala laister ikusiko da".

Berehala miñezko telegrama ta gutunak alde guztietatik heltzen hasi ziran Cuba'ko Herri-burura.

"Martiri bat izan da. Luzaro izango degu gure gogoan" —zion "L'Unitá" Errroma'ko aldizkari komunistak.

"Herri guztien askatasunagatik hil da Che Gevara" —azaltzen zuen URSS'eko Partidu Komunistaren idazkaritzak.

Bumedian koronelak, Arjelia'tik mensaje eder bat bialdu zuen Gevara'ren oroipenez. Ta alde hartan bertan egoten zan Amerika-ko Stokely Carmichael estudiante beltzak, azalpen hauek egin zizkion hango eguneroko baten idazleari: "Che Gevara'ren odola herri askoren askatasunerako elikamendu izango da".

Régis Debray idazleak, ere bai, oraindik kondenatuta ez zegoena, Guayaquil'eko "Vistazo" aldizkariari agerpen garrantzidun batzuek egin zizkion, beste gauzaen artean hau ziotenak: "Ba liteke Che Gevara ta biok oker egotea, eta guk egindako hutsak nozitu beharko ditugula, eginkizun hauetan sartzen diran guztiak bezala. Gevara hil da. Ni zigor astun bat hartzeko zorian nago, baiñan, goiz edo berandu, beste burrukariak sortuko dira eta inperialismoa azken ondamenearaño gudukatuko dute berak".

Eman dezagun esakizun guztiak aldezkoak izan ez dirala.

Alde batetik, eskubiko jendeak, batez ere yanki'en alde jokutzen dutenak, Che Gevara bandido bat besterik ez zala esaten dute. Bestaldetik Venezuela ta Bolivia'ko Partidu Komunistak Gevara abenturista ta Kijotetzat dute ta bere gerrillako lana ez dute aspalditik onartzen. Hauek diotenez, hango herriak ez daude prestaturik horrelako matxinada egiteko ta Che Gevara'ren entpresak poto egin behar du nahi ta nahi ez.

Ez ote du ba, beraz, meriturik batere izango gizon honek bertako eskubikoak eta ezkertiarak —Castristak kampo— batera salatzen duten ezkerro?

Gizatasun saietsetik, politika alde batera, ba du Che Gevara'k zerbait merezi, bere adiskideen alde ta ona zeritzaion kausaren alde bizia eman baidu, baita gogoz eman ere, Bolivia aldera joan zanean, ba zeki-elako zer sasitar-tean sartzen zan ta nola bukatu behar zuen bere abenturak. Honelako konportamendu ta bizikerari begi onez begiratu behar zaiola ez du ifior-k ukatuko.

Bestela izango da, jakifia, Che Gevara'ren burruka politikako efikaziaren aldetik neurtu ta aztertu nahi zaionean.

Amerikako gaitzak sendatzeko edo gehitzeko izan ote da Ernesto Gevara'ren lana? Guztiz zalla da galdera honi erantzuna ematea.

Ondorenak erakutsiko du, noski, eta seguruenen izango da Amerika latinaren arazoak, orain baiño nahastuagoak izan ditezela datozten urtetan.

Beste saietsetik nahiago nioke nik Che Gevara'ren gaiari jo.

Nik galdera bat egingo nieke nere irakurleei, kristau diranei batez ere.

Zer esaten dio gaur kristau konzienziari Gevara'ren heriotza gertaera negargarri honek? Zer esaten diote kristau konzienziari Camilo Torres apaiz zanaren eta beste gerrillero kristauen eta ez kristauen heriotzak? Reboluzionarioak eta bandidoak zirela esanaz kitatuko al gera kristauok?

Horrelako galderak ez dizkiet egingo, jakiña, kristau aburgesatu ta ondo instalatuerei, ezta ere nere gazteoroen "bien pensant" deitzen zitzaiereri.

Bañan ba daude, Jainkoari esker, bere kristautasuna gaurko egunaren arauaz bizi nahi duten egiazko kristauak.

Gevara'ren lanak, beste ekarririk izan ez badu ere, kristauok Amerika latinaren naigabe ta miseriaz konzienzia hartu dezagun balio izan balu, bulartsu horren odola etzan alperrik ixuriko. Ez bere odola, ez bere lagunen odola, ezta ere gudate hontan erori diran Boliviako soldaduen odola, guretzat odola guztiak sari ta errespeto berdiña merezi bait dute.

"Gure herrien bidegabeak zuzendu ditezten, iñorren odola ixuri behar da" esaten zuen, aspaldirik ez, nere adixkideen batek. Bañan zer odola? noren odola? Martiriaren odola edo gudariaren odola?

Nik ez det uste kañoiak ta bonbak herrien zuzentasuna ta zoriontasuna ekarriko dituztenik.

Kañoiak ta bonbak itsuak dira ta, nork esan du hoiak berak kausa onera lagunduko diotela? Hau pentsatzea guztiz zentzugabekoa iruditzen zait, nahiz kristaumentzat nahiz komunistentzat. Herri pobreak, proletarioak, galtzaille ateratzen dira gerla guzietatik. Aberatsak berriz beti garaille.

Reboluziozaleak gudaren bideari jotzen badiote, nork bermatuko die garaipena? Halabeharrak? Kasualidadeak?

Biolentzia, gogortasuna, beharrezkoa da, bai, gure mundua zuzentzeko. Bañan zer nolako gogortasuna? Hori da ta hori izango da, gaur eta biar, problema izugarria. Batez ere ebanjelioko politika edo kristau-politika baterako.

Izugarriak ta ugariak dira Amerika latinaren gaitzak: politikazko kazikismoa edo, han esaten duten bezela, "hejemonismoa"; yankien

inperialismoa; gosea ta jakin-eza; latifundioa ta lurraren lantze ba-
karra edo monokultiboa; egiazko klaseen konzienziaren eskastasuna;
siniskeria ta sasi-erlijiotasuna, aberats ta jauntxoeri beti lotuak
daudenak...

Reformismoaz, "konformismo" izena hobe izan zitekean oraiñar-
teko reformismoaz, asperturik dago Amerika latinako jendea. "Alianza
para el progreso" zeritzana progresorik gabeko alianza soilla gelditu
dala diote hango herri askotan.

Yankien politikak ez du jokatzan Amerika herrietako interesen alde,
jakiña, beraien interesaren alde baizik. Eta hau ikusten dutenak
gero ta ugariagoak dira ameriketarren artean.

Zer egin? Nundik hasi? Hoiiek ziran, izan ere, Lenin'en galdera
famatuak, hirurogei ta bost urte direla. Bafian orduko Rusia ez da
gaurko Amerika, eta gaurko URSS'a ez da Marx eta Lenin'ek asma-
tutako Estado komunista.

Nundik hasi? Zer egin?

Che Gevara ta Fidel Castro'k beren erantzuna bai eman dute, ez
bakarrik hitzez, baita egitez eta odolez ere. Iñork ez du ukatuko
gizon hauen kurajea (1).

Hala ere, efikaziaren aldetik ez da garbi ikusten Cuba'ren aven-
turatik sortuko dana.

Galdera hoiiek zerbait esaten diote, noski, kristau konzienziari.

Amerika egoeraren aurrez, antziflako moralaren, moral indibidua-
listaren ikuskerak ez dira nahikoa. Ez gerlari buruz, ezta ere ma-
txinadari buruz.

Aita Congar'ek esan du, Munduko laikoen batzarrean, reboluzioari
buruzko teologi bat behar-beharrezkoa degula. Bere hitzak hauek
izan ziran, gutxi gora bera:

"Reboluzio berbak esanahi ezberdin asko dauzka. Ezargia ta na-
haspillatsua, eta, batean, explosiboa da. Bafian horrexegatik komeni
da bera aztertzea, teologiaren aldetik. Izan ere, gaurko egunean
moralaren zati batzuek sail kolektiboari ezartzea nahi-ta-nahiezkoa
degu. Esate baterako: aspaldiko tesis ezaguna da gizon goseak-hil
batek mantentzeko behar dun janaria hartu dezakela, iñork lapurtza

(1) "Le Monde" egunkariak dionez, gotzai brasildarra dan Batista agurga-
rriak —emezortzi gotzaien idazkiaren idazleetako bat— hau esan du, oraindik
orain: "Le courage de la petite Cuba face à l'impérialisme international peut
constituer un exemple pour l'Amérique latine". "Presque tous les pays ont
peur d'affronter l'impérialisme international et en particulier celui des États-Unis".

ezin salatuerik. Tesis honek, zer emango luke gaurko populu gosetien egoerari ezarriko bagenio?"

Eta aita Congar'ek jarraitzen du: —frantzesez emango det labur egiteko— "Le Saint-Père ne cesse de nous dire que le nom même de la paix est, aujourd'hui, développement. Mais qu'en est-il, en fait? Il serait très injuste de dire qu'il n'en est rien, mais dans combien de cas, dans combien de régions, ceux qui prendraient vraiment aux sérieux ces enseignements ne seraient ils pas taxés de communisme et pratiquement obligés, même par l'autorité ecclésiastique, de s'arrêter ou de se mettre en situation irrégulière?"

Nik ez det uste ebanjelioren erantzuna fusilla artu ta mendira ateratzea izan ditekeanik.

Nik —berriz ere esan— ez det uste kañoiak ta bonbak herrieri zuzentasuna ta zoriontasuna ekarriko dietenik, baizik gaitz ta nahigabe izugarri asko.

Baïan, ziur nago, imperialismo ekonomikoaren gorputzilla igarotzen ikusteko elizako atarian eseritza ebanjelioko postura ez dala.

Eta moralista ta teologoeri egiten diet galdera: kristauen bidea, nundik?

SINISTU EZINEAN

iges egin behar

IGARA

Gizonaren beharrik sakonena, absolutu bat sifistea da; eta, era berean, gizonaren ezbeharririk eraman-ezifitezkoena, absoluturik ez sifistea. Nekezago izan gaitzke fedegabe, fededun baiño; nahiz adimentuak hartara bultzatuago, huntara baiño. Ethnologilariek hau ikasi dute mundua aztertuz. Gizona absoluturik gabe bizi ditekela pentsatzea da-izan alienazio nagusia (absolutu-egarririk gabe batez ere). Gizonaren absolutu-egarria faltsutzat, axalekottzat, edo alienaziotzat salatzea, denik eta faltsukeriarik faltsuena da. Hauxe da XX-gn. mendeko Zientziak erakusten duena. Gizonaren adimentuak, baita hizkuntza-egille denean (eta adimentua hizkuntza egille da errotik), munduari xede eta barne emaille da. Edozer baiño sakonkiago tajutzaille gera, antolatzaile, "estrukturatzaile".

Absoluturik ba ahal dago, ordea? Zein da absolutu hori? Nork bildu du beregan? Integristei hau gaitzi bazaie ere, ez dakigu erantzuten: hori erabakitzea zailla da oso. Nork bere absolutua du funtsean, oharkabean, bihotzaren ondo-ondoan, eta adimentuaz beharbada abilki diximulaturik. Neuk ere ba dut nerea eskierki. Nork bere absolutu bat du nortasunaren eusle eta oiñarri.

Ez ote da egia, ordea, estrukturalistek gaur aste dutenez, danak trukagarri dirala, alkar ordain dezatekela, egin ditzakegun aukera guziak defendigarri dirala hein berberean?

Kondairan zehar bi mogida ageri dira gailen, beti bat eta beti desberdin, eten gabe hasirik eta eten gabe hasi beharrak; eten gabe lillura iturri, eta eten gabe etsipen jatorri. Lehenengo mogidan, olatu berriaren etorreran, fede berri bat agertu ohi da, laister absolutu bihurturik, eta lehenagoko "alienazio"-en kontra gogorki atxaturik; eta bigarren mogidan, olatuaren joatean, fede berria gizonen nagusitu ondoren, alienazio-iturri berritza salatuz, atzeraka hasten da, etsipena ereiñez. "Alienazio" bakoitzari, "Egia" darraikio; baiña "Egia" laister bihurtzen da urrengo maillako "alienazio".

Giza-kondairaren iduririk zorrotzeta, beraz, totemismoa da: fenomenu nagusia ez da klaseen arteko burruka, "totem"-en arteko burruka amaigabea baizik. Leiñu batek bere "totem"-a siñisten du eta hauzokoa gaitzesten; eta alderantziz. Hortatik gerra dator. Belaunek berek "totem" burruka egiten dute: Rodolfo Valentino eta Jonny Halliday kide hutsak dira alde hortatik.

Kondaira, funtsean, azkenik gabeko sasi-absolutuen kondaira da. Erlijioa, jainkogabea itxuraz askotan, absolutuz josia bel, gizadiaren oiñarri gisa agertzen da: funtsaren funtsa eta kakoaren kakoa. Erlijioa ez da gizonaren alienazio nagusia: erlijioaren sustraia absolutuaren egarria da, eta absolutu egarririk gabe ez dago gizonik. Gizona ez da "homo oeconomicus" dalako hori: gizonak siñistu egin nahi du, eta askotan ezin du. Alienazioa ekonomia da.

Absolutua, izatez berez, abstraktoa da. Siñistaldietan, hortara (XIXgarren mendean, esate baterako), ideia abstraktoak eta inperioak zabalitzen dira. Siñisten ez dan aldietan, berriz, eta azkeneko absolutua alienazioztat salatzen hasten danean, gizona kerizatu egiten da abstrazioetatik, errazionalismoa zokoratu egiten da, inperioak zaitu eta suntsitu egiten dira. "Komintern"-en heriotza izan da mende huntako gertakaririk garraztsuenetako bat. Mende hunen gizon gailenak Einstein, Sartre eta Levi Strauss baitira, eta hirurak segurantzia abstraktoaren kontra jokatu baitira.

Aipatutako inperio horiek, zer esanik ez, politikazkoak izan ditezke maiz, ideiak instituzioetara igarotzen diralako; baiñan ideiak instituzioen aurretik etorri ohi diran ezker, ideien olatua instituzioena baiña urrutiago joan ohi da. Rousseau'ren ideiak urrunago heldu ziran, Napoleon'en inperioa baiña.

Gaur, beraz, eta nere ustez noski, abstrazio olatu baten bigarren partean gaude: atzerakoan hain zuzen.

Zein izan da gure begien aurrean suntsitzen ari dan abstrazio hori? XIX-garren mendeko positibismoa (mekanizista eta dialektikoa,biak). Positibismo baikor hura funtsean alienazio bat dala gaurko munduan, agertu ala, positibisten arteko zatiketa oso aurreratua dago; eta politikazko erre-bisionismoa (marxismoaren krisisa batez ere) ez gutxiago. Alde huntatik txinazaleek mendebaldeko marxistak errebisionistatzat salatzen dituztelarik, egia baizik ez dute esaten. Errebisionismoek fedearen ahultzea eta suntsitzea neurtu ohi dute maiz.

Absolutu-mezu guziek (eta Rousseau'renak eta Marx'enak oso bereziki) beren ekarria dute: 1789 eta 1917 urte gogoangarriak dira, eta nekez arbuia ditezke. Sasi-absolututasunaz kanpo, ekarria ona da, absolutuak ez baitira sortzen egiaren kontra. Absolutukeriak arbuia razten ditu illaran sasi-absolutu guziak. Baiña "totem"-en indarra absolutukeriak ematen du, ez bere egiak. Ekarria, horregatik, ukatua izaten da; eta marxistek, esate baterako, ez diote Levi Strauss'i barkatzen Rousseau'rekiko bere errespetua (ikus "Tristes Tropiques", 351).

Jendeak ez du gaur XIX-garren mendeko ideia abstrakto eta baikor haietan siñisten. Hiru puntu aipatuko ditut argigarri:

turismoa

Materialista batek bereala emango luke azalpen ageri bat: "Garraio-bideak aurreratu eta zabaldu diralako egiten da gaur turismoa: gaur anitzek du berebil bat, anitzek hillabete bakantza, eta hortatik turismoaren gehitzea".

Egia ote da, ordea? Estrukturalismoaren aurkikunde nagusia hau da hain zuzen: gizarte-gertakarien karkoa ez da gehienetan nabarmen agertzen, eta ez dakit zergatik onartu beharko litzakean azalpen "konziente" hori. Hizkuntza da gizonaren karkoa, gizonaren ezagupide nagusia; eta hizkuntzaren karkoa ohargabea da, inkonziente da hiztunarentzat; logikoa izanagatik ere, hiztunak EZ DAKI zergatik egiten duen hortara. Jendeak turismoa zergatik egiten duen ez jakitea ez da deus, nere ustez. Turismoaren karkoa "garraio-bideen aurrerapena" dala pentsatzea, beraz, azalpen alienatu bat onartzea izango litzake.

Jendea, urte guzian zehar, "confort"-en bila jo-ta-ke lanegin ondoren, jende horrek berak, "confort" hori alienazio-iturri irudituko balitzaio bezela, "confort" hori galdu nahi du. Aberatsek berek (eta

hau gero eta maizago), kanpiñeko denda batean bizi nahi dute hilla-betez, eta ostatuak ez dituzte ikusi ere nahi. "Côte d'Azur"-en fenomeno hau larria omen da ostatuentzako.

Europa'n gaur bakantza-hillabetea amets bat baiño gehiago, eta biziera askoren kako bihurtu da: dirua bakantzetarako gordetzen da, itxaropenak bakantzetan ipintzen dira, erospenak bakantzetarako egiten dira. Zergatik? Urte guzian etxea apaintzen erabilli ondoren (eta Europa'ko hirietan hau da gaur larunbat eta igandetako eginkizun nagusia dudarik gabe), nola ez apaindutako etxe hortan geldituko?

jaioterri-zaletasuna

"Abertzaletasun" hitza jar zitekean lehenengo kolpean; baiña gertatzen dan fenomenua ez da beti politikoa. Jendeak iturrietara jotzen du, "retour aux sources" zabal bat bailego Europa guzian.

Politikan, noski, oso fenomeno nabarmena da hau; eta, hau dala bide, Guy Héraud'ek Baiona'n berriki esan zuena esan genezake: "ethnien zuzpertzeta ez da hasi baizik egin".

Literaturan (Italia'n, esate baterako) gero eta idazle gehiago idazten dute eskualdeetako hizkera bereziaz, hizkuntza ofiziala "akstrakto"-egi eta hotz atxemanik. "Argot" dalakoak geroa eta sarrra handiagoa du ere bai.

Alemania'n hildo beretik, moda berri bat sortu da: bilkurak saloi dotore, moderno eta kaletarretan egin beharrean, antzifñako basetxeetan eratzten hasiak dira. Gomituak antzifñako jazkeraz jatzten dira; eta basetxea ahalik eta "jatorrenik" apaintzen da: antzifñako tresnak, argizagiak, sutegiak, dana. Jaiak eta gizarte-bilkurak, hortara, abstrakzioetik igesi abiatu dira. Alemania'ko baserri hutsak harrapazka ari omen dira saltzen eta... lehengoratzten!

Zer gertatu da Eskozia'n, politika maillara bihurturik, azkeneko aukeraketan? Azaroaren 5-eko "The Observer"-ek artikulu luze batean argi eta garbi azaldu du: "Winifred Ewing andreak irabazi du deputatu-postua Hamilton'go hirian, Eskozia'ko Abertzale Alderdiaren izenean. Eskozia, halere, ez da ifundik ere atzeratutako herrialde bat: ugarie hartako aurreratuen da aitzitik. Ikustea dauka irakurleak "The Observer"-ek 11-garren horrialdean dakarren kuadroa. Eskozia, soziologiaren aldetik, herri aurreratu bat da; eta Hamilton bera mia-hiria izanik, ez da kapitalismorik gabeko herri bat. Zaha-

rrak nagusitu ote dira ba? Ezta. Azken bost urteetan hauxe izan da Eskoziako Abertzale Alderdiaren aldakuntza:

1962-an 21 alderdi-talde 2.000 lagun

1967-an 323 alderdi-talde 60.000 lagun

3.000% bost urtetan! Eta "The Observer"-ek dionez horietatik hogeit bat millak 23 urte baiño gutxiago dituzte: gazteriak bultzatzen du, beraz, eskoziar abertzaletasuna; eta hau sekulan baiño bortizkiago. Bretaña Nagusia federalismora doa (onenean! Irlanda'ren kasoa ere aipatzen baita hau ikusita...).

ethnologia

Zergatik sortu da gaur Europa'n ethnologiarako joera indartsu bat? Urte hauetako erreboluzio nagusia ethnologiariek ekarri dute, hizkuntzalarien ondotik. Lehenagoko artikulu batzutan azaldu izan dudana bezela, XIX-gn. mendeko ideia-erreboluzio nagusia marxismoa izan zan bezela, XX-gn. mendeko ideia-erreboluzioa estrukturalismoa da.

Zergatik ethnologia indartzen? Zergatik alde hortatik billatu nahi bizi hori? Levi Strauss'en beraren iritzia aipatzea bezelakorik ez dakusat: "Mendebaldeak ethnographilaririk eman badu, damu gaitz batek hautsikiz hartara duelako izan da: gizarte desberdinen irudiak eta bere berea gonbaratzera behartu du damu horrek, huts berberak bihurtuko dizkioten itxaropenean, eta bere akats berberok nola sortu eta nola hazi diran ulertzen lagunduko dutelakoan... Ethnographilaria... damu-ordaiñaren ezagugarria da". ((Tristes Tropiques, 350).

Beti errepika diteke, noski, ethnologilaririk baldin badago, dirua hortarako ematen dalako dala; eta Levi Strauss'ek "Capitain Paul-Lemerle" ontzian Brasil'a joateko aukera izan zuela batez ere, Baiña hori bakarrik ez dago, nere ustez, eta Levi Strauss'ek berak ez du sifnisten. Ez dugu gure munduan sifnisten; eta, egiaren billa, zerbaite-tan sifnistu beharrak eragifnik, beste mundutara jotzen dugu.

Ez dugu sifnisten. Egoki esan du egun hauetan Pierre Henri Simon'ek: "L'ordre humain a perdu l'ordre des valeurs. Celles auxquelles il est attaché —l'argent, la consommation, les loisirs forcés, la bougeotte et la roulette— sont suspectes; celles dont il aurait besoin pour l'ordre et le bonheur —la culture, l'amitié, l'absolu, le

sacré— sont toutes en procès. Le fond du problème est donc métaphysique”.

Halaz ere, gizonak errotu egin behar du, itsatsi, absolutu baten bidez sustraitu eta finkatu. Abstrakzioetan pausa ditekeala sifisten ez duen unetik beretik, jaioterrira jotzen du, eta bere maitasunak eta lotkiak lurtean billatzen ditu, gizatasunezko hartu-emanetan, jaiotetxean, “aberri txikian”. Hauxe da, nere ustez, urte hauetako fenomeno askoren kaka.

Hau dala-ta, etsistenzialismoaren garaietan bezela, egiazkotasunaren behar gorria sortzen da (“authenticité” — “inauthenticité” hitzak Sartre'ren izkribuetan hainbat aurki ditezke Levi Strauss'en luman), eta egiazkotasun horren neurriak balio du gizarteei irizteko: ez etsistenzialisten modura, jakiña. (Oso gogoangarria da, gonbarazio baterako, idazkuntzari buruzko faksukeriaz estrukturalistek diotena). Levi Strauss'ek “egiazko”-tzat (“authentique”) dauka herri txikietan egiten dan bizimodua, 500 laguneko herrixka batekoa esate baterako (“un genre de vie perçu à l'origine comme traditionnel et archaïque, qui est avant tout celui des sociétés authentiques”); eta “alegiatzko”-tzat hiri haundietan egiten dana, hiritarrek galdu baitute batez ere hartu-eman zuzenaren ohitura (“des formes d'apparition plus récente, dont le premier type n'est certainement pas absent, mais où des groupes imparfaitement et incomplètement authentiques se trouvent organisés au sein d'un système plus vaste, lui même frappé d'inauthenticité”). (Ikus Levi Strauss, 402-403, “Anthropologie Structurale”).

* * *

Gizonak, hiltz batez, “egiazkotasun” horren billa, herri txikietara jotzen du: jaioterrira, “aberri txikietara”, herri urrun eta ezezagunetara. Fenomenua, hiltz batez, guztiz sakona da estrukturalisten ustez.

Marxistek ere gauza bertsua diotela pentsa ditekete hastapenetan. Baiñan hauen ustez urrutira joan nahi hau igarokorra da.

Hortan, beraz, marxistak eta estrukturalistok berriz berezten gera. (Ikus, esate baterako, Charles Parain'en iritzia, “Structuralisme et Marxisme”, 46 gn. horr., “La Pensée”, 1967-ko X-ko zenbakian). Marxistek diotenez egia da gizonok alienaziotik aldegitiko jotzen dugula herrixketara eta giza-multzo txikietara. Baiña marxisten ustez, gure iges egin nahi hori igarokorra da. Egia zaie herri haundietako bizimodua alienatua dagoela:

baña, jakiña, alienazio horrek, beste guziek bezela, kapitalismoan du oiñarria; eta kapitalismoa erauztean, ezabatu egingo da.

Nola siñistuko dugu guk horrelako ametsik? Hirietako bizimodua BEREZ da hotza, inpersonala eta faltsua. Faltukeria hau, "alegiatzokotasun" hau hobe, ez datorkio kapitalismotik, kaletarren arteko hartu-emanen modutik baizik. Mosku'ko jendeak eta Paris'ko jendeak, nik uste, iritzi berbera emango luteke huni buruz. Igarakortasun horren ipuin lasaigarri hortan siñisterik ez dagoela uste dugu. Parain'ek garbiki dio ordea: "L'inauthenticité n'apparaît plus que comme le caractère spécifique d'une forme de société transitoire"...

Gure zibilizazioak ba ditu alde onak eta alde txarrak. Berez eta denetan guttiz ona, egokia, eta aurrerazalea dala esatea ez da xuxena. Onartu ohi diran baloreei buruz aurrera doala bai: teknikari buruz, jakinduriari buruz, aurrera doa; alde hortatik gu aurrerago gera Sakhalin-go ainutarrak baiño. Hortatik ez dator, ordea, berez eta absolutuki aurrerago goazenik iñor baiño

Mendebalde-zalerik porrokatuenek berek aisa onartzen dituzte gure gizartean dauden akats larriak. Baiña guk ez dugu siñisten kapitalismoaren gorabehera huts igarokor bat diranik. Gure baloreen maila ez da ez bakarra, eta ez onena; europatarkeria hortatik begiratu behar dugu gure burua hain burua.

Guzien kaka, azkenean, GIZONARI BURUZKO IDEIA DA. Hortan berezten gera beti.

Gogoz gomendatuko nioke nik irakurleari Gilbert Cesbron'en azken artikulua ("On est toujours l'imbécile de quelqu'un"). Claude Roy'ek esan duenez, "Camus, Simone Weil eta Saint Exupéry, arimaren irakasleen hirutasun santua, zozotasun osoaren nortzea dira". Zergatik hori? Nun dago iritzi kupidagabe horren kaka? Cesbron'ekin erantzungo dut: "gizonari buruz dugun ideia da kaka". Ni Camus-zale naiz, Simone Weil-zale eta Saint Exupéry-zale; eta ba dakit zergatik.

* * *

Eta hunekin hasierako puntura heldu gera. Ez dugu "totem" berbera onartzen, eta gure arbuio hortatik datoz madarikazioak eta eskomikuak. Absolutua nun dagoen ez dakigula aitortzen dugu, eta apostolu eta eliza guziak kontra ditugu.

Egia dugu gidari, ordea, eta gizonari buruzko ideia bat ere bai, egia da. Bien zerbitzutan jokatu nahi dugu zer gerta ere.

euskaltzaleen jainkoa

ill

behar dugu

*"Kristauak bere baitan sinisgabe bat
daramaki fededunarekin
eten-gabeko elkar-izketan" (1).*

rikardo arregi

Fededunak behar duen amairik gabeko bere fedearen egunera-tzean, berpentsatzean, berbizitzean ezin lezake ahaztu bere inguruko kondizionamendua. Fedea ez da zerbait astratua, ez da igesbiderako deia.

Euskal Herria'ren prolemak bere gordintasun guz-tian, XIX'gn. gizaldian, planteatzen asi ziran ezkeroztik Jainkoaren izenak eta uste batek gure arteko pentsa-tzearen bizkar-ezurra osatu dutelako, gure fedearen berpentsatze ta eguneratzean korapillorik gogorreneta-koa osatzen du.. Bestaldetik, sarritan ikusten eta entzu-ten dugunez, euskal gaztedia fedea galtzen ari omen da. Nik, hori, pozgarria dela esan ditekela uste dut. Gi-zatasunaren aldetik, eta kristautasunaren aldetik ere bai, komeni da fede batzuk galtzea. Horregatik euskal-tzaleok izan edo asmatu dugun Jainkoa ill behar dugula uste dut. Gizatasunarentzat, gizonaren liberazioaren-tzat, zaleturik burrukan gabiltzan kristauontzat Jain-ko hori idolo bat delako. Gizonaren liberazioarentzat kate eta eragozpen bat.

Fedea eguneratzea eten-gabeko burruka da. Fedea, une bakoitzean erne izan behar dugun hoietakoa da. "Gure arkitu nahiak eten-gabeko izan behar du. Gure fedeak ez digu baimenik eta oporrik ematen desipuitze ta ber-ipuitzearen arteko dialektika baztertze. Dialektika honek duen egonezifietik iges egin nahi guztiak —edo eskubira, ipuiean finkatuaz, edo ezkerrera, mitua beñ batekoz dese- gifañ— historiaren mugan bertan "esjaton" batera zuzentzen den fede ta esperantza bidelari eta ebolutiboaren kontra egiten den burgesa- tzearen pekatu astun bat da" (2). Izan ere, "desipuitzearen lanean gabiltzanok ipuiak erabiltzen ditugu eta ez dago hortan kontradiziorik. Mitu hoiek derrigorrezkoak dira, ezaguera erabatekoa ez izaterakoan, irudi batzuk derrigorrezkoak ditugulako gure ezaguera ta asmoe- tan" (3).

Ondorenean datozten lerroak Egiaren billa egiten saiatu naizen urbiltze bat besterik ez da. Osatu gabea, beraz, geroago zuzendu beharrekoa. Ausardiarekin egiña, dudarik gabe. Eziñ, ordea, ixillik gelditu. Nere pentsamentuak, eskasak noski, argitaratu —eta horregatik oker jokatzea arriskatu— edo nere baitan gorde obetogo sendotu bitartean, da azaltzen zaiten aukera. Dudarik gabe, arrisku guztiekin, lehendabiziko aukerutzen dut.

Rousseau, erromantikoak eta Jainkoa

Euskaltzaleak ez dira izandu esan oi izan den beziñ baserritar eta aldeanoak. Xinplekeri aundiena litzake hori defenditzea. Julio Caro Baroja'k dion bezela, ordea, XIX'gn. euskal mendean erreboluzio gisako zerbait gertatu zen Euskal Herria'n. "Emeretzigarren gizal- dian erreboluzio urbano gisako zerbait gertatzen da, bizimodua erabat aldatuko duena, gure egunean neurri izugarriak artzen dijoan erre- boluzioa" (4). Izan ere, "bi edo iru hiri aundi ez izateak, tenikaren aldetik egiten ziran lanak legundu ta gutxitu zituen. Pentsamentua- ren aldetik Herriaren desarroloa eskas xamarra izan zen beti. Eus- kalduna, mailla aundienetara iritxi zen garaietan ere, XVIII'gn. mendean, batez ere praktikoa izan zen, utilitarioa, teori saiaketarako ta inbestigazioetarako, joera gutxikoa, baserritar zalduna, kasurik onenean kanpoan egiten zanaren ezagutzaillea. Eta honek bere ondo- renak izan zituen produzitzen zuen industria, atzeratu xamarra beti, nahiz eta Espainia'ren kontestuan (edo beste edozeifetan) bere bi- zikoa eta estraifua" (5).

Emeretzigarren mendean industriatzen da Euskal Herria, sentidu modernu batean. Hirietako zibilizazioa ere orduan sortzen zaigu. Atzerriar langilleen etorrera ere orduan asitakoa. Fueroak galtzea, Espainia'ren batasunean sartzea, karlisten gerrateak. Beltzak, errepublikazaleak, sozialistak. Karlistak, integristak, abertzaleak.

Eta danetan nahastua Jainkoaren itza, Jainkoaren uste bat. Jainko honi deitzen diot euskaltzaleen Jainkoa. Hori da iltzen doana eta ill behar duguna.

Emeretzigarren mendea ezkeroztik Euskal Herri'ko guztiak ez dira euskaldunzat artu izan, euskaldun ontzat gutxienez, Euskaldun izaera baserritasunean bildua zela zirudien karlisten lehendabiziko gerratean. Indartzen zijoazten euskal hiriak, Bilbao eta Donostia, eta euskal burgesak beltzak ziran. Hauek librekanbistak ziran. Izan ere garai haietan politikan liberalak ziranak ekonomian librekanbistak ziran. Bilbotar eta donostiar euskaldun burgesak ere librekanbistak ziran, librekanbioa bere komertzioaren eragizenez Espainia'ren barruan ikusten bazuten ere.

Fueristak, politikan eta ekonomian, autarkizaleak zirala esan genezake. Aislazionistak.

Mende hortan burgesia, Donostia eta Bilbo'ko komertzio gille ta kapitaldun liberalak, goraka zijoan indarra osatzen zuten. Hoiek ziran aurrelariak. Besteak, nekazaritzan finkatuak, lurraren jabeak edo lurra lantzen zutenak, desegiten zijoan nekazari zibilizazioaren eustailleak. Bigarrengoak lehendabizikoak ez zirala edo euskaldun gaiztoak zirala zioten. Euskal Herria'ri traizioa egiten ziotela atzerriko ideia ta gizonen morrontzan. Gaiñera Jainkoaren etsaiak omen ziran libertadearen ideia txoro ta arriskorrek ekarri zituztenak. Euskaldun izatea fededun izatea omen zen. Izan ere fueroak, Ebro'ko aduanak, liberalismoak etab. zirala ta **Jainkoa euskal arazoetan nahastua azaltzea ez da batere arritzekoa. Gutxiago eztabaida hoietan batzuk bere bandera ta lema egitea. Jainko hori, ez da, ordea, Biblia'ko Jainkoa izango, Jainko espezial bat baizik.**

Emeretzigarren mendeko situazioa ta ideiak bat batean sortutakoak ez dira. "Argien mendena" Madrille'ko erregeen absolutismoa ta zentralismoa indartzen zijoan neurrian asi zen euskaldunetan bere kondizioaren berezitasunaz kontzientziaratztea. Esmatze honek eboluzio luze bat izango du. Aspaldidanik errealdade bat izango da, izkurtua bederik ere. Emertzigarren mendea ezkeroztik asiko da, ordea,

sendotzen. Eta defensibaren seillua eramango du bere baitan. Komerzioaren eta ekonomiaren azitzeak hoienek manejatzaileak diran euskal komerziogille burgesak Euskal Herria'z gaindik zabaltzera eta begiratzera bultzako ditu. Eta Madrille'ra begiratzeko asiko dira. Fuetaroak ekonomiarentzat zituzten zenbait puntu kaltegarriak izango dira Euskal-Herri'ko ekonomiarentzat (6). XIX'gn, gizaldian situazioaren eustailleen eta aurrelarienean, karlista ta liberalenean, gerla piztuko danean, euskal burgesak bigarrengoekin izango dira. Espainia'n erreboluzio liberalaren bitartez sortzera zijoan estatu berrian ikusten zuten biderik egokiena Euskal Herria'ren komerzioarentzat. Karlisten gerlak irabazi arren Espainia'n apenas gertatu zen burges eta liberal erreboluziorik. Euskal liberalak ere euskal arazoetatuz arduratzen ziran. Baifian berak egin nahi zuten erreboluzioa frustatua izan arren, izandu ziran konserbadoreak Espainia'n zentralismoak reakzioari ekarri zezaioketan bentajaz konturatu ziranak. Frantzia'ko kopia izan zen hemen egindako zentralizazioa eta hau bezela goitik beherako gobernu bati indar guztiak emateko. Agintea esku batean eta leku batean bilduta izatea komeni zitzaie, bestela posible baizen erresistentzi herrikoiak sortzea, beste aginteetan noski.

Horrelako giroan asi zen jaiotzen ezagutzen dugun Euskal Herria modernua, industriatu eta modernoa. Orainsu arte, ordea, Euskal Herri hau euskal izaeraren kontrakoaz artzen zuten zenbait euskaldunek eta euskaltzale guztiak. Zergatik? Euskaldunen nolabaiteko autarki hori arrisku aundiagoan jartzen zijoan neurrian, euskaldunetan bere kondizio ta izaeraren berezitasunaz kontzientziratzea indartzen joan zela esan dugu. Hortik ideialogi berezi bat sortuko da.

Rousseau'k gizona berez ona zela ta gizarteak biurtzen duela gaiztoa zion. Theori honen ondorenean zabaldu zen Europa'ko herrialdetan **"basati onaren"** irudia. Ondo ezagutu gabeko Herriak, Europa'ko Herri zibilizatuenetatik aparte bizi ziran Herri edo herrialdeak biurtu ziran **"basati onaren"** ejenplurik onenean. Julio Caro Baroja'k esaten duen bezela XIX'gn, mendean gertatu zen Euskal Herria'n erreboluzio urbano gisakoa, orduan aunditu ta sendotu hiriak, zitudadeak. Nolabait esateko, itzaren ethymologiari kaso egifik, zibilizatu. Zitudadeak zentralismoarekin batera sendotu ziralako, industriatzea ta gizarte industriatua ere bai, euskaldunek bere izaeraren berezitasunaren aurkakoak bezela artu zituzten. Industrietutako gizarte euskaldunen kontra jasotakoa da, pentsatzen zuten, gutxi gora behera. Gizarte honek gizona, euskaldun gizona, gaiztoa egiten du.

Mende hau inbestigatzailleen mendea izango da. Euskaldunen izkuntza ta arraza estudiantzera etorriko dira jakintsu ospetsuak Alemania'tik, Frantzia'tik etab. eta Herri hau erabat aparteko dela ikusiko dute. Bestetik historiaren aldaketa aundietan bere apartekotasuna gorde duelako, Europa'ko Herri aundi ta aurreratuenetatik begiratuta ontasun natural batean bizi ziralako, nai ez izanda ere Rousseau'ren "basati ona" —"baserritar ona" esango genduke guk— zetorren oroi-menera. Ontasun naturala, sentidu hontan, alegia, industrietutako ta asko desarrollatutako gizarteen artifiziosidaderik gabekoa.

Hau guztia, behar bada, ez da beifere agirian eta garbi garbian esan izandu, baiñan garai hailetako pentsamentuak bere sakontasunean aztertu ezkeror arkitu ditekela uste dut.

Dudarik gabe, azkeneko menderarte, Euskal Herria batez ere nekazaritzaren zibilizazio batean bizi zen. Eta zibilizazio hortan gauzak ez ziran zenbait kanpotar jakintsu eta bertako euskaldunek uste zuten bezifin ximpleak.

Industrietutako gizartean sortzen ari den kontraposizioan, nekazaritza gizarteko gizona ohea dela uste izatea, iritzi arrunt sospetxagarria da. Aldatu nahi ezak, lehengo eusteak, aurreratu nahi eza azaltzen dute. Modernua danarentzat mesfidantzarik aundiena eguneratu.

Ta hori horrela izan dela garbi dago. Euskal literaturan, Mogel'ek idatzitako "Peru Abarka" da esaten ari naizenaren adibiderik onena. Peru Abarka izango da euskaldunaren personifikazioa, bera izango da adibide ta ejenplu ta ez jakituna, gizon ikasia.

* * *

Aurrera jarraitu baiño lehenago zerbait argitu dezagun. Euskaltzalea esaterakoan euskal prolemaz arduratua esan nahi da. Baiñan ez nolana hikoia. Euskaltzaleak Euskal Herria'ren eboluzioan gorputz soziologiko bat osatu dute. Gutxi gora behera euskal gizartea nekazaritzarenarekin identifikatu zutenak osatutakoa da.

Euskaltzaletasuna bi-balio-duna izango da, bi egal, alde, arpegi, posibilitade izango ditu. Batetik aurrerapenari frente egingo diolako

edo arpegi txarra jarriko diolako reaktionarioa eta koserbadorean biurtzeko joera izango du. Aurrerapenari fronte egiten ez badio ere, honentzat mesfidantzarik aundiena izango du. **Bestetik**, ordea, industriadze honekin batera, euskaldun izatea jarriko da arrisku gogorrean. Ekonomiaren desarrollurako Euskal Herri'ko mugak España guztira zabaltzeak, zentralismo politikoa ekarri zuen. Honekin batera kultura alienatu bat, besteen funzioan pentsatu zalako. Honen aurka altxatuko da euskaltzaletasuna. Ezarritako gobernu euskal arazoan aurka baldin bazebillen, honi egingo dion erresistentziak emango dio euskaltzaletasunari aurrelari izateko ahalmena.

Euskaltzaletasunak bi ahalmen hauen barruan eboluzionatuko du. Zenbaiten pentsamentuan, gaifera, indar zentrista izateko posibilitaderik aundiena emango dio. Politikan izango diran aukeraren artean, bi muturren tartekoa, erdikoa, izango dela usteko du. Izan ere euskaltzaletasunaren izate guztia ekiboko batean finkatuko da. Euskeraren eta euskaltzaletasunaren arazoak Euskal Herria'ren industriadze garaiekin batera artuko du gorputza. Industriadzearen garaiak aurrerapen bat dakarkite gizonarentzat. Industriadzearekin batera asiko da euskal izatea ittotzen eta gizarte berria egiteko modua laister euskaldunarentzat besteratzaillan biurtuko da, alienazioarako bidean. Mundu guztian bezela beñ sendotzen asi ezkerero, industriadze honen gidarien interesak ez dira Herriarenarekin ados izango. Puntu hontan euskaltzaleak arrazoñ izan dute beti. Industriadze hori kondenuatu egin behar zen. Industriadze konkretu baten kontra burruka egiteak, ordea, ez du esan nahi industriadze guztia txarra danik. Ez da igarotakoari dei egiñaz desegingo industriadzearen **era** txar hori. Industriadzearen progresua onaturik, hau euskaldun eta gizontiarra egiñaz baizik. Euskaltzaletasunak, ordea, hori egin beharrean igarotako garaiak euskal izatearekin bat egiterakoan burruka hortarako indar aundiak galduko ditu. Libertadea etengabe eguneratu behar den zerbait dela ahaztutzerakoan lehengo lege eta oituretan arkitzen ziran libertadeak absolutura jasoko dira.

Honelako itzak esango dira: "desafioa egiten dizutegu gu baiño libregoak izatera, zer diogu gehiago?, zuek zuen prinzipioekin gureekin bezif libreak. Desafioa egiten dizutegu, liberal modernuok, guk fueristak, betidanik libre geranak" (7).

Euskaltzaletasunean, beraz, euskaldunaren eta baserritarraren arteko identifikazio gisa bat izango da. Eta errealidade guzti hortan bildua Jainkoa? Zer Jainko ordea?

Benetako uskal izaera ta gizartea nekazaritzan edo igarotako garaietan dagoela usteko da Garai hoiek erabat idealizatuak izango dira noski. Gizarte hori horrelakoa izatea Jainko batek nahi izandakoa dela. Jainko hori izango gizarte hori horrela izatearen esplikazioa. Gizarte era honen kontra joatea Jainkoaren kontra joatea. Eta aldrebesean berdiñ. Euskeraren eta erlijioaren burruka berdiñak. Euskeraren atzera joatea erlijioaren atzera egitea. Gauza berriak pekatagarriak. Lotuan dantza egitea, siñu berrietan dantzatzea, pekatu. Maketoen gauzak, esango da, maketo itzarekin adierazi nahiko den desprezio guztiarekin. Gure oiturak, "garbiak". Kanpotik datozenak, sortzen ari diran berriak, lizunkerez beteak eta zikiñak. "Gure oitura garbiak" izango da idazle ta izlarien esanetan ugariena azalduko diranak. Euskaldunak zergatik geran galdetzerakoan, Jainkoak horrela nahi izandu duelako erantzungo da. Ta Jainkoaren nahi hori betetzea besterik ez zaigu tokatzen. Munduan ordena bat jarria dago. Ordena hori Jainkoak jarri du. Ordena horren barruan jarria dago euskaldunak eta euskaldun gizartea diran bezelakoak izatea.

Xistima bezela uste ta ideia guzti hauek baiñere bildu ez badira ere argi dago hau guztia izan dela oraintsu arte euskal pentsamentuaren bizkar ezurra. Euskaldunen eskubideen alde burruka egiterakoan Jainkoaren alde ta lehenagoaren alde burruka egitea izango da.

Zer Jainko da, orduan, euskaltzaleena? Euskaldun izaera konkretu bat esplikatzen duena eta gizarte berriari kontra egiteko justifikazioa dana. Situazio konkretu baten esplikazio ta justifikazioa. Jainko besteratzaillea, gizona alienatu duena. Euskal gizona bere buruarentzat arrotz eta estraiñu egiten duena. Euskalduna, planteatu zitzaion arazoaren aurrean, defentsiban jarri zen edo, zeatzagoak izan nahi badugu, defentsiban jarri zuten. Hori justifikatzeko gizon eta gizarte konkretu bat, nekazaritzakoak, eredutzat eta alda-eziñezkotzat artu ziran. Konkretutik ez zuten ezer, ordea. Astratoak ziran. Batetik, nekazaritza garaietan euskalduna esaten zuten bezelakoa ez zelako. Bestetik, desgaraiean egingo delako eredu. Horrela euskaldunarentzat gizongintzak ez du sentidurik izango. Bere egin-kizuna eredu baten konformazioa izango da ta ez gizona sortzen joatea. Uste hori gizonaren liberazio ta osatzearentzat kate ta eragozpen bat izango da. Jainko bat izango da errealidade guzti horren eustaillea. Izate hori ez balitz ez luke sentidurik izango gaiñontzeko guztiak.

garai berriak

Euskaltzaletasunak bere belaunak ditu. Belaun bakoitza industriatutako Euskal Herria'n integratuagoa arkituko da. Bere pentsamentua eta adimenaren giroa oraindikan nekazaritzarenean iraungo du. Dударik gabe, pentsamentu honek bere eboluzioa izango du baiñan zaiñ zuzendariak betikoak izaten jarraituko dute.

Gaurko belaun euskaltzalea erabat industriatutako gizartean bizi da. Euskal langillearen edo burgesaren semea da. Bere buruaren giroa ta mundua industriatutako gizarteetan izaten bezelakoa da. Aurreko euskaltzaleen munduaren konzepzioak ez dio ezertarako balio. Errealidadearen pixuagatik lehengokoenak ipui polittak iruditzen zaizkio. Bere kezka ta prolematikarentzat ez dute ezer esan nahiko. Euskaldun izatea gero ta zaillagoa izango da, ordea. Lehengo esplikazioak ez onartzea ez da izango, ala ere, euskaldun izatea baztertea.

Esplikazio hori bazterterakoan esplikazioaren eustaille zen Jainkoa ere baztertu egiten da. Horregatik da pozgarria zenbait gazteek Jainkoarengan fedea galtzea. Hoiien Jainkoa ez baizen Biblia'ko Jainkoa. Gizonaren autonomiaren etsala eta eragozpena zen Jainkoa baizik. Euskaltzaletasunak uste zuen bezelako gizartean ez zegoen gizonarentzat autonomiarik. Gizarte hori, lege zaharrak osatutakoa noski, Jainkoak zuzenki ezarria omen zen. Berak zuzenean horrela sortua. Dana garbi zegoen, dana esplikatua arkitzen zen. Gizonaren eginkizuna gizarte hortan bere papera betetzea zen. Hori izango zen bere ontasuna edo gaiztotasuna neurtzeko kriterioa eta neurria.

Gizonak bere gizatasuna etengabe izateratu behar zuen errealdadea zela ez zuten pentsatu ere egiten. Historiaren eboluzioa dialektikoa izan zitekienik ez zitzaizen bururatu ere egiten. Gizona bide jakin batzuetan katigatuta arkitzen zen Jainkoaren izenean. Dana esplikatuta zeukan ezkeru, bere burruka guztia lehengo gizartea berpiztea ta eguneratzea izango da. Gizon euskaldunaren ideia astrato bat izango du ta bere gizongintzan gizon horren irudian biurtzeko saiatuko da.

Postura honek ez du batere sentidurik gaurko euskal gaztediarentzat. Lehenago esan den bezela hau erabat industriatutako gizartean bizi da ta honelakotan izaten den mentalidadearen kide da.

Bizi den industriatutako gizarte hori besteratzaillea dela konturaturako da. Gizonari bere autonomia kentzen diona. Gizona ta gizar-tea sortzen joateko duen derrigorrezko beharra lapurtzen diona. Gizon izanik, gauzatu egin nahi duena, numero ta gauza gisan errezago manejatua izateko. Euskaldun izatea, ots, gizon konkretu bat izatea ukatzen diona ta konkretu egiten duen kondizionamendua ukaturik **besteen** normak eta izaerak proposatzen dizkiona.

Honela kontzientzi ta rebeldi berri bat jaioko da. Euskaltzale berria gizon erreboltatua izango da. Euskaldungoa ber-asmatu beharko da. Euskaldunaren gizongintza ez da izango lehengo gizartearen gisara moldatzea, sortu ta izateratu beharko dana baizik. Erreboltatua danez euskaltzale berriak lehendabizi bera sortu den giroan zabaldua dauden kateak lertu beharko ditu. Bere gizatasunaren autonomia reibindikatu du. Bere gizongintza berri hontarako ez du Jainkoaren beharrik izango. Arrazoi guztiarekin, Euskaltzaleen Jainko hori baztertu beharko du. Hau bere bere autonomiarentzat oztopo bat delako. Asmatze berri hontan ez du Jainko horren beharrik izango. Hau da koska. Zenbait euskal gazteek fedea Euskal Herria'n dagoen Eleizagatik galtzea, egunero ikusten da. Inportanteagoa da. ordea, euskaltzaletasunean Jainkoa itzak sortzen duen ekibokoak zutik jarraitzea. Jainkoa domestikatu egin dugu. Traszendentzia dana bertakotu. Gure situazioa lotu. Ta situazioa aldatu ezkeroz zer? (8).

Jainkoaren ideia euskal kristauok zertan zuzendu behar dugun aztertu aurretik begirada bat eman dezaiozun gure munduko Jainko-ukatzailleen banaketari.

Jainko-ukatzailleak

Iru sailletan banatu ditzazkegu.

LEHENDABIZIKOAN Jainkorik izatea edo ez izatea ajola ez zaienak osatzen dute. Ugarietak dira, kristauen artean ere bai. "Gure Jainkoak makina ta efikaziaren ideia dira; gure bizitzaren sentidua aurreratzea da, gaillurrera ahal beziñ gertu irixtea. Erlijioaz, ordea, monotheismoa entenditzen badugu, orduan, jakina, gure erlijioa eskaparartetan erakusten diran merkantzi hoietako bat da. Monotheismoa enajenazioarekin, besteretzearekin, elkartu-ezifizekoa da. Gizonaren osatzea, bere salbazioa, bizitzaren xede nagusia

egiten du, beste edozein xede batera makurtu ezin ditekene, Jainkoa definitu ta ezagutu ezinezkoa denez, eta gizona bere irudira egia dagonez, **gizona** ezin dezakegu definitu. Honekin, **gauza** bezela ezin dezakegula beñere kontsideratu esan nahi dugu. Monotheismoaren eta idolatriaren arteko burruka bizimodu produktiboaren eta beste-ratuaren artekoa da. Bizitzaren sentiduak eta bere soluzioak ez digu batere ajolik. Bizitza disgustorik gabe pasa eta ahal bezin ondo inbertitu beste xederik ez dagoela uste dugu. Gehienak Jainkoa sinisten dugu. Gaiñontzekoak ez. Era guztietara Jainkoa ametitzen da. Hori sinisteak edo ez sinisteak ez dio loa inori galdu erazitzen, ez dio inori interes serio bat sortarazten. Gure kulturaren ez dago batere diferentziarik Jainkoa sinisten dutenen eta ez dutenen artean. Inor ez da arduratzen Jainkoaz ezta ere bere izatearen prolemaz. Jainkoa urruti dagoen "Director General del Universo S.A." bat da. Zuk han dagoela badakizu, eta mundu hontako teatroaren representazioa zuzentzen duela. (Bera gabere berdin izango litzakela uste baduzu ere); zuk ez duzu ikusten baiñan bere zuzendaritza nabaitzen duzu, "zure papera" egiten ari zeran bitartean". (9). Itz hauek dira ondoena errealdadean Biblia'ko Jainko ukatzaileen postura azaltzen dutenak.

BIGARRENGOAK marxistak dira. Nolabait eta laburki hauen pentsamentua puntu hontan definitzeko marxista batek diona jaso dezagun: "Jainkoaren ideia sakon biziutako benetako aspirazioei dagokiena da. Aspirazio hauek, ordea, erabat indibidualak dirudite-nean ere guretzat historiaren **azpian** arkitzen dute beren esplikazioa. Hori da guk esan nahi duguna zuzentzat aiañ penagarri den espresio hontan. gizonak dirala Jainkoa sortu dutenak" (10).

Jainkoa gizonak sortutako da, diote marxistak. Gizonak bere burruka ezin esplikatu ditunak, onratu ezin ditunak Idealizazio batean reflejatzen ditu. Idealizazio hori da Jainkoa. Gizonen adimenean eta bihotzean sustraituta dagoen Idealizazio hori desegiten ez den bitartean ezin esan ahal izango dugu gizona erabat bere buruaren jabe egin danik. Idealizazio hori sortuarazi duten kondikioak desegindakoan ez da bere beharrik izango. Komunista erreboluzioa betetakoan ez du inork Jainkoa sinistuko.

IRUGARRENEAN absurduaren gizona jarriko dugu. "Gizon honen borondatea ez da mundua Jainkorik gabe ententitu ta esplikatzea. Berarentzat mundua absurdua da. Guixiago pentsatzen du mundua aldatzerik, aldaketa guztiak egin arren absurdua izaten jarraituko lukelako. Bere asmoa Jainkorik gabeko mundua **"existitza"** besterik

ez da. Zeatzago esateko "existitzen jardutea", Jainkogabe ikusten duen munduan Jainkogabea izateko asmoa duen gizona. Jainkorik ez izatea nahi du" (11). Existentzialista joera da honekin aitutzen duguna bere era guztietan.

Iru saill hauetan arkitzen dira, gutxi gora behera, euskaldun fedegabeak. Bakoitzak bere prolematika berezia presentatzen du.

zer Jainko?

Jean Rostand frantzes biologilari famatuak liburu bat idatzi berria du. Liburuan dio Jainko beharrik ez duela bere esplikazioetarako. François Biot dominikoak liburu honen kritika egiterakoan gure jardunerako aiposean idatziak diruditen itz hauek idazten ditu: "Jainkoa ez da munduaren esplikazioa. Kristau fededuna ez da fedegabearen aurrean dakiña ezjakifaren aurrean presentatu ditekenez norbait. Fedea ez da egoneziñ metaphisikoa kentzen digun soluzioen liburu bat" (12).

Aitatutako euskaltzaleen Jainko hori Jainko domestikatu bat zela ikusi dugu. Situazio konkretu baten justifikazioa ta esplikazioa. Gizonari bere ahalmen kreatzaillea, bere autonomia, kentzen diona.

Hau afirmatzea, dudarik gabe, astrazio bat da. Ezin diteke ukatu uste hauek askotan Jainkoarenganako aprosimazio bat dirala. Uste onak eta okerrak nahastuta zeudela. Guk aprosimazio hortatik gizonaren asmaketa izan dana aztertu ta aitatu dugu. Gizon euskaldunek zergatik eta zertarako izan duten Jainkoaren uste konkretu hori. Fedearen eraberritzean "sifnisten dut Jainko" esaterakoan sifniste horri itsasten dizkiogu txipristin alienatzaileak baztertu behar ditugu. Ba dakit gu ere aprosimazio batean gaudela. Lehengoa gaitzezkatu beharra dugu, ordea, ta benetako Jainkoarengandik urbillago izaten saiatu (13).

Biblia'ko Jainkoa esker utsa da, grazi utsa, debaldekoa. Ez du ezertarako balio. Bere utilidadea ez da neurtu ditekena. Ez du utilidaderik. Ez da mundua esplikatzeko tresna bat. Jainkoagatik bakarrik sifnisten da Jainkoa. Ez da moralaren sustrai bat emateko, inestigazioak arkitu ez dituztenak esplikatzekoa. Honelako fedea gizonaren kontrakoa litzake eta biraoa: mythologia, majia etab. Jainkoa sifnisteak ez digu bakaziorik ematen gure gizongintzan. Hau ez da igarotako zerbaiz konformatu beharra.

Jesukristoren bitartez etorri zaigu izkutuan zegoen Egi hori.

Berak ekarri zigun esperantzan bizi gera. Bere piztueragatik dakigu gaitza ta gaitzontzekoak egun batean argituko zaizkigula. Egia esateko "gizonarekiko guztiak bere sustraian Jainkoaz itzegiten digu baiñan Jainkoaren errebelazioaren itz aproposarik gabe, izkutatu egiten digu, batez ere Jainkoak gurekin izan nahi dituen artu-eman naturaleza-gaindikoetaz dagokienei" (14).

Jainkoa sifinista ez da arrazoiaren kontrako zerbait. Bere aztar-nak kreazio guztian ikusi ditzakegu. Ez dugu horregatik sifinisten. Jainkoak Berak nahi izan duelako bakarrik. Gure Jainkoa ez baida philosophilariena.

Industriatutako gizartearen aurrean euskaltzaletasuna fronte egiten arkitu zen. Gizatasunaren eta gizarte onaren definizioak igarotako garai idealizatu batean finkatutakoak ziran. Eboluzioarentzat, gizona gero ta gizonago, gero ta kontzientziatuago izateko darakin historiarentzat frenu bat zen definizio hori. Mikroeboluzioa zen gizonarentzat ametitzen zen bakarra, bere autonomia bortan gelditzen zen. Jainkoa zen gizarte hori ezarri zuena eta horregatik zuten arrazoi bere burrukan euskaltzaleak. Horregatik zen bat eta berridifa euskeraren, euskaltzaleen eta Jainkoaren burruka.

Fedeak, debaldetan emana zaigunez, ez digu eskubiderik ematen kezkek baztertzeko, galderak ixiltzeko, gizonak bere gizongintzan duen burruka ixiltzeko. Gure fedean ezer bada inportantea grazi utsa den Jainko honek, debaldetan azaldu zaiguna, bere kreazioaren parte egin gaitula; bere antzeko egiterakoan gu ere kreazioaren kide egin gaitula, gizon egin gaitunez, libertatea eman digunez, autonomi osoa eman digula da. Perspektiba hontan gelditze guztia erru aundi bat bezela azaltzen da. Jainko zulotapatzaile bat birao bezela azaltzen da.

Egia aitortu dezagun. Euskaltzaleko gure joeraren defentsarako Jainkoari dei egin diogu. Gure asmoetarako egokia zen Jainko bati. Beraren izenean egin dugu burruka. Burruka hori aldatu beharrak, beste zuzendaritza bat eman beharrak idolo bat zen Jainko horri burruka egitera bultzatzen gaitu. Idoloa Jainko domestikatu bat zelako, etxeko biurtu genduen zerbait. Jainkoa gure baitan dagoela egia da, ez gure morroi bezela, ordea, naturalezagaindikoa bezela baizik.

Euskaltzaletasuna ankaz gora jarri behar baldin badugu, atzera begiratu erazitzen ziguten lokarriak autsi behar ditugu eta lokarri hoiakin loturik erabilli genduen Jainkoa ere autsi behar dugu. Eta

hontan, fedegabeak badira, euskal gizonaren alde, bere liberazioaren alde, burrukan dabiltzanekin bat jokatu behar dugu. Ezin ukatu gure espiritua hauetatik askotaz ere gertuago arkitzen dela zenbait lededunetatik baiño.

elkar-izketa

Eskarmenturik ezak ematen duen ausardi aundi batek bakarrik egin du posible lerro aldrebes eta nahastu hauek idatziak izatea. Baiñan baita ere esasperazioak. Ba dirudi Euskal Eleizaren prolema-rik aundiena me-zak euskeraz ematen diran edo ez aztertu ta eztabaidatze ote den. Hori oso auzi inportantea dela ba dakit. Baiñan nun dago euskal theologia? Apenas ezer ikuslen den.

Euskaltzaletasunaren giroa erabat aldatzen ari den hontan ikaragarrria da euskal kristauok dugun kontzientzi ona. Gu Eleizan beti aurreatuak izan omen gera. Gu Espaiña'n Herri katolikuen omen gera etab. etab

Ez ote dugu guk ere gure buruaren azlerketa bat egin behar? Fedegabeekin, marxistekin, itzegiteko prest ote gaude? Sufizientzi hori ez ote da frenu izugarri bat? Konturaku ote gera gaurko eztabaidetan zer den sustraikoa la zer azalekoa?

Saltsan gabiltzanontzat, egia aitortzeko, argi aundirik ez. Deskonfesionalizazioa gure giroan erabat onartua da aspalditxotik. Deskonfesionalizatzeko hori mingaiñezkoa bakarrik ote den pentsatzen asi beharra dago. Oraindikan defentsibako espiritua, ghetto usaia, ez ditugu astindu. Ofizialki ez bada ere ba dira joerak, partiduak, posturak, katolikoen giroan —apaiz eta laiko— gaizki ikusiak diranak.

Atheismoa euskal gaztedian ez da probabilidade bat, neurri aundi batean dato bat baizik. Guretzat, gabiltzanontzat, eguneroko ogia. Horregatik puntu batzuek argi jarri behar ditugunak dira. Horregatik aitatu-tako liburu batelik ezarriko ditut, erderaz, egilleak eman nahi izandu dien sentidu osoan ententituak izan ditezen itz hauek:

“Concedemos gustosamente que cuando una respuesta” es presentada como solución de los enigmas intelectuales o como eslabón intrínseco del dinamismo intra-histórico de la evolución humana, se convierte en un elemento alienador que en cuanto tal frena el impulso prometeico de la aventura humana. Confesamos también

que en este mismo momento, esta "respuesta religiosa" se ha degradado sustancialmente y que ha perdido en consecuencia lo que la caracterizaba esencialmente: su "gratuidad".

Es aquí donde se encuentra el punto central de un diálogo en profundidad entre cristianos y ateos.

Los cristianos debemos considerar muy atentamente esta exigencia de infinito, esta especie de transcendencia intrahistórica que constituye la grandeza de la praxis del hamunismo ateo. Y a partir de nuestra fe cristiana, no tenemos derecho de exigirles el reconocimiento de la religión en cuanto componente intrínseco —exigido— de la naturaleza.

Por su lado los ateos deben reconsiderar nuestras afirmaciones teológicas sobre la "gratuidad" de Dios y de la religión. Esta gratuidad, en efecto, impide desde su mismo punto de arranque, que la "respuesta religiosa" rivalice con la independencia humana o que trabaje la libertad de movimiento de la evolución ascendente del hombre.

Un diálogo de esta naturaleza suprimiría la posibilidad del anatema recíproco: la acusación del "peligro alienador" (15).

* * *

Bukatzer a noa. Lerro hauek ber-irakurri ditut. Berriro idazten aste-ko asmo bizi etorri zait hori egiterakoan. Ez da posible, ez dut betarik. Gure euskal Eleizarenganako maitasunak korri erazitzen dit arrisku hau. Euskal Eleizaren garai berriak etorri ditezten, "len itzal, irudi ta itxura zana, egi biurtzen bait-da orain eta galduak dira betiko, gerokoen iruiditarako zeuden eraketak. Aurrez adierazi ta agindutako salbazioa, erospen, Jaunaren Pazkoan mamitu da" (16).

(1) Paul Germain, *Dieu aujourd'hui*, Semaine des Intellectuels catholiques, Paris'en, Desclée de Brouwer etxean, 1965' gn., *L'homme et Dieu* izeneko atalean 19'gn.

(2) José M. González Ruiz, *El Cristianismo no es un Humanismo*, Madrille'n 1966'gn., Ediciones La Península etxean argitaratua, 22'gn. orrian.

(3) Rikardo Arregi, *Absolutugintza*, Z. ARGIA'ren 1967'gn. urrillaren 29'an azaldutako artikuluan.

(4) Julio Caro Baroja, *Vasconiana*, La tradición técnica del pueblo vasco, o una interpretación ecológica de su historia izeneko azatian, 109'gn. orrian. Madrille'n 1957'gn., Minotauro etxeak argitaratutako liburua.

(5) Ibid. 147-148'gn.

(6) Puntu hontarako erabat interesantea da delako publikazio hau, "Memoria significativa de lo que tiene espuesto y pedido la ciudad de San Sebastián para el Fomento de la Industria y Comercio de Guipúzcoa", publicada por acuerdo del Ayuntamiento general de vecinos concejantes y Junta de Comercio de la misma ciudad". 1832'gn. argitaratua. Liberalak bere ekonomiaren prolematikatik planteatzen dutena azaltzen da hemen.

(7) Casimiro Jausoro, *El Fuero y la Revolución*. Madrille'n, La Imprenta Española moldiztegian, 1872'gn. argitaratutako liburuxkaren sarreran XV'gn.

(8) Aita Villasante'k honela dio: "Lehenago, gure Euskalerrian, fedea gorde izan da giro egoki batek eusten ziolako. Orañi beiñolako giro ura aldatuaz dioa. Obeki esateko, mundu guztia ari da giro-aldatze ori jasaiten. Oraingo bizi-moldeak, oiturreek iraulita gainazpi jarri dizkigute lengo erak eta usuario zaharrak. Eta egokera berri onen txipristiak gurera ere eldu dira nai ta naiez". *Kristau Fedaren Sustraiak, Jainkoa* liburuan, Arantzazu'n 1962'gn. 7'gn. orrian.

(9) Erich Fromm, *The Sane Society*, Rinehart & Co., Inc., New York, Españolez. *Psicoanálisis de la Sociedad Contemporánea* izenarekin Mexico'n 1964'gn. 6-gn. aldiz Fondo de Cultura Económica etxeak argitaratutakotik 149-150'gn.

(10) Jean Bruhat, lehenago aitaturako *Dieu aujourd'hui* liburuan, *Le marxisme et le fait religieux* zatian, 86'gn.

(11) John C. Murray, *The problem of God*, Yale University, New Haven and London. Españolez. *El Problema de Dios* izenarekin Barcelona'n 1966' gn. Nova Terra etxeak argitaratutakoan 113-114'gn.

(12) *Témoignage Chrétien*, Parise'n, 1217'gn. alean, 25'gn.

(13) Igor A. Caruso'k honela dio: "La absolutización de cualquier experiencia humana constituye un error frente a lo humano; pero también la negación de una experiencia aún aberrante lo es igualmente. Esta paradoja es particularmente aguda en la experiencia religiosa, que sitúa al hombre bruscamente ante el infinito, preservándolo al mismo tiempo contra esta condición inhumana por la relatividad de sus expresiones". *Psicoanálisis para la persona*, Barcelona'n 1965'gn., Seix y Barral etxean, 34'gn.

(14) D.P. Schoonenberg, S. Sj., *Revelación, Fe y Proclamación*, Barcelona'n 1966'gn. Estela etxeak argitaratutakoan 51'gn.

(15) J. M. Gonzalez Ruiz, op. cit., 82-83'gn.

(16) Zabaleta Gaztañaga, *Jainkoaren erria edo Eliz-misterioa*, Donostia'n 1967'gn., 46'gn.

OTEIZA'ren

lana obeto ulertu aal
izateko oarpen koskorrak

XABIER EGAÑA

Jorge Oteiza'ren "Interpretación estética de la Estatuaria Megalítica Americana" liburutik aterata daude. Oso interesgarria iruditu zait, Oteiza'ren eskulturagintza obetoago ikus-ulertzera iristeko berorrek idatzi duan obra batek gidaturik ibiltzea.

Gaitza da benetan lan au, asko ere asko baidira Oteiza'k berak azaltzen dituan xeapen-jokabideak. Orregatik, ederki litzake, ni baiño iaioagoren batek, eta batez ere artista ori nik baiño sakonago eza gutzen duanen batek estudio oni, beronen zabalera guztian eltzea. Eta eldu ere Oteiza'ren arte-lan osoari begiratuaz; bai estetika lanari eta bai bere lan idatziari. Ortxe ikusiko litzake, "Quousque tandem"... liburuan, esate baterako, nola arkitu nai duan estetika-oñarri bat geron euskal kondairan bertan, Colombia'ko San Agustin'en inguruan arkitu duan bezelaxe. Idarokipen edo sujerentzi bat besterik ez da au bear bada, baiña inportantzi aundikoa nere ustez, gaurko gure euskal kultura au arkitzen dan une larri ontan.

ESKUARTEAN dakarkigun liburu onek dionez, gizonak beti euki du bere aurrean onoko prolema au: emendik izkututakoan, au da, izateari utzitakoan, zer? Ilda gero, zer? "Erietzaren soluzioa da benetako gizonaren kezka gairik nagusia ta mamikoena" (35-gn. or.). Eta ondorio bidez, gizon orixe da artearen gaia. Kontuz, ordea, emen, Oteiza'k berak dion bezela, ez dira berdin: gizona artearen gai izatea eta gizona artean irudi bezela agertzea. Erietzaren aurrean arkitze orrek berak eragingo dio gizonari bere segurantzi gabeko izate orri soluzio bat edo salbabide bat arkitzera.

Nun arkitu, ordea, gizonak salbabide ori? Bere baitatik kanpora, noski. Eta salbabide ori bere baitatik kanpora billatzean, topo egiten

du paisajearekin, kosmoarekin, bizitzarekin; eta bizitza orretzek menderatuta eta inguratuta dauka gizona eta izugarrizko larria ematen dio. Paisajeak kondizionatzen ditu gizonaren bizitza, espiritua ta eriotza. Eta orrela gizona bera sartzen da paisajea bildurra eta bearrak eraginda" (33).

Paisajea sartzeko ori, berriz, zera da: gauzen aurpegi sentigarria ikus-ausnartzea, eta gauzen izkutuenerako izaera billatzea. Norberaren premi eta bear-izate batek eragindakoa da, beraz. Artea ez da izadiaren plasmate utsa. Norberak eriotzarekin daukan burruka ta garaipen aparteko batek kondizionatuta dago beti artea. Garaipen au, berriz, ez da fotografiarena. "Paisajearen gertakizunak eta bere arimako istoria naturala gizonak kontatu aal izan baiño leenago, sobrenaturalki bururatu bear ditu beroiek: norberaren estetika-bururape-nik gabe ez dago norberaren arimarik eta benetako kondaira-azitzerik ere ez". Gizakume ori, bere salbatu-nai ortan, paisajearekin arkitzen da aurrez-aurre. "Paisaje ori, berriz, zergauza sentikor ta millamodutako bat bezela da, misteriozko indarrez beteta dago eta derrigorean gure gañera dator gure patuaren argibidea berekin duala" (25). Alkar-topatze ortan, berriz, edota, garaille atera, salbatu, eriotzatik askatu egiten da bat edo bestela izatetik izkutatu arrastorik ere utzi gabe.

Planteamentu au gizonarena berarena dan ezkeru, "kultura-modu berriak paisajearen modu berriak dira, mundua bururatzeke era berriak" (25). Eta inguruko paisajeak gizona kondizionatzen dualakoxe, "gizon-modu desberdiñak egoteak esan nai du paisajea interpretatzeko moduak ere desberdiñak dirala; mundua bururatzeke moduak ere desberdiñak, artea egiteko erak ere desberdiñak, eta norbera salbatzeke bideak eta moduak ere desberdiñak" (25). Orregatik da artelaria bere erriaren apaiz-salbatzaille, eta orregatik salbatzen da erri bakoitza aparteko era batean.

Salbabidea. Apaiz-salbatzaille dan artelaria eriotzatik libratze orren billa dabillenean, orduantxe burutzen du benetako arte-sortze edo arte-lan iraunkorra.

Nola ikusten du orduan Oteiza'k eskulturagillearen lana? "Eskulturak egiten duana da: munduaren —paisajearen, eriotzaren— aurpegi "martxa panikua" geratuazi. Gizonaren gañera amiltzen baidira aurpegiok eta izu-zalantzatan jaurtitzen dute gizona. Eskulturagilleak, berriz, geratuazi egiten ditu paisajearen millamodutako aurpegiak eta (...) maskara biurtzen ditu, —au da, seiñale iraunkor, salba-

tzaille, paisajeari bere azkengabeko ezberdintasuna ta mugimentua kenduaz—. Eskulturan, berriz ia ia erabat mugimentugabetzeraifio eramaten ditu aurpegi oiek, eta bein orrela estetika-bidez dominatu ondoren prest gelditzen dira erlijokizunetarako". Une ortatixe ematen dute salbazioa, eriotzatiko askatasuna. Geroztik paisajeak ez dakar ondamenik gizonaren gaifera amiltzean dominatu egin baidu gizonak, eldu ta artegaiean sartu du: estatuan.

Auxe da estetika-bidez gizon-apaiz-salbatzaille dan eskulturagillearen lana. Inguruko gizadiaren ditzai edo erreleju bezela bere baitan nabaritzen du gizonak eriotza, eta eskulturagilleak existentzi-burruka gogor batean —burruka gabe ez baidago artistarik— egiten duana da eriotza ori geratuazi. Eta zer eginkizun dauka salbakuntza onetan estatuak? "Estatua da salbakunde orretxen toki santua, metafisikazko salbakuntza ori zertzeko apartaturik dagoan barneko lekugune edo forma. Ordena unibersala sartzan da estatuaren bidez munduan". Ikusi dugu paisajea. eta beronen zati dan gizonagan, arkitzen dan burruka ta eriotza. Auxe da batezereko mugimentua, ifork, artelariak ezik, sujetatu ezin dezakena. Artistak, berriz ori katiatzen duanean mugimenturik gabe uzten du paisajea eta geldiegonarazten dio. Orixe da estatua.

Gizonak, estatua ikus-ausnartzean, dominatuta ikusten du berortan egonezifia, paisajearen millamodutako aurpegi mugikor bildurgarria eta orduan menderatuta sentitzen du bere baitan ere bere barneko egonezifia. Salbatuta sentiitzen da. Orregatik dio Oteiza'k "toki santua" dala estatua ori. "Estatuan bide bat irikitzen du gizonak eta betikotasunera igarotzen da bertatik. Orregatik maskaragonkor bat da estatua, "andikaldean" bizitze bat —bere egonkortasunagatik ain zuzen— eta berebat "onuzkaldeko aurpegi edo gauza bat". Orretxek ematen du salbazioa. Kristautasunean bezelaxe da. Azkeneko salbakuntza erabatekoa egin aal izateko, bear-bearrezko izan zan "andikaldea" beeratu ta mundu ontara etortzea. Jainkoa gizon egitean bat-egiten dira, sintetizatu, goiko ta beeko izatea. Artean ere berdin gertatzen da. Benetako estetika-soluzioa, salbakuntza, eman aal izateko, bear-bearrezkoa da egonkorra, erabatekoa, unibersala, —au da, mugimentu-gabekoa— erri baten, kultura baten, artelari partikular baten aurpegi mugikorrekun konjugatzera irixtea. Eta estatuak zertzen du au. Toki partikular bateko zera goiko zera orrekin beteginda uztea, orixe da artearen jo-muga salbatzaillea.

Betiko bizi-nai-izate ortan burutzen du gizonak arte-lana. "Eriotzako dispartearen aurrean, salbazioko disparte kreatoria, beti-

koaren estetikazko egitea". Paisajetik asten da, baiña "estetika-kreazioa, irudi naturalak alkarren artean bategiten diranean bakarrik ematen da". Paisajearen millamodutako aurpegiak —bakoitzaren ikuspegi aldakorak—, maskara bakar batean —keiñu iraunkor batean— laburtzea besterik ez da.

Estetikazko arri batean izadia sintetizatze onek gizonari salbaidia eman zezaiekela ederki ikusten da kondairako une batean bakarrik eta izadiaren atzaparretan katigu arkitzen zan gizonarentzako. Berdin al da gaur oraindik? Bai. "Gizon kosmografikuaren baitan, irudipena da bere kapital nagusia. Paisajearen aurreneko bidea, aurrez-aurrekoa, idea eroikoa euki zuan gizona da". "Onela uxatzen du bere espirituko segurutasunikeza". Gure gizon ori garaille "itzultzen da" politikuki eta estetikuki; orixe da gizon istorikua, gaurko gizona. Gizon orrek, ordea, "bizitzen" jarraituko badu —eginda dagoanak arrastatu gabe— estrin-estрифetik planteatu bearra dauka aldi bakoitzean problema ori. Ala dio Oteiza'k berak: "Nere ustez, kultura-ziklo bat —artezko salbakuntza bat, arte-lan bat— ezin diteke etorri onez eta lasai asi, arik eta artistak, mundua bere erara bururatzeko datu berriak berekin dituala, paisajearen birrikuste larria bat birplanteatu ez dezan bitartean —forma gizabetuen bolara sortuko da orrela— eta bere kulturari dagokion existentzi-bildur berri batetik asiera artu ez dezan bitartean".

Nola ez da, ba, bat salbatuta sentituko Arantzazu'ko elizaurrean jartzeko diran apostoluak ikusita gero? Nork ez du beraietan katiatua ikusten lertzen eta txikizioak egiten ari dan paisajea? Txikizioak egiten, bai, baiña alaere irauten, ari dan bizitza? Askatasuna eta azitzea ematen duan bizitza! Norbere mugikortasuna ikusiaz nola ez du batek bere burua salbatuta nabarituko?

Artelariak, arte-lan bakoitza zertu ondoren, irten egin bear du, bildurrez sartu zaneko paisajetik. Era ortan, paisajea, edertasun forma guztiak dauden lekua baiña areago, artelariak beroa, bizitza, bizitzaren jatzera arkitzen duan tokia da.

Oteiza beraren itz batzuekin bukatu nai ditut paisajeaz egindako oldozketa auek. "Kulturarik ez dala berritzen esaten dugu, arte-ziklo berririk ez dala inauguratzen, baldin aurretik gizagabetutako formen bolara bat ematen ez bada. Gizagabetutako formen bolara ori izango litzake norberaren gisako paisaje ikus-ausnartze bat, kanpoko izadiari erlijio begiz begiratuaz eratuko litzaken arte-sortzeko bolara bat". Orrela, espirituzko burruka onek, zeozer "ikusi" ta eskuratu ezin

orrek, sufritu bear orrek, gauza izan bear du guri plastika berri bat sortu eragiteko, gure pentsakera, gure izkera eta gure birrezitzeko metoduak erlijio bidez eraberritzeko”.

Eta pesimistasunez egiten dut onoko galde hau: euskal-erria —artelariak berorren zati bat besterik ez dira— sartuta ote dago gero paisajea birplanteatzeko mugimendu ontan? Bizitzen ote dugu gero burruka ori, salbatu-bear ori, geron burua salbatu-bear ori?

Gure estetikazko apaiz-salbatzailleek ba ote dute gero gu salbatzeko aukerarik? Prest ote daude gero salbatzeko?

OR IKUSI dugu zenbait ikusaldetatik begiratuta arte-lanak berekin dakarren espiritzuko salbakuntza ortan paisajeak daukan garrantzia. Salbazio modu au, ordea, ze salbazio-mota da? Erlijiozkoa? Oteiza'ren estatuagintza erlijiozkoa al da? Kristaua ote da? Labur bada ere, erantzuna eman nai nieke galde auei.

Nere ustez, Oteiza'ren artea, eta ondorio bidez, emen jardunean ari dugun au, arte erlijiosua bai ba da, baiña ez kristaua.

Oteiza'k berak xeatzen du zer dan beretzat arte-lanean ematen dan salbakuntza ori: “Bear bada ez da egoki, erlijiozko izkeran, arte-lanean ematen dan zera orri salbakuntza deitzea. Estetika izkeran, ordea, bai, zillegi da eta oraindik geiago: zeaztu bearrean gaude estetikazko izateak eta jainko-izateak alkarren artean daukaten zerikusia. (Erljio, metafisika, ta estetika iru jakintza dira teknika aldetik begirata; baiña jakingai edo disziplina batbera besterik ez dute osatzen irurek: gizonak Jainkoarekin dauzkan artuemanen jakingaia. Salbatu-nai batberak konjugatzen ditu irurak gizonaren biotzean)”.

Jainkoari begira daukagun bizitzaren sintesi ontan Jainko-izaki ori nola bururatzen dugun, ortik sortuko dira berezitasun guztiak gero.

“Artegillearen metafisikagai bakarra ta nagusia, eriotza garaitzeko “andikaldean”, Erabatekoan, Jainkoagan bere burua jartzeko gizonak daukan premi gorri orrek determinatuta dago”. Oteiza'k ori esatean, Izaki nagusi bat besterik ez du erakusten oraindik, gure salbatu-bear izugarri ortan, gu berari begira jartzen gaituan Izaki nagusia. Auxe da guztien Jainkoa, Jainko sortzaillea, Izaki au, berriz, Testamentu Zaarreko Jainkoa izango litzake; Sinai'ko Jainkoa, komunki izaki orren irudia bururatu oi dan bezela: Jainko tximistazalea, indartsua, erriaren menderatzailea. Au ez da ordea naikoa. Ala dio berak aurreratxoago: “Estetikaren traszenditzea Jainkoa beragaifio aillatzen da: aparteko sortzealdi batean sortutakoa bere Egilleari itzul-

tzen dio, eta orrela justifikatzen eta betetzen da Jainkoak gizonari buruz emandako definizioa: Jainkoaren antzera asmatutakoa”.

Bere izatez, Sortzaille bezela azaltzen zaigu emen Jainkoa. Beraz, artegilleak Jainko orrekin dituan artuemanak ere mailla ortantxe bertan arkitzen dira. Artegille orrek Jainkoarekin daukan artuemana ez da semetasunezkoa, eta bai alako berdintasun batekoa. (Minuskulazko) sortzaillea da berau, eta (Maiuskulazko) Sortzaillearekin artuematzen da molaerebait berorri menderatuta badago ere. Ez du Oteiza'k beste artuemateko modurik ikusten. Orain, berriz, nik egiten dut galde: Salbaziorik eman aal diteke egoera ontan? Salbakuntza naturala, au da, gizona gauzen eta kosmoaren gaitetik jartzen duana, bai. Baiña benetakoa, au da, Jainkozko salbakuntzarik ez.

Nere ustez, oraindik ez da ontaraiño Oteiza iritxi. Garbi asko egiten du berak onoko bereizketa au. “Materia dauka gizonak Jainkoagandik jasotako mensajetzat eta materi ortan idazten du berak bere goierantzuna. Semea bialtzen badigu Jainkoak, Seme orretxekin komulgatzea izango da gure salbaziozko erantzuna (erlijioso soluzioa). Guk artean Jainkoagandik jaso dugun mensajea berriz, izadian mundu-gauzek sortzetik daukaten ordena ortan dago. Eta guk mensaje orri berorrek erabiltzen duan izkeran erantzutea, Aitarekin komulgatzea da (estetika salbazioa)”.

Ontan, jainkozko erantzun bati jainkozko salbakuntza bat dagokio: eta auxe da erlijio soluzioa, kristau askabidea. Artelariak, ordea, Jainkoak bere eskuetan jarri duan materiaren bidez erantzuna ematean, berak bakarrik ematen du erantzun ori. Emen ez dago Jainko alderik. Eta Oteiza'ren lanbidea mailla ontan ikusten dut nik. Estetika soluzio bat ematen du berak, gizona salbatu bai egiten du, baiñan naturazko mailla ontan. Gizona erabat eta benetan salbatuko lukeana, berriz, zera izango litzake, bi salbabide oiek, estetikazkoa eta erlijiozkoa, batean eukiko lituzken artista-erantzuna alegia. Estetika-salbazioari kristautasunak ematen dion eroskuntza edo erredentzioarekin bakarrik, arkitu dezake gizonak artean askatasun osoa, Jainkoarengana bete betean urbiltzea.

Salbakuntza natural onen ikusaldetik begiratuta bakarrik ulertzen dut Oteiza beraren “Androcanto y sigo” idazlanaren azkena: “Ene Jainko maite ori: arri koskor auxe utzi nai dizut, zuk egin zenuan guztiaren artean ez zegoan arri koskortxo auxe—leen esan bezela sortzaille (txikiak) Sortzaille (aundiari) ematen dio erantzuna—. Arri koskor ontatixe zaitut ulertzen, aurkitzen, ezagutzen, agregatzen eta laguntzen”... Aixa ikusten da emen salbakuntza naturala.

Arri ori egin zuan Jainko sortzaileari arriari bertan, materian bertan erantzutea da ori. Baiña nun ikusi diteke or erantzun erlijiosu-kristaua?

Oteiza'ren estatuagintza kristau ez dala esateko beste onoko au ikusten dut oraindik. Eskuaratean dakargun liburu ontan Oteiza'k ematen duan eriotzaren bururapena ez da kristaua. Bere salbazioa billatzeko burrukan ari da gizona eriotzarekin. Salbakuntza auxe da edozein bizierari eragiten diona, bai gizartekoari, bai, politikazkoari, ta bai erlijiozkoari. Eriotza izkutatzea da, lotuta, egonezinda gelditzea. Gauzak onela ziran arik eta kristau mensajea etorri arte. Baiña au etorri ezkerotik, ez dut uste gauzak berdin planteatu ditezkenik. Kristo etorr: ezkerotik iltzea ez da bildurrezko, ez da izateari uztea. Guztiz ostera baizik: izaten astea da. Gauzak onela jarri ezker, estetika-salbazioak ere, beste era batekoa izan bear duala uste dut. Eta au ez dut ifun Oteiza'k esanda ikusten.

Onezkero azkena emango diet Oteiza ta bere lana obeto ulertu aal izateko idatzi ditudan esan labur auei. Guztiz interesgarria litzake, gure eskultura onek orrelako estetika-tradizio salbatzaillerik bere baitan gordetzen ote duan ala ez ikustea; eriotzatik gure erria nola salbatu zan asmatzea —salbazio ori eskuratu zuana bistan baidago—; eta gure gaurko bizitza au salbabide orrek zenbateraino gidatzen duan edo gidatu dezaken jakitea.

Bai al dugu gerongan, bizitzen al dugu, kosmoaren planteamentu berri bat jartzera bultzatzen gaituan alako existentzi-bildurrik? Zenbaterainoko burruka-indarrak dauzka gure euskaldun erriak? Esnatzeko garaia ez ote da gero? Ez ote da gero garaia estriñ-estriñera itzultzeko eta guretzat atzerritar diran kanpoko eskoletan, besteen paisajeetan, gure salbazioa billatzeari utzia, euskaldun kosmoan, euskaldun paisajeetan, jazten eta bizitzen dan mugimentu baten bidez gure salbazioa billatzen asteko?

Aldakuntzaren abarren kidetasuna

XABIER KINTANA

Lehengo saioetan aurreralkuntzaren jobideak agertu nituen. Materiaren indar eta funts izpiritualak bultzaturik, materizko lehenbiziko atal eta agerkiak elkarrekin lotzen eta nahasten hari izan ziran.

Lehengo entseiuak matematikak emanak ziran, hots, probabilitate edo ahal izan hutsak.

Protoiak eta elektroiak zabale handietako izarretan elkartu egiten dira ahal izanaz. Zenbanaz lotu, holako elementuren atomoa sortzen da: Hidrogenoa, helioa...

Atomoekin berdin gertatzen zan planeta gorien sakonean.

Oxigenoz edo karbonoz elkartuez gero, hidrogenoaren atomoetatik ura edo metanoa sortzen zan.

Probabilitatez, atomo ta molekula elkarrezerik sendoenek eta iraunkorrenek iraun dute. Kili kolozkoak, berriz, ezereztu ta birrindu egiten ziran beroaren eragigñez eta erradiatzez.

Uranioa denboraz ezereztera kondenaturik dago, beste gai batzuk sortuaz, ta igeltsoa anhidrita bihurtzen da ura galduz...

Izakien gorpuzkerak bizidun agertzean (mikrobizi, landare, animalia...) matematikak ez du jokutzen hain biziro.

Animali edo landare famili baten iraute edo amaitzea beste faktor askoren menean dago: lekua, hotz beroak, gorra, egokitasuna, indarra, etsaiak... Dana dala ba dirudi Izadiak bide berdiñetatik eroan dituela beraren abar guztiak.

Izan ere, har bat, zizare bat, arrain bat, tritoi bat, suge bat eta elefant bat etorki berekoak ditugu. Guztiok noizbait asaba komun bat eduki baitzuten.

Baifia animalia familiok orain txit aldendurik dagoz elkarrengandik, igaroaldian bat izan arren.

Hala ere aurreraldakuntzaren eragikortasunak guztietan egin ditu saio eta proba berdiñak.

Oso gauza ikusgarri da hezurduen arteko familien elkar antzak aztertzea.

Ba dirudi arrain batek ez dukela zer ikusirik krokodillo edo hegazti batekin.

Ta ba dukete zerbait, bai, hiruron aldakuntzak zuzendu dituen indarrak berdinzki bideraturik.

Lan hau apaintzen duen eskeman animali talde batzuen agergarriak ikusten dira, ta guztiok ba dute zer ikusi beste taldeetakoekin.

Hor erakusten diran batzuek bizirik diraute orain ere, beste batzuek, ordea, orain dala milloi urte asko amaitu ziran betiko.

Baiña bizirik irauteak edo hilda etzateak ez dukete garrantzi haundirik. Izan guztiak izanak dira noizbait; aldakuntzaren zabaltze eta bereizte nahiak sortuak.

Hauexek, eta jarten ez ditudan beste batzuek ere, proba onak dira nire teori honi laguntzeko.

Begira detzagun lehenbiziko kideak: Hegaldunak.

Hortxe, goitik behera, talde bakoitzaren agergaiak dagoz.

Ugazdunen taldeak saguzaharra (1) eta katagorri hegalaria (2) daukoz.

Hegaztien artean uso bat (3) jarri dugu. Narrastien artean pterodaktiloa (4) (Mesozoikaroan bizi izana). Urlurtarren arloan igel hegalaria (5), ta arraiñek beren txori-arraiña edo hegaldun arraiña darakuskigute (6).

Guztiok hegalkide dira.

Hegaz egiteko ahalmena ez da guztiengan berdina, (arrain eta urlurtarrak eskasagoak izanaz) baiña argiro dago nola ornitu dizkien Naturak guztiei hegal tailluz.

Pentsa dezagun orain: talde guztiak hegalaria izatea ba ote da ohizkoa, normala? ala bestetik, batzuegan harrigarri da?

Ta bai, honetara da.

Irudi ba dirudi hegoak eta hegalak hegaztiei eta txoriei dagozkiela soilki, ta ez besteei. Gaiñera komunena dugu hegaztiak airean ikustea, ta ez bixiguak, ez muskerrak ez da katuak ere.

Ta hegaz ez dakiten hegaztiak egon arren (pinguiñoak, abes-truza...) berauek urrienak dira.

Orobat gertatzen da beste animaliekin ere. Komunena izan ez arren ba dira zenbait hezurdu, hegazti ez badira ere, hegan dakitenak.

Begira detzagun astiroago berriro: saguzaharra, pterodaktiloa, igel ta arrain hegalariaiak...

Hegaz egiteko modua berdin berdina da guztiengan.

Atzamar artean, edo hegaleko hezur artean, arraiñagan, mintz fin bana dadukate ta besoen indarrez igeri doaz airean.

Sistima berdina guztientzako. Horra hor aldakuntzaren oiñatz nabaria.

Urrengo illaran gliptodontea (7) dago ugazdunen erakusgai.

Hegaztiak ez dute agerpenik bat ere. Narrastiek apo harmatua (8), urlurtarren artean zapoa dugu (9) ta uretan kofre arraiña (10).

Itxurak ez dira berdin, baiña dadukaten aterpea antzekoa da funtsean: azal gogor bat arerioen ekitaldietatik onik irteteko.

Honelako harmadurak daroazten abereak segurupean bizi dira, nahiz ta arintasunik ukan ez.

Hirugarren illaran adardunak topatzen ditugu. Hauengan Iza diak defentsa batzuk jarri ditu azkarrenik biziteko. Izakeraz adardun piztiak bakezaleak izaten dira baiña etsaiak egonez gero erantzuten ere ba dakite, ta gogor gero.

Azala, bestalde, txit gogortua eukiten dute ta gaitz da egiten haiengan zauririk.

Ezagunenak Errinozerontea (11), Trizeratopoa (12), Ameriketako zapo adarduna (13), ta denetarik burrukalariena ezpatarraña (14).

Honen urrengo Hipopotamoa (15) ta Brontosauria (16) agertzen zaizkigu.

Jaun lodi biok bizimodu berdintsua eroan dute. Urtzan sartuta.


Beren lodiera ta azal azpiko gantza oztopa bat zitzairen legorretik ibiltzeko ta hibaletako potxingo ta oxifietan lotzen zaizkigu urak berak sostenga detzan. Bide batez etsaien atzaparretatik hobeki irten leitekez, uretan murgilduz.

Jirafa (17), Zikoiña (18) ta Mesozoikaroko plesiosauria (19) idun edo lepo luzekoak dira. Luzetasun honeri esker hobetoago harra-patzen dituzte beren janariak.

Jirafak zuhaitzetako kima garaietako horriak. Zikoiñak sasi arteko igel eta sugeak ta plesiosauriak bizi zan itsasoetako arrain arriñak.

Kanguroa (20), Pinguina (21) ta Tiranosauria (22) zutik ibiltzen ikasiak dira. Atzeko ankak indartu egin zaizkie ta aurrekoak, berriz, ahuldu eta indargetu. Honetara ibillera errezagoa dukete ta ikuste zabalagoak azter detzakete.

Zazpigarren illaran gorputz luze ta argalekoak daduzkagu:



hegaz

harmaduraz

adardun

a) ogi gaztaia edo erbi iñude, b) sugea, d) kekilia (apodoa)
e) aingira, f) anfioxus.

Kideok errax linburtzen dira beren bizilekuetatik eta gaitz dira erortzen etsaien hagin zorrotzen pean. Haiek bai izaten dirala bestal-detik ehiztari bikaiñak.

Azkeneko illaran arrain itxurako animaliak dagoz: g) Izurdea, h) Iktiosauria, i) apotxali edo tritoia, ta j) izokin bat.


Bereizkuntza honek ura aukeratu zuen bizilekutzak ta bere itxura egokitu zuen holako bizimodurako. Gorpuzkera luze ta zapala ankak hegala bihurturik edo atzamar artean mintzaz ornitu, hitz batez arraindu egin dira urpean bizi ahal izateko. Ikaragarrizko aldaketak izan dira holako irudi hartu arteraño.

Ikusita dagoz bada elkar antz guztiok, baiña sarri ikusi dugu nola falta diran talde batzuetan besteetan agertzen diran zenbait bereizkuntza.

Esate baterako, hegaztien artean ez dago apo harmatu ez trize-ratopo kidekorik. Zergatik hau? Aurreralekuntzak ez ote du saiorik egin hegaztien artean horrelako protekziarik ipinteko?

Egin, egingo zukean, batek jakin, baiña nahiz ta nahi ez alferre-

EN ELKAR ANTZA



koak izango ziratekean, hegaztien izakera egokia ez baita harmadurarik eroteke. Lumak ez dira gogorrek azalari sendotasuna emoteko ta horregatik hegaztiengan harmaduradunik egoteko ahal izanak huts egin zuen.

Saio hauek geure munduko sail guztiak konkistatu egin zituzten:: Ura, legorra eta airea.

Uretarako itxura luzea izan behar da ta igeri egiteko palak ukan behar.

Legorrerako anakak eta besoak ta airerako hegoak, beso zabal eta minzdunak.

Animali talde bakoitzak, arlo guztiok irabazteko, egin dituen ahalegiñak eta itxura hartzeak berdiñak zaizkigu funtsean.

Aurreko anak hegalak bihurtu, azala gogortu, adarrak eduki, atzeko zankoak sendoagotu eta abar.

Baiña ahalegin guztiotatik bereizketarik egokienak irten dira garaille.

Zergatik bukatu ziran pterodaktiloak eta iktiosauriak? Ta zergatik amaitu ziran gliptodonteak?

Izan ere saio haiek onak eta borondate haundikoak ba ziran

ere fruturik ez zuten eman. Ez ziran nahiko izan animali familiok gaurdaño kontserbatzeko.

Hegalak txoriei dagokiez izatez, beste taldeak egindako saioak, arlo hontan behintzat, lehen edo gero pot egiñak lotuko dira.

Ta berdin besteak uretarako arraiñak dira egokienak, ugazdunak edo txoriak ezin sar daitekez sail hortan garaitzeko ideiekin.

Baiña talde bakoitzagan dagoan indar eragillea arlo guztietara bultzatzen ditu kastak, nahiz ta batzuetan irtenbiderik egon ez.

Are harrigarriagoak dira talde urrun urrunekoen arteko antzak.

Satorra (talpa) ta ortupetik ibiltan dan lurtxakurra izeneko insekta (grillotalpa) bata ugazdun ta bestea mamutxa izan arren, nola dira hain kideko gorpuzkeraz?

Aurreko anak esku zabal eta alboranzkoak dira azpilana erraza go egin ahal izateko. Illea guri guri eta fin fiña dute lur hautsaz ez zikintzearren.

Ta taiu berdiñekoak ba ditugu errinozerontea ta oriktes nasikor-nis deritzon intsekta, hareitz mozkor usteletan hari izaten dana.

Nola izan daiteke guzti hau?

Itaune honeri oso gaiñetik erantzun genezake.

Bereizkuntza talde, famili ta mueta guztietan nagusitu bide da egokitasunaren billa. Bizimodu berdiñetik bizi izatean izakera ta gorpuzkera aldatu egiten dira aldakuntzaz erarik hoberenaz geratu arte. Ta haugatik talde guztietan elkar antz asko sortu bide ziran, espezializatze itxura bakarraz.

Ta nola lortu da?

Hori urte luzeetatik zehar erdietsi da, nun zein egokiagoka hari izan ta burruka egiñaz.

Orain guk mende askoren ondorio egiña dakusagu, frutu heldua.

Frutu horretaraiño heltzearren, bidean eta erdi egiñik, asko ta asko datzaz betiko.

Baiña azkenez orduko nahi ta gura hura garaitu da askorengan. Zoritxarragokoa da baiña, saio okerretan hari izan beharra.

Errusi'ko literatur erreboluzioa

ramon irizar

Komunista-herriek mailla guztietan eraso diote askatasunaren aldeko burrukari. Ta araso-aldi honetan, Mihailo Mihailov Zadar-ko Unibersidadean irakasle izandakoaren kaso oso interesgarri ta ajo-lazko gertatzen da. Joan den urteko dagonillean idazki bat zuzendu zion Tito'ri aldizkari berri bat, "Iritzi libre" izenekoa, sortzeko asmoa agertuaz. Bertan ziotsan, aldizkari hori politiku ta kultur-saillean oposizio-kaseta bat, demokratiku ta sozialista bilakatu zitekeala. Eskutitz honen erantzuna irakasle ospetsua giltzaperatzea izan zen, noski. Harrezkero, famatua da epai-mai aurrean egifiko bere azalpena: "Ezin dezaket sozialistatzat eman giza-eskubide guztien jabe ehuneko 6 edo 7 biztanle bakarrik egiten dituen gizartea, gafiñeratikoa herritarrak eskubide hoiak gabe bizi direlarik. Ameriketara, beltzak ere beren lagunarteak sortu dituzte sortu heuren eskubide nagusienak lortzeko. Zer dalata guk ez berdin jokatu?" Orintsu, azkeneko apirillean, Yugoslabiaren aurka legez kanpoko propaganda egin duelako ta atzerrian bere herriaren aurkako artikulu batzuk argitaratu dituelako, bi urte buruan hirutan epaitua izan ondoren, lau urte t'erdiko kondena eman diote. Bere burua defenditzeko, "Tito'ren gobernu totalitarismo ta politiku-monopoliotzat salatu du berriro ere, antikonstituzionala ta marsismoaren kontraktzat.

Harritzekoa da. Izan, marsista-munduan, Yugoslabi-ko Partidua baida zentralismo gutxieneko ta sozialismo liberalagoa lortu bidean aldaketa sakonenak burutzen ari dena. Komite zentralistak eta Moskou-rekin lotzen dituen lokarriak erabat indargetzen doaz Polonia-n ta Rumania-n ta Ungria-n ta beste zenbaitetan ere... Izan, hau da Moskou-k "pentsakera gaiztotzat" jotzen duena. Eta zer esan Errusia-z?...

Hona hemen URSS-ean egonaldi bat egin ondoren, errusitar literatura ondotxo ezagutzen duen M. Mihailov'ren hitzak: "Nahiz urte pare baterako **"laneko kolonietan"** hesituak izango direnaren desafioa eten gabe gaifean izan, ikasleak ezerk ez ditu bildurtzen. Dana aztertzen dute, dana kritikatzten, bildur gabe jorratzen dituzte bere Herriaren akatsak eta hutsegia... Gazteak arkitu ditut, bai, poeta ez ezagunak, oraindik itzalean dagoen André Belov'en xuxperlariak, Malevich'en pintura astratu-zaleak... Kafka ongi ezagutzen zuten gazte askorekin mintzatu naiz (1). Baiña ez dut ikasleen artean bat bakarrik ere arkitu errerealismu sozialista dogmakoiaren zale ta jarraitzaile denik".

"Ezin diteke erreka izan, ur-tanta baizik"

"Nik zera eskatzen diot hemen gure gobernuari:

Ugaldu bi ta hiru bider hillobi horren aurrean

Gudariak

Stalin sekula jeiki ez dedin

Eta lehena berarekin.

Lehena, ots:

Herriaren ona baztertzea, gezur gaiztoak

Ta errugabekoen kartzelatzeak.

Bota dugu bere hil-etxetik,

Baiña nola bota Stalin gero

Stalin'en jarraitzaileetatik?"

"Pravda"-n lehenengo horrialdean azaldutako Evtuchenko'ren olerkia. "Gobernu guztiak irakurri du", esan zion Mikoyan'ek Evgeni Evtuchenko'ri bere zorionak opatzean.

"Errusi-n Lehenengo Gudu Mundiala ezkerreko sortu zen rejimenak neretzat ez du deus desiragarriarik —dio "INDICE" aldizkarian Inglaterra-ko B. Russell filosofilari liberal zaharrak—; ez baidu batere askatasunik ematen, ez du ezer libreki aztertzerik ametitzen, ezta eragozpen gabeko jakintza bat billatzerik ere. Dogmakeria xuxpertzen

(1) Jakin, judu-txekotar idazle argia oraindik "ofizialki" ixillik gordea ta debekatua arkitzen da Errusi-n. Ta dena, okzidenteko propagandaren eraginaz jabeturik, errusitar herriak rejimenarekiko bere egoera Kafka'ren mundu goibel ta "El Proceso"-rekin (izpiritu gabeko burokraziaren kritika gordiña) kideku dezakean bildurrez soilik.

du, ta iritziak zabaltzeko bide bezela indarra aolkatzen. (...) Guzti hori Stalin'en denporan gordiñagoa zen, baiña oraindik ere ez da zeharo galdu".

Stalin istori bat da eta sinbolu bat. Geroari bere itzala utzi dion istori bat: Stalin bizi da oraindik. Partiduko zuzentzaileen erakunde ta pentsakera asko izpiritu honek kutsutuak bide-dauzka, ta izpiritu honen kontra doaz askatasuna ta bizitza maite duten hamaika gazteren arasoaldi zakarrenak.

Estadu totalitario guztiek dute bere baitan dogma bat, ideialogi edo pentsamolde bat. Ta ideialogi hau bilakatzen da beste zera guztien ardatz ta eusgarri: politika, ekonomia, soziala, kultura ta erlijioa bera honek determinatzen baiditu. Idialogia ta politika erlijio biurtzen dira (Ikus JAKIN, 23-gn. zembakia: "**Komunismoa 50 urtez gero**"). Eginkizun guztietan marsista-ortodosiak bixtan egon behar du. "Herrejeak", noski, kastigatuak eta ixilaraziak dira. Horretaz gainera, Estadu totalitarioak, nola ifiorke ezin bide-dion kontrakoa eramane, bere burua demokratiku ta libre baillitza agertuko du. Gizajoa benetan, bere borondate pertsonala Partiduaren borondate inpersonal ta suprapertsonalaren gain jartzen ausartzen dena... Komunismoaren baitan, Partiduak aurretik esana ta erakutsia dauka herrian influentzi izan dezaketene eginkizun guztiak nundik eta nola joan behar duten. Pentsa-sistema fijo bat, makina bat: horixe da gaur arte Errusi-kerakutsi duen askatasuna: pentsakera* sentimendu eta bizitzak oro bide jakifetik joan behar dute. Sistema horretan, jakifia, pertsonal-atasuna garbiturik gelditzen da.

Zerk mugitzen ote ditu Nazional-sozialismoa, Komunismoa, Fasismoa ta kideko erlijioen zuzentzaileak? Ez da errexa ideialogi aldeko fanatismoa (Russell'ek marsismo-girotik at ezer pentsatzeko gauza ez zen fanatiku bat bakarrik zekusan Lenin'engan), edo opresio-nahia. edo-ta aunditasun eta indar-aulkian bizi-nahi porrokatu bat ote den asmatzea. Edo, behar bada, heurak bakarrik mundua salbatu dezaketelaren ume-usteak?

Jdanov'ek bere gain zuen Stalin'en gobernuan kultura-zaindaritza. Ba, Jdanov hau ez zen idazlan eta erti-sailean marsismo ortodoxiaren zelatari bat besterik. Ez dago ez literatura ta ez erti benetakorik egia huts eta garbia ez dagoen tokian, ta egiaren iturriak —Jainkoa, gizona, izadia— zeharo agortuak dauden tokian. Ertiliaria "**alienatu**" egin du Stalin'ek, bere tasuna ematen dion mamia kenduaz: kreaizio edo sortze-askatasuna, alegia. Ionesko'k bere "Vanguardiari buruzko Hitzaldian" mundu guztiko tretario-krisia agertuaz, guk Errusi-ko

literaturari erantsiko dizkiogun hitz hauek jaulkitzen ditu: "Idazleak teologi-mota guztien apostolu egitea nahi izaten da, eta horrela beren askatasuna galtzen dute, edo hau ta hura baizik ez erasotzea, ez defenditzea edo ez agertzea eskatzen zaie". W. Dudinsev'en "Ez da ogitik bakarrik bizitzen" nobelan, honela diotsa tristeki Lopatkin asmatzailleak: "Ez dago erreka izaterik, ur-tanta baizik". Lopatkin honi erazgozpen guztiak jartzen bidezizkioten Estaduko funtzionarioek bere kreazio-lanean, gizatasunaren ukatzea besterik ez den zorioneko kolektibismu baten izenean.

Sobietar literaturan "**errealismo sozialistak**" daramazkian ia berrogei ta hamar urteen ondorena ezin tamalgarriago izan: Komunismo-ideia ta bere buruzagiek antolatutako bost urteroko planifikazioen goraltzeko, erti ta literaturaren konformismo lotsagarri bat besterik ez da ageri. Hona hemen errealismo sozialistak Errusi-n emandako fruituen azterketa Moskou-ko aldizkari batean Zlobin idazleak egifia: "Gure Partiduaren XX ta XXII-gn. Batzarrek literaturak Stalin'en denporan zuen obligazio-kutsua kentzean, gure idazleen erti-aurrera-penari premisa berri ta garrantzizko bat ezarri diote. Izan ere, Stalin'en egunetan, amets-ideiazko idazlanak ere errealista delitzen ziran. Orduko gure literaturak Gogol'en "Erretratua" izeneko ipuiaren antza zuen. Chatkov margolariari ez zion ajolik egiten zituen argazkietatik zimir, akats ta zatarkeri guztiak eta behar baten arpegi osoa ere kentzea, bere klienteeri atsegin ematearren"...

Egun, Errusi bere kondairaren une berri bat bizitzen ari da, une berezi ta interesgarria. Diktadorearen heriotza ezker (1953) sortuko den mogimendu demokratikuak politiku-saillean ondoren nabarmenak izan ditu: Ungria-ko erreboluzioa eta birrinketa batez ere, eta Polonia ta Yugoslavia-ren Moskou-rekiko erabateko etena. Togliatti'k "**Stalin'en affera**" posible egin zuten zergatien azterketa serio ta sakon bat eskatu zuen 1956-ean, zergati hauek bere zer-ikusia baidezakete sobiet-gidaritzaren oinarritzko printzipio batzuekin. Togliatti'ren eskari ausart honek nahigabetu egingo zuen Moskou, ta ez zion aintzakotzarik eman.

Beste saillean, Partiduaren lehengo opresioaren ondoren, halako askatasun-giro bat somatzen da kulturaren baitan. Kruschev'ek piztu zuen sua, Komunista Partiduaren XX-gn. Batzarrean (1956), desestalinizatzeari ateak aurrez-aurre iriki zizkionean. Jela-urtzea edo "**des-hielo**" esaten duguna, martxan zegoen. Errusi-ko aldaketa hauek ez omen dira, ordea, Evtuchenko egungo protagonista gazteak dionez, XX-gn. Batzarraren ondorio. Baizik-eta, XX-gn. Kongresoa dela Errusi

barruan gertaturiko aldaketaren fruitu. Ze oinarri dituzte funtsean aldaketa hauek?

Errusi, Europa ta Asia-ren erdian etzana datzan lur bikain hori, zalantza-aztarren bat da. Tolstoy ta Dostoyevski'ren ta baita ere "Dr. Zhivago"-ren Errusia, betikotasunezko Errusi hori, "**santa**", "**ama**" da; biguñia ta grifatsua; jasankor, xotil ta jakintsua, kristau-tradizio urtetsuari eta lur-zaletasunari darien jakituriarekin jakintsu.

Egun, bai, esan dezakegu: unibersaltasunez jantzitako krimen istoriku baten bildots izan da Errusi. Errusi-ri anima kendu diote, edo kendu nahi izan diote behiñipehin.

Egia, "Zar"-en feudalismu geldiak ez bestelako tekniku ta materi-aurrerapena eman dio Stalin'ek Errusi-ri. Baiña, aurrerapen hori zenbat odolekin gorritua. Aurrerapena, baiña, zenbat giza-zapaltzeen ordez? Ta batez ere, hauxe okerrera, herri baten askatasuna ta izpirituaren kreaizio-indarrak oinperatuta. Ez dut esango, noski, guzti hori ez dagoela Errusi-n, ez. Baiña, bai, askatasun ta indar hoiere abiltzea debekatua egon dela Errusi-n ia mende erdi baten.

Gaur, ororen desira da erti-bizitza berritzea, erti-bizitza libre, benetako ta sakon bat antolatzea. Ta desira honek su tar gar jartzen ditu errusitar gazteak, ikasleak bereziki. Horretxegaitik, ifioiz baiño biziago entzuten dira oraindaiño ittorik egon diren abots gazteak. Ta "**herri-giroaren**" agerkari mifienak diren literatura eta batipat, poesia, indar bizian esnatu dira. Kreaizio-askatasuna: ots, egia, ederraren eta gizatasunaren maitasuna.

Maiakovski ta Pasternak'en ikasle diren olerkari gazte hauek rebeldi-oiu ta kondenaio bilakatu dira. Zer kondenatzen? Stalin? Edo-ta gaurdaiño enseiatu diren komunismo-mota guztiak? Zerbait berria al da heurak nahi ta eskatzen dutena? Izan, hauxe da, ba, gaur URSS-en literatur gazteak, nahiz ametittuak nahiz debekatuak, planteaturiko prolema.

Gaztedi konformagaitz eta grifatsu honek, forman ez ezik ideietan ere, stalindar dogmakeri gogorarekin uzartu ezin ditezken freskotasan eta giza-berotasuna nahi ditu nolobait. Lurpeko errekaen antzera, gizonaren barne sakonenari darion zerbait eskatzen du, zerbait bizi eta berezko. Sentimen-alkartasunaz, berotasunean, bihotzetik-bihotz mintzatu dakion zerbait. Askatasuna da izan eragin honen izena; bizi-bizia den askatasuna, morroikeri entzuetatik at. Izan, horregaitik da Stalin oroen etsai gogorra. Bere jarraitzailleetan gorpuztu ta aragi'tu den Stalin. Esanak eta pentsamentuak ez partiduan baizik-eta gizonagan erne behar dute: animaren txokoenean

eta ez agintu dogmakoiak bide direla. Stalin'ek deuseztu egin du bizitza dotriña "egindako" baten neskame izan araziaz, Oraintxe arte Errusi'ko literaturan jabe izan den "errealismu sozialista" benetako literatura baten ukapena bera zen. "Errealista" hitzak partidukoentzat esanahi erabat pragmatikoa du: ematen duena da "errealista". Errealismu sozialista hau ez da literaturaren sozialismuarekiko neskametzta besterik. Ta sozialismoaren harri landu inportanteena (bakarra ez?) ekonomia da.

Hitz eta prensa-askatasunak osoa izan behar zuela, zion Lenin'ek 1905-ean. "Beste konzezio guztieri atzerakoi derizkiegu, —zion André Breton'ek komunismotik aldegiterrakoan atera zuen agerkari surrealistan, 1935-ko urtean—, Gaurko URSS-ko gidaritza ta bere nagusi algotiduna izan behar lutekenaren ukapen bera dira".

*"Ateak oro zabal-zabalik iriki behar dira
etxean giroa astuna denean",*

idazten zuen 1956-ean Roshdesvenski olerkariak "Novy Mir" aldizkarian argitaraturiko poema batean. Ta jarraitzen: "Orain arte gau beltz ta illunenak babestu gaitu ta egun doi-doi nabaitzen du olerkariak goizaren egun sentia". Errealismu sozialistak erabak galdu du bere itzala ta ospea intelektualen artean, ta Errusi-n bertan ere bizibizi erne du herri sateliteetan sortutako askatasun-giroak.

Aldi hartantsu gauzarik arruntena bilakatu zen Errusi-ko aldizkari aurreratuenetan ordurartean aitatzen ere ausartu ez zireneko gaien kritikatzeta: Poemak zirala edo ipuiak edo nobelak, Errusi-ko buruzagien itxukeri ta immobilismu egoistaren kulpaz, kreaiziolanik posible ez zela zioten nobelak... Stalin ta bere mitoa goiti-behera bizian abiatu ziren. W. Dudinsev izan zen aurrenetakoa guduketa urratzen bere "ez da ogitik bakarrik bizitzen" idazlanarekin. "Gure herriarentzat onuragarrien egia esatea dela uste dut, nahiz egi hori mikatza izan" —esan zuen Dudinsev'ek Moskou-n 1956 urtean idazlebillera batean bere lanaren jatorria esplikatzerakoan. Dogmakeriak ta bere seme kutunena den burokratismoak nahi bezela erabiltzen dituzte, apainduaz edo zatartuaz, kondairaren gora-beherak. "Literatura oro okerrak eta akatsak gorde ta estaltzera bide artifizialetatik eramana zen" (Evtuchenko).

Situazio berri honen ikusmirari darion batezereko ondorioa Errusi-tar herriak bihotzean daukan egia-gosea bizia dugu. Askatasun-ageri bortitzen aurrean gatzedia sutu egiten da, aldizkari ta liburu-edizioak

segituan agortzen ditu ta poesi-billeratako tokiak gainezka betetzen. Evtuchenko-ren "La ternura" olerki-liburuak 300.000 arpededun izan arren, 100.000 aleko edizioa izan zuen "papel-faltan". Azken urteetan herriaren zaletasuna ez ezik gidarien abegi ona ere joera berri haue-tara biltzen doa. "**Sobiet Idazleen Alkartasunak**" V. Kotchetov bezelako dogmakoiak baztertzen dituenarekin bat, ba ditu bere baitan Evtu-chenko ta Voznessenski lako idazle konformagaitz ta gazteak.

Beste ideia sakon ta bihozgarri bat ere ba darie, geroxeago ikusiko dugunez, literatu gazte hauen ikuspegeri: beren anima romantiku xamarrak, ta edertasunaren senarekin aberastutako egia-miñak, her-ria unkitzeko, berari erasotzeko eta bera hobetzeko behar duen errealismua ez ezik, honekin batera gizonaren konkrezio esistentziala gaindu ta lurreko situazio konkretatik ta norbere burutik at dauden zain-muiñetatik xurrupatzeko idealismua ere erantsitzen dio beren literaturari. Literatura herriaren laguntzaille, "auxiliarra" da, bai. Baiña, gizona bere baitan betiko ta hillezkorra duenarekin —"gizona" gizontasun hutsaren gain altxatzen duen horrekin— aurrez-aurre jar-tzen ez badu, ez da benetako literatura. Errusitar literatura, bere gaz-teen intuizioak bide direla, oraintxetsu hasi da gizonaren misterioa aztertzen: Ahaztu ezifiekkoa dugu Maiakovski, "Stalin-aro"-aren egun sentian bere burua hil zuena, ta ahaztu ezifiekkoa baita ere Errusi-ko literatur-belaun berrien aita izpiritual dugun B. Pasternak haundia.

Ertiaren alde burrukan

"**Modernista**" deitzen ultra-stalinista etsaiak ez ditu loak hartu beren alegiñetan, ez dute oporraldi mendrenik ere. Baiña hala ere, prozesu askatzaille bizi ta eutsi ezifiekko honek abiada bizian itotako abots indargetu batzuek baizik ez dira. Ultra-stalinisten reakzio honek eta "**lehenaren zaindarien**" indar dexenteak dituzte plastika-ertietan oraindik. "**Pintore-alkartearen**" zuzendarien, esate baterako, esposizio asko eta biziki ederrak prestatzen dituzte heuren gustoko diren mar-golarientzat, sozialismoaren edertasunak ta Errusi-ko aurrerapenak agertzen dituzten erti-lanak, —umekerien gisako imitazio estereotipa-tu— publikoari aurkeztuaz. Ta binbitartean sala guztiak jendez gai-ñezkatzen dituzten artista gazte ta jatorren erti-lan ta esposizioeri eragozpenak jartzen.

Evtuchenko berari utzi dezaiozun Errusi-ko erti-berpizteaz min-tzatzen: "olerkiari dagokionez ia dena ber-egin dugu ta olerkari on

askotxo ditugu. Baiña sobiet ertiaren zabaleroan ba dago oraindik zer egifnik pranko. Ta hortarako epe dextentea behar, noski. Bi edo hiru urtetara, Sobiet-ertiaren baitan, ifioiz ta ifiun ezagutu ez den bezelako —eta urte hauetan ernetzen ari den— loratzea ezagutuko du munduak”.

Literatur-osaketa

“Izotz-auslearen gisako dugu olerkia egun gure literaturan. Bideak urratuaz aurrerat doa. Ondoren tonelaje gutxiko ontziak datoz, urratutako bide hortatik pasatzeko modukoak: ipuiak, nobela batzuek. Ez, ez dugu oraindik antzifniako errusitar literaturak zituen bezeia tonelaje haundiko ontzirik. Helduko dira hоек ere” (Evtuchenko).

Osaketa honen adibidetzat oso dira interesgarriak olerkariak ematen dituzten erestaldiak. Maiakovski-ren tradizio bera da Evtuchenko'k 1954-an berrasia ta gizamailla guztietan herriaren oniritzi itxua erdietsi duena. Estraiña gazteak bakarrik ikusten ziren, estudianteak batipat. Gero, giza-multzoa lumeroz lodiagotzen eta adifnez zabalgotzen joan zen. Zaharrak, baserritarrak, ta langilleak ere. Egund stadioak ez dira gai poesi gazte hauen alderako amorratuak kabitzeko. Idazleak, beren lehenengo liburuak argitaratu aurretik, literatur-reboluzio honetan munta berezia duten aldizkarietan ezagutzen dira. Frankfurt-en errusieraz argitaratzen den “Grani” aldizkariak dionez, Errusiko literaturan hiru jokabide bereizi ditzakegu gaur:

—**Konformista belauna**, “sozialista errerealismuaren” defenditzailla ofizialak. Izenak: Sholokhov, Sofronov, Prokofiev, Gribatchev. Beren errebista: Oktiabr”.

—**Reformista belauna**: Dudinsev, Nekrasov, Okoudjava, Evtuchenko, Voznessenski, Tvardovski, jokabide honen “Novy Mir” aldizkariak idazle-buru eta eragille kementsuena. “Novy Mir” aldizkaria, sonatua dugu lurbira osoan, bai bere ausartasun, bai bere zintzotasunagaitik ta baita ere bere literatur balio handiagatik. Aginteak persegitu ta madarikatutako gazte baliosu guztiak defenditzen ditu Tvardovski honek ta bere aldizkarian onartzen. Mundu guztian izen haundiko diren beste zenbait idazleek ere, Ylia Ehrenburg eta Konstantino Pardovski-k, esate baterako, aurrerapen honen alde eman dute beren izena, literaturaren egia-zaletasuna ta jokabide zintzoa defendituaz.

—**Azkenik**, Siniavski ta Daniel'en epaia dela, edo “Pasternak

affera" delakoa edo ta baita Ungria-ko matxinada bera, denak, agintaritzaren kontrako indar bortitzen eta azkenengo hamar urte hauetan ugaldu diren kondena ofizialen zergaitia zerbait argitzen duen azpi-literatur mogimenduaren ioritasuna adierazten digute Errusi-n. Belaun honetako zenbait ezagunak ditugu, beren idazlanak atzerrian argitaratu dituztelako: M. Naritsa, V. Tarsis, A. Siniavski, Y. Daniel, baiña batez ere ikasle ziren edo Unibersadeetatik oraintsu aldegin duten olerkari gazte-sail ugari bat. Guzti hauek ideial berdifekiko eta adore igualtsuko elkarte bat osatzen dute. Moskou-n azpi-literaturaren SMOG. elkarteak berreun gazte ba zituen, jakin denez, bere baitan eta Leningrado-n, Kiev-en eta beste zenbait uritan ba dira horrelatsuko elkarteak. Agintarieki, jakifia, persegitu ta sakabanatu egiten dituzte holako elkarteak, baiña gaztedi zaindu honen izpiritua biziagotu besterik ez bide-da egiten bortxakeriekin eta berehala nunahi sortzen dira jokabide berdifeko elkarteak, nahiz izenez aldaturik.

Heuren espresio-bideak ezkutuko aldizkariak dira. Aldizkari hauek ez dira sarritan multikopiaz edo eskuz ere —ta gero irakurle bakoitzak bi kopia behar ditu egin ta bi lagumeri pasa— ateratako poema-sortatxoak baizik. Beste batzutan atzerrian, Frankfort-en baiñipat, argitaratu ta berriz ere Errusi-n sartzen dituzte, sekretuki. Edo, bestela, publikazio ofizialen laguntzarekin edo izkutuko inprentaren batean. Sortatxo hauetako zenbait ezagunak zaizkigu Okzidentean: "Sintaxis", "Fénix", "Las esfinges". Erbesterratu zuteño V. Tarsis zen heuren idazle-zuzendaria. Azpi-literaturaren jokabide hau ofizial-literatura konformagaitzarekin oso batua dago. Ondo begiratuak diren zenbait idazleen izenak egunero azaltzen dira aldizkari klandestino hauetan. Sarriki xixtima klandestino honen bitartez argitaratzen eta zabaltzen dira zensurak aurrera pasatzen utzi ez dituen zenbait idazle "onartuen" ta "Idazle-elkarteari" hitz emanda daudenen poemak. Hori-horixe gertatu zitzaion Evtuchenko-ren "Essenin'i eskutitza" poemari:

*"Arpegia su ta ukabilla dardar duela
Konsomol zuzendaritzak gu, olerkariok, izutu
nahi gaituenean
ta gure animak, bere antzera tajutzeko,
ezkoa bezela moldagarri nahi dituanean,
Essenin, heuren hitzak ez naute txintik ere
bildurtzen".*

.....
*"Nik jarri gura dudán Konsomol
zuek zerate: Puchkin, Maiakovski ta Essenin".*

Bertso hauetan biltzen zaizkigu laburki joera liberal ta biurri honen leiak oro. "Errusitar gaztedia —dio Oktabio Fullai'ek Indice-n— langillea, responsablea ta alaia da ta marxismoaren etorkizunean espero ta siñisten du. Penagarria, ordea, Partiduagaitik hain hesitua ta hain bide jakifietara behartua egotea. Beren ideialogi ta informazioak zehatz-mehatz daude kontrolatuak ta horrela pertsonalitateak bixitasuna ta etorkizuna galdu egiten ditu". Orain gaztedi honek bere indar guztiak sail ta txoko guztietara hedatu nahi ditu: pentsakera, sentikera, biziera, siñiskera...: libro izan. Stalinismoaren molde gogorrek apurtu ta ondoren bizitz gero ta are libroago ta pertsonalago baten lortze-saioan abiatu.

Poesia gizonaren billa. Poesi honek ba du zer berri bat: gizona gutxien duenarekiko mespretxua, izaterik merezi ez duenaren arbuioa, egia-esijentzia, burgeskeriaren xurkeri, norberekoikeri, usariokeri, ta gizatasuna ukatzen diguten bortxakerieri gogor egin. Norbaitek hala abesten zuen Eguberria:

*"Jendeek ontasuna ez ahaztu
eta mirarietan siñestetik
etsi ez zezaten
datorrela" (Ivan Kharabarov).*

"Fenix"-eko olerkariak gizonaren prolema proposatzen diote beren buruari, munduaren eta beren buruaren aurrean duten situazio larri, urduri, medarra ta illuna. Ta karraxi berri bat entzuten da:

*"Jauna, ene Jainko, nun zaude?
eta nor zera?
kaos hontan ez dut
Zure arpegia idoroten"...*

.....
*"Ez dugu, Jauna, jakin
zure doaiak konserbatzen" (N. Gorbanievskaya).*

Egoera honen errua adindunak dute mundu ipokrita ta materialista sortzean.

*"Ezur-gaiñean eraikitako
presondegi baten antzo...
Plazak bata bestearen ondoren*

ibilliaz ibilliko ditut

ta uriaren belarrira etsipen-karraxi egingo".

(Y. Galanskov: "Giza-agiria")

Mundu itogarri honetan behar-beharrezkoa da barne-erreboluzio bat: zistrinkeria ta gezurra bihotz oroetatik erantzi.

Honatx giza-egia, duen adierazkirik sakonen, metafisikoen ta trazedenteenean,

"Esfinges" idazlanean, izpirituaren zorna berriaz asetako Errusi gaztea ta erlijio-gaietan eskolatua den Errusi zahar ta betikoa, ezin bestezko batasunera irixten dira arras gizakoi den giro batean. Errusitar gazteeri dagokie "beren gorputz, odol ta animak Errusi-ri eskeintzea, aintzaz ta indarrez orniturik izarren atzetik joan dedin". (Y. Stephanov).

"**Maitasunean ez da mugarik**". Errusitar gazteen bibentziak munduaren zabaleroa dute egian ta maitasunean. Olerkariak, individualtasunik sakonenean, "bere" egiaren serbitzuan, bere buruarekin topo egitean, eten gabe berriki sortzen ari denarekin inkontru egitean, bidenabar, ustegabea, dardaratzera gaituan "misterioaren" barnean besteekin eta herriarekin topo egiten dute, lurralde oroetako giza-jende guztiekin. Errusi-tar olerkari gazteek hauxe nahi dute izan: benetazko errusitar olerkari ta bide batez, horretxegaitik hain zuzen, olerkari "unibersal". Ifiolaz ere ez "kondaira-aro bat edo besteren" jopu itxu.

"O, ene errusitar herria,

zure bihotzaren muiñean

zu, ba dakit nik hori,

internazionala zera" (Evtuchenko: "Baby Yar").

Rejimenaren bortxakeriak

Goikoen aginduen esan hutsetara egoteak ezin ifiolaz ere izpiritu sortzaille ta gaztea ase. Izan, ertia ez baida, onenean, amets baten, eskuratu ezinezko zerbaiten aragitzea besterik. Dotriña ta estruktura hesitu guztien gain dagoen zerbaiten gorpuztea edo. Baiñan Partiduak amets egitea debekatu egin bide-du. Erti huts den oro, erti astratoa edo giza-literatur ederra, goxoa, gizakoia, materiaren ta praktikotasunaren loturetatik aske dagoen hori (Yuri Korsakov'en ipuiak, esate baterako), kapitalismoaren ondarrak dira Partiduarentzat,

“Okzidentearen formalista-dekadentzia”, ta egilleak **“sozial-parasitu”**. Hona pentsakera-molde bat, Komunista dotrinaak gizona zenbateraino gutxietsi duen adierazten diguna, sozial-sail aldakorrean ertsituaz, sozial bizitza bera posible egiten duten metafisikotasun ta sakontasunetik erantziatz.

“Azken urte hauetan, Errusi-n hasi gera gere buruz pentsatzen, eztabaidatzen, elkar-hizketan, ta erakutsitako ideieri genien debozio itxu hura galdu dugu” —esan du USA-n Svetlana Stalin'ek, Kruschev'ek idazle ta artistak beren artean konpondu behar zituztela beren zertxoak eta Partiduak ez zeukala auzi hoietan zer sartu esanagaitik, hala ere 1956-ean sorturiko mugimendua ideialogi-egitura gehiegi ari zen zapaltzen, lurreratzen, Errusi-n. “Egun komunismoaren dogmak bost ajola neri” —zion Svetlana Stalin'ek berak. Horregaitik 1956-ean indar bizian itxasora abiatu zen ontziaren lokarriak berriz ere lotu nahi izan zituan: Kruschev'ek kulturaren funtzionarioen ortodoxia mahiz defenditu zuen. Orobat Stalin'en garaiko ideialogi ta sozial-egiturak. Partiduaren zuzendaritzak **“errealismo sozialistaren”** printzipioak berriro ere aintzat hartzeko eskatzen zien idazleeri. Askatasuna emate hortan ez zen sekula mugaz at irten Partidua, noski. Gogor kritikatu zuten Dudinsev 1956-gn. urtean URSS-ko burokrazia-aren egitura goibel ta illun edestu zuelako. Pasternak'ek gogorrrak jasan behar izan zituen 1958-an Nobel-saria onartu zuelako. Gero, hil zenean (1960) herriko olerkari haundi bat bezela begiratua izan zen. Halere, bere idazlan onenak —Dr. Zhivago— ez dira oraindik Errusi-n argitaratu.

Desestalinizatzearen abiadura bizia geldi arazteko ahalegiñak eta ezifñak egiten dira. 1963-ko diskursu batean, Kruschev idazle ta intelektual zenbaiten kontra jardun zen —Evtuchenko, Voznessenski, Ylya Ehremburg—, Stalin'oroipena goraiatuaz aurrerakoiegi diren hauen kontra. Partidu-gidaritzaren ahalegin hauetan halako angusti-bildur bat nabari da, beren aragia etengo balitzaie bezela, indar berri hauek beren xixtima oifarrri-oifarririk deuseztuko balute bezela.

Aldizkari aurreratuenak ta heuren idazleak eten gabe ta amorratuki erasoak dira. Gutxi dela Boris Palevoi'k bi milloien aleko **“Younost”** (Gaztedi) aldizkariaren zuzendari nagusiak, bere **“autokritika”** egin behar izan zuen Partiduko XXIII-gn. Kongresoak **“eszeptizismo ta apolitismo”** salaketak erantsi zizkiolako. Aldizkarian beste ohar bat ere agertu zen, **“ofiziala”** bera, **“Aberriarekiko responsabilidade”** urria salatuz, moralidade dudoso antzeko lanak argitaratzen zituelako. Bestalde, ohar hau ez zuten ez Palevoi'k ez Evtuchenko'k ez

beste laguntzaille printzipalenak firmatu. Stalin'en **"Konzentrazio-historak"**-en ikaragarrikeriak itxura apalagoz estali dira orain: asozialentzako **"lan-kolonia"** bilakatu dira. Asozial, lapurrak, lanik egiten ez dutenak, informazio ta atzerriarekiko hartu-emanetan askatasun osoa eskatzen dutenak ta, batzutan, semeak erlijioan ezitzen dituzten gurasoak-ere dira. Bide batez, sozial-parasitu, bere poematan **"gizon ekonomikoa"** abestu ordez, **"giza gizon"** unibersal ta traszendentea abesten duten olerkariak dira. Akusazio hau nahikoa da, noski, bost urtetarako **"bortxa-lanetara"** kondenatua izateko. Hala, oraintxe askatua izan den, Jossip Brodsky giza-kondizioaren abeslaria.

1960-an, M. Naritsa'k **"Abesti itoa"**-ren (Le chant étouffé) ale bat bidali zion Krushev'i eskutiz gogor batekin **"pentsakera pertsonala"** izateko eskubidea edo **"familiaren edozein lekutara"** aldegiteko baimena Sobiet-gidari nagusiari esijituaz. Gerorxeago giltzaperatu ta ospital sikiatrikoan gordea izan zen. V. Tarsis'ek ere 1962-an Moskou-ko Kachtchenko ospital sikiatrikoan igaro behar izan zuen bere "korrezio-aldia", 1965-ean Inglaterrara erbesteratzeko baimena lortu zuen. **"Salle 7"** eleberrian ospitaleko bizitz-gora-beherak jaulkitzen dizkigu. Beste hamaika idazleri ere bera gertatu zaie. Adibidez, Essenin, Vichnievskaia, Gouvanov... Hauen errua, gero bost urtetarako lan gogorretara kondenatuak izan ziren Liniavski ta Daniel idazleen atxilotzearen protestan 1965-eko Abenduaren 5-ean ikasle-manifestazioa zuzentzea ta bertan parte hartzea izan zen. Belaun zaharreko zenbait idazle aupauek (Simonov, Ehremburg, Tvardovski...) setatsu defenditzen dituzte Partiduak jarritako mugak baiño aurrerago joan ta egia aitortzen ausartu direlako, persegiuak diren idazle gazte hauek. Zer dala-ta —galdetu du batek baiño gehiagok Errusi-n— kondena dituzte Siniavski ta Daniel mundu guztian hainbeste zarata atera duen epai baten ondoren? Erantzuna **"Izvestia"**-ra zuzendutako esku-titz batean ematen du Levine fisikariak: Siniavski ta Daniel ez dira batez ere Errusi-n argitaratu ezin zituzten idazlanak atzerrian argitaratuaz legea urratu dutelako kondenatuak izan. Heuren errua Stalin'en aroko —ta gaur ba dirau oraindik aroaren zenbait ondarrak— **"ilegalidadeetan"** bakoitzak dituen **"responsabilidadeen"** prolemak argi jartea izan da. Togliatti'k 1956-an eskaturiko azterketa sakon hura ez Krushev'ek ez beste jarraitzaileek ez dute proposatu oraindik, ez dute planteatu, gidaritzza ez konprometitzeagaitik, noski.

"Gaztedia da erreboluzioaren neurkiña"

Trotsky'k esan zuen ta Evtuchenko'k berresan du. Baiña argi adierazten du berak ez dela Trovskysta ezta politika jokabide zehatz baten barruko ere. Aldarrikatzen duenez, "bere olerkien zale gazteeri bezela guztia interesgarri zalon olerkaria da ta bere olerkiak izan duten harrera ona, neurri dexentean, Stalin-aroko zenbait tabuen gaiñetik salto egiteari zor dio". Stalin'en kontra dager Evtuchenko ta adierazi du "urrilleko tradizio edo usuario onenen jarraipen dela gaurko Sobiet-olerkia". Heurak dira erreboluzioaren lehenengo urteer: benetako jarraitzaille, stalinismoak antzutu-ta fruiturik eman ez duen erreboluzioaren jarraitzaille.

Izan, hauxe da barnean datzan prolema gordiña: Komunismo beraren bilakaera bat edo komunismoarekin auste bat? Stalin'en mitoa deuseztea Stalin'ek apurtu nahi zuena goraltzea da. Stalin komunismoaren bide oker ta "gaindutako" bat besterik ez da edo ta komunismoaren bide bakarra da, komunismoa bera? Ba al du xixtimak, bere tasuna oñarri-oñarritan txikitu gabe, hemen agertu dugun eta egunetik egunera herrikoia bilakatzen ari den hesi gabeko mogimendu hau bere baitan onartzeko behar hainbesteko moldagaitasunik? Errusi-n pasibidadeak, obedientzi xotil ta itxuak iragan ziren, ez dago dudarik. Gidaritzak jakin ba daki propaganda ta bortxakeria ez direla medio egokiak "lehenago bideetara biur arazteko".

Gizatasun metaistoriko ta metafisikoaren ukaera den giza-kontrako bizitza babesten zuten dogma-hesiak lur jo dute. Ta orain arte atxilloturik zeuden barne-indarren askatzeak desira larria sortu du Errusi-n, egia, maitasun ta giza-bizitz jatorraren ioran bizia. "**Muga berria**" jaio da, ta Lenin'ek, Stalin'ek efa ondorengoak errusitar animari ezarritako neurriak baiño urrutirago heltzen da, dudarik gabe. "Orduan konturatu nintzan komunismoa ez zela filosofilariet erakitako pausoka osatzen dijoan indarra baizik" (Dudinsev: "Ez da ogitik bakarrik bizitzen"). Honek zera gogora arazten digu: Gaur Errusi-n hain egiazki ta zintzoki aitatzen diren "**askatasun ta anaiarte**" hitzak aspaldi-aspaldian Palestina izeneko txoko batean esan zirela.

"**Egiaren aragitzea da Komunismoa**" —baietsi du Evtuchenko'k. Ez ote da gero gaur azaldu den komunismo berriak, gizakoiago ta egiatiago den honek (hainbeste gizonet erreboluzioaren hasieran bu-rrukaren bidez lortu nahi zuten komunismoa hain zuzen) orain artean gizonaren galeran eraiki diren komunismo faltoak zapaldu egin behar

dituela? Sozietateek ezin dituzte denpora luzean akats haundiak bere baitan eraman...

Horregaitik komunista zahar ta berrien arteko elkar-jokak usu ari dira ugaltzen, oraindik amaiera ikusten ez zaion pre-reboluzio-burrumbada antzekoa atereaz. Zutik al dirau oraindik komunismoaren dotriñak, bere ideialogiaren enborrak horrenbeste fruitu ustel ta arnari galdu eman ondoren? Galdera larria Errusi-ko gizon zintzo ta jatorrentzat.

Ene iritziz, zerbait argitu digu komunismoaren mogimendu berri honen azterketak: Gaurko komunismoa, dagoen egoeran, —“**probisio-nala**” ta “**metodikoa**”, marxista-dotriñak dionez— bizitza aurkakoa dela. Nola izango egiazko komunismoa —diote olerkari gazteek inplizituki, hitzetik ortzera horrela esaten ez badute ere— egia bizitzaren kontra ezin baditeke egon?

Dogmakoeiek erreboluzioaren printzipioen areriozat salatu dituzte gazteak eta ideialogi kapitalista ta burgeskoiduntzat. Esate baterako, pintura astratoa dogmakoi-entzat kapitalismokumea da. Evtuchenko'k bere burua zuritzen du: “Bere kreazio tankeragaitik ezin diteke sortzaille bat burges-ideialogiaz akusatu. Ezin ditezke, gure kritikalarik askok egin bezela, ideialogia ta estiloa nahastu”. Hala ere, ikusi dugunez, eskola ta formalista eztabaiden gaiñetik dauden ideialogien kutsu nabarmena du sobiet-literatur mogimenduak. Forma-askatasunaren barnean mamiarena datza. Literatur-askatasuna ta ideialogiarena uztarripe batean doaz; ta ideialogi-askatasun honek, berriz, bizitza sail guztietan era edo forma berriak eskatzen ditu: literatur, sozial, politika... Marsismoan ezitako gazteek, marsista ez diren huts-eziñezko ta ukagaitz egiekin hartu-emanetan hastean, zera ikusi dute argi ta garbi: Bizitzaren eboluzioak ondatutako ta gogorkeriz kutsututako antigualak direla xixtima ta partidua.

Jakiña, gizonaren kontra egindako ezerk ezin luzaroen iraun tente. Gizonaren egia, nahiz ez beti aratz agertu, beti ernetzen da barnean, ixillean, gordean, opresio-urarekin xuxpertia, gero indar bizian ki-muak botatzeko...

Irakurlea konturatuko zanez, zenbaki berezi honetako zenbaki bien (27-28) hutsunea betetzen du. Ateratu kontuak behingoz garbitu nahi izan ditugu gure arripedunekin. Aintzinean zintzo, lehia eta puntual jokatzeko asmotan egin dugu hau. Irakurleak konforme egongo diralakoan.

JAKIN'en Zuzendaritza.

ZERGATIK eta ZERTARAKO EUSKALDUN?

intxausti adiskideari erantzun irikia,
eta beste guztierá

j. azurmendi

Adiskidea!

Oraintxe egin didak, alproja horrek, sekula idatzi didaken gutunik luzeena. Ordua ba huan, noski. Baiña, jakiña, oilloak kukurruku jo ezker. nahiko aldrebes zerabilkik oillo gajoak makineria. Eta halaxe izan.

Bildurrez hasten natzaik erantzuten. Gure eztabaida zorigaiztoko horretan parte hartu duten denak begira begira egongo dituk, ia zer esango ote dudan, seme galdu honek. Zer esango diat nik ba!

Okerrena ez duk hori: ez dituk aurpegia ematen dutenak mindu nindutenak. Besteak hobe, baizik. Orain herrero, dudarik gabe, zerrailla xulotik begia luzatzen egongo zaizkigunak, gure larrugorria maixeatzeko min maliziati batez, gero anonimora edo zeharkako kritiketara joko dutenak. Erantzun ezin diegunak. Sorginkurubil edo zirkulo biziodun batean nahastu ta irauliko gaituztenak.

Zergatik ez aitortu: holakoxe iguin bat sortzen zidak azkenaldian idazten dudan guztiak.

Eta zergatik ez aitortu ere: nahiago izango nian buruhauste hau memorio zaharren (eta txaharren) apaletan bildu ta betiko ahaztu.

Puntu gehienetan hirekin negok. Denetan ezetz uste diat. Baiña permiti zaidak heurekin sartu aurretik eztabaidaren martxari (gelitu zala uste nian ta hara nundik beste plaza batean dantza bera hasten dugun) begiratu bal.

Begiratu honen aurretik, halare, ohar jeneralago bat, nere iritzian eztabaidak —edo elkarrizketak— izan behar lukean aireaz.

JAKIN ez duk astekaririk. Nik idazten dudanetik inork erantzun dezan arte denpora gehiago pasako duk. Erantzunak ere tonu serioagoak izan beharko lirakek: JAKIN-i zor zioagu hori, eztabaidaren gaiari baiño ez gutxiago. Lehen saio baten eskarmentua ere ba diagu orain ta haren onez eta txaharrez baliatzea zegokiguk, tajuz jarraitzekotan.

Alde honetatik epailuta ez zaizkidak erabat atsegin izan ez hire idazkia ta ez JAKIN-en Zuzendaritzak ezarritako argipena. Esker oneko natzaizue, noski, nire alde zarlatur duzuten lantzarengatik. Ez ote duk kaltegarri, oraingoan benetan, xaltxa horri pipermiña gaineratzea? Beste giro bat sortu beharrean gaituk aurrera nahi badiagu.

Alegia, esan zaizkigunak gogorrek izan dirala ez diat ukatuko (nork likek atsegin holakoxe lore sorta bat?). Ezta gaizki esanak daudela ere, oso gaizki niketz. Merezi gabe ta zuzentasun izpirik gabeko baitipat eta askoz gehiago. Bidea ere zeharo erratua dala, azken onik ez baidik jokabide horrek berekin sekula izango.

Hori dana ta gehiago, nahi dukan guztia. Eta zer, asarratu egingo al gaituk, asarratu egin zaizkigula-ta? Jipoia eman digutela-ta, burla egingo al ziegu ta zakurraren ipurditik pasa? Zergatik erre behar diagu Aramaio guztia, Aramaio ere geure-geurea diagu-ta!

Hobe denak ahaztu.

Ixkribauak-eta izaten omen hituan gure lehenagokoak. Orain, berriz, ofizioa aldatu diagu nunbait, fiskalgintza nahi dugula zirudik behiñepehin.

Baiña arrazoiak ematea nekeza dala oraindik ere-ta, hitz borobillak erabiltzearekin kontentatzen gaituk. (Trotzky'k zion "erreboluzio denak berritsu izan dira" hura egia baduk, ba leikek gu ere bide zuzenetik ibiltzea). Ezin aurkitu izaten baitituk hiztegieta arrazoiak, Hitzak, ordea, mofeil, nolakoxe hitz potorrak, inori kaskarrean emateko... Buruan gutxi hainbeste mingaiñean asko diagu orduan adore...

Traidore ustela besterik ez naizela eta txaketero ta koldar huts ta nire lanik egin nahi eza hala alferkeria hala amor emateko aitzakia justifikatu nahi nituela? Horiek denak esan izan badituk, ze demontre, ezin duela bat paratuko diagu, pentsa dezagun, ordea, zergatik esan izan dan holakorik.

Alde batetik, ez zeukat nik dudarik, izan zitezkek ariñegi esanak. Ba diat susmoa, nire artikulo mulur ziztrin haren okerrera tituloa izan zala, eta harek motigatu dituela ezerk baiño gehiagok, asko moduzko erantzun hamaika ta zalaparta.

Euskalherriatik aldegin dugula ta beste gabe traidore nahiz koldartzat jo gaituzten horiek, aldiz, gutako bakoitzak poltxikoan Unibersidade bat eraman dezagula nahi diate inundik ere. (Egunen batean, hiltzea beru, aurki, traizio bihurtuko zaiguk). Objezio hori nire kaskoan ez baituk ondo ajustatzen, gehiegikeria dalakoan hartzen diat eta utzi.

Berdintsu jarraitu ahal izango genikek unamunista, espainolista, erreazionario, burjes (beste norbaitzuentzat, ordea, komunista espainolista: ez zekiat berdin izango ote dan...) eta hori ta hura geraldako hixtoriek.

Honetan guztian, ordea, hauxe ikusten diat nik aprotxagarri, zarata horri errematea jartzeko: zerk sortu ziguk zapla ta holakoxe mendebala?

Eman dezagun —sortu zuen ohiartzunagatik— Euskalherriaren erreazioa izan dala tokatu zaigun hori (gutxitan gertatzen baituk holako ixkanbilla gure artean). Ez diagu hemen zerarik begiratu, alegia, euskaltasun modu zahar baten ondakin ote dan hala ez. Hori ere gaurtik aurrera aztertzeke geldi zitekeek, inork nahi balu, puntu honekin hasien baituk nire gaurko saioaren ekarri positibo izan dedilla nahi nukeana. Neronen aldetik, esango ditudenetatik atera ahal izango danez, neurri lodi galantean behintzat euskalzaletasun pasatua konsideratzen dudan baten ohiartzun amorratua izan dalako iruditua diat. Baiña hori utzita (horren analisi on baterako gai eskasa baitiagu oraingoz), euskal herriko egoeraren analisi objetibo batek azalpenik ugari emango ligukek, noski. Ezer gutxi esan zitekeek hemen gure egoera politiko ta zozialez. Ez duk gure asmoa politikak egitekoa ere. (...) Baiña errealdadeak diran bezala onarturik hasi beharko diagu gure gogoaldea. Ta errealdadeak gure artean larriak dirala edozeinek aitortzen ziguk, hasi Gotzaiengandik eta kexu egoteko ofizioa duten protestalari zozialenganaiño. Gogoratzen al dituk Goya'ren "Dos de mayo'koak" eta nola dibertitzen digun "chusma"? Ta zer irudituko zaik, gaur hain zuzen frantsesen batek halako herriaren sadismoa elegantziaren izenean kondentatuko baligu? Zein elegantzia eska zezaiketek, gero, berek xaxatu ta erreboltaerazi duten herriari? Sofritzen duen herriaren defentsabide eta erreazioak ez zegok eragin dituen kondizionamentu gogoan hartu gabe epaitzerik.

Gure jendearen egoera aztertu nahi badiagu, oraindik, esan zaizkigunak berak nahiko argitasun dizkiagu, halafede: traidore, espainolista, erreazionario, burjes, koldar etc. (cfr. JAKIN 25, hor. 1). Beraz horixe duk hain zuzen gure herriak barkatu nahi ez duena ta suportatzen ez diguna. Jarabeak ez dituk gozo besteak hartzen dituztenean, eta txahar guretzako badira.

Eztabaida honen markuetan puntu horretara iritxi izana izan zitekeek agian, izpiritu intolerante xamarraren seiñale. Ez nintzakek asko harritu-

ko eta ez nitek horretatik eskandalo biderik hartuko. Holakoxe zerbait idaroki nahi nian geroxeago herriaren egoera objetiboaz mintzatzeko nintzanean. Ezagun bat, adiskide bat, anaia bat kristorenak ikusten dabilkigun artean (eta gutako nork ez dik holakorik?), ez zioagu aixa iñori eskubiderik aitortuko, irribarre gaizto batekin, "zertarako hori dena?" galdegiteko. Bestelako ejenplorik ezertarako begiratu gabe ere (...), zein zentzun zeukak Aita Kandido Izagirre hilberriari, adibidez, hainbeste neke ta izerdi ta nahigabez baseritik baserri burutu digun lan guztia holakoxe galdera eszeptiku baten kakoan zintzilika uzteak? Edo nork galdegin ziek holakorik finlandeseri, beren suomiera zabaltzen saiatu diranean? Nork galdegin zioek ezer Nikanor Zabaleta'ri edo Segovia'ri, arpa jotzea ta kitarra jotzea euskeraz denpora alferrikaltzea bezalatsu diran arren? Hik eta nik daukagun etikan, ez diagu galdetzen hilbeharrean kondenturik dagoen gaixoa zertarako zaintzen danik, Pertsonaren bizitzaz horrela baduk, pertsonaren ondasunen bizitzaz beste hainbeste. Eta hik ondo badiok edozeinek duela galdetzeko eskubide, edozeinek duela sofritzen dagoena errespetatzeko obligazio, ahaztu diagu guk. Nahaste honen korapilloa hementxe dagoela esango nitek. Euskeraren kontra itzuli naizela iruditu zitzaion jendeari, snobkeriaz ari nintzala, etc. Aldrebeskeriaren batek sortua diagu uste hori, nire uste ta itxaropenean eta burutazio haunditan nekatu gabe neure burua defenditzea ez litzaidakek Venus'en aterrizatzen asmatu behar berririk izango. Zertarako, ordea, denpora alferrikaldu? Nik ez zioat iñori adarra jo nahi eta hori neuk zekiat iñork baiño hobeto.

Barkatuko al zidak irakurleak orain arteko ohar txondar hau, berehalaxe emango zioagu su.

Bukatzeko, ba: jendeak gogor xamar erantzun dik eta ni mindu ere mindu nintzean, baiña gaur konprenigarri zaidak jokabide hura. Beraz, bota diran tiro guztien arren galdera oraindik tente dagoela uste baidiagu, jarrai dezagun poliki-poliki, baiña trajeria tonu ta karraxi denak behin betiko baztarturik, Jainkoarren eta gure herriaren arren.

Joandakoak luzatu ez baiño haietatik ikasi egin behar diagu. Zer gabiltzak haizerrotak apurtu nahita, gu ez gaituk kixote.

Adixkide guztieri

Erantzun honekin guztioi erantzun nahi dizuet: **San Martin, Yntxausti**, (eta **Intxausti**), **Kalzada**, **Iritzira** (kulparik ez zuenak eraman

zuen tiroa! —esango zukean Etxahun'ek), **Laspiur** eta gaiñuntzeko.

Ez usie orain arte esan dituzuteneri gor egiten natzaienik, ez. Onik asko argitu zan ta bidé hasiari jarraitzekoa da nire gogo. Uste baitut ez dala oraindik komeni eta ahal bezala argitu.

Zuen esanetatik bilduko dut orain laburki, ari etenaren muturra korapillatu eta josten jarraitzeko (eta ifiorik uste izan duen gisako zuen "kontrariorik" ez naizela agertzeko, ez baitut uste ez nire pentsamentua zuenaren aldean hain **orijinala** danik, ez da bestelako egia danik ere. Ezkeleto bihurtuko ditut zuen esanak, laburtu beharrak hortaraturik, barka zaidazute hori.

Juan San Martin (1)

1. ...Baifia, neronen esku ez egoanez (nun jaio aukeratzea) eta hemen sorthu nintzanez, bertakoa natzaizu, haragiz eta ispirituz, beharrezkoa zait bertan bizi beharra, beharrezkoa sortherriaren intresekin arduratzea, bera nere haragia delako ta ni haragi horren zati bat. Nere osasuna, nere herkideekin batean, bere osasunarekin batean dagoalako.

2. Bakoitzak dauden lekutik osatu behar dugu mundua... Europa'ren osagarriak herritxikien bultzadatik ez badatoz, nagusiak elkar menderatzen bukatuko dute.

Europa zaharrak ez du soluziorik herri-txikiak errespetatzeko.

3. Unamuno'ren hitzok aldatzen dizkigu: "La lengua... es la sangre del espíritu". "Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepción abstracta del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía".

Euskerak ere ba darama bere filosofia berezia erraietan eta San Martin'ek hari aurkitzen dio erderari ez bezalako gunea. "Nere sentipenen eta nere arimaren izakera euskeran arkitu nuelako".

4. Gizontasunak justizia egarria ere bere ariman daroa... Ta, munduko gizon bakoitzari errespetoa ta justutasuna zor zaion bezala, era berean, herri bakoitzari ere zor zaio.

Ez da asko eskatzen dudana: gizon guzientzat eskubide berdiñak ta herri guzientzat ere hori bethori.

* * *

(1) Cfr. Z.A., 209 (1967, Otsailak 26).

Hirugarren puntuari dagokionez, eztabaidan agertu zaigu puntu horixe euskaldunon artean (ikus BRANKA ta ARRAGOA aldizkarietan Txillardegi ta Ereño jaunen arteko eztabaida). Horixe dagokiola uste dut, baita ere, beherago ikusteko dagon Iztueta'ren iritzia.

Laugarren puntuaz, berriz; San Martin'ek eskubide bezala oifarritzen duena obligazio bezala ere oifarritzea zan nire asmoa. Hala nion nire lehenengoan: "Ez da naikoa, niretzat, nahi duenak nahi duenerako eskubide duela esatea, euskeraren alde jardun nahi duenak hartarako libertade duela... Nik, marxista izan gabe, ez ditut oso ongi konprenitzen obligazioen luze-zabala berdintzen ez dituzten eskubideak".

Frase hau zan nire pentsamentuaren bihotza eta nire asmoa. Azken aldera berriro itzulliko naiz puntu honetara, San Martin'en planteamentua desestimatzeko, nire galdera beste mailla batean da-goela uste dut.

Mikel A. Yntxausti (2).

Nire galderak ez duela zentzunik, ez izateko arrazoirik, pentsatzen du Mikel A. Yntxausti'k.

Baiezkoa frogatzen alegindu ez baiño (arrazoiren batzuek Joseba Intxausti'ren azkenekoan ikus ditezke), eztabaidan agertu diran aitoren pare bat ekarriko dut:

Mikel Yntxausti'k berak: "Haspaldidanik neu ere prolema berdifiarekin bainengoen".

San Martin: "Neronen buruari ere maiz galdetu baidiot euskaldun zertako jaio nintzan".

Julen Kalzada: "Galdera ori, Jose, neuk be sarritan egiten neban".

Izengabeak: "No, ez duk lenbiziko, itxura batean, dirudien añako galdera arin bat. Ba dik bere mami sakona".

Joseba Intxausti zitatu beharrik ez dut hemen.

"Euskaldun jaioak geranez... krisis existenziala superatu duenak ez du eskubiderik horrelako galderak egiteko. Gizon izaitea merezi badu, zertako galdetu euskaldun-gizona izaitea merezi ote duan edo ez. Arrazoi aundirik gabe, itxu-itxu, jarraitu-bear dugu. Uste dugun baiño xingleagoa da errealtatea" (2).

(2) Cfr. Z. A. 209 (1967, Otsailak 26).

Ez nago konforme. Izateak ez du, agian (neu ez naiz filosofia horretakoa, baiña hemen berdintsu zaigu gora-behera hau), arrazoirik behar, ekiteak, aldiz, BAI! Niretzak argi dago: munduko edozein filosofiak, erlijioak eta mitolojiak billatu nahi dio izateari nundik norakoa, objetiboa (hala iturburua), helburua. Hori aurkitu ez duenak suizidioa gomendatuko digu, gehienez ere Nirvana antzeko zedozer edo fatalismo subterren bat. Berebat ekintzak, helburua behar digu; arrazoi bat, orduan; beraz, galdera bat. Areago izate osoa eta ekintza erlatiboan (izate bera erlatibu da, ta ekintza bat, berez, izante batetiko zerikusian erlatibuago oraindik) berdintze ifungo filosofiatan kabitzen ez bazaigu.

Ekiboko bat ere ba dago hemen. Nekez har ditzakegu galdera berdin bezala gizon izatearena ta euskaldun izatearena. Ez da bat-bera zer ta nola. Ez diozu, ba, zeuk "basqueitas" hori hain zuzen bestearen akzidente, eraskin dala?

Eta eskasia bat: ez dut uste, temaz hitzen bati lotzen ez bagatzaizkio, euskaldun izaterik merezi ote duen galdetu nuenik. Mese-dez: "Merezi ote du, orduan, gure izateari eustearren lerregiteak? Zergatik?"... "Zergatik opaldu bear zaizkion ainbeste neke". Ez nuen, ba, izateaz galdetzen, ezpada ekintzaz. Ez da berdin. Izateko modu bategatik ari gera lanean, ez izate hutsagatik. Eta izateko modu baten aldeko ekintzaz zan nire galdera, alegia, modu neketsu batez, euskaldunona ez da besterik-eta.

Eta azkenik: burugabe ta nahi dan guztia izango da galdera, baiña hortxe dago, gure artean dabilkigu, frente egin beharrean gagozkio.

Zuk galdera superatu baduzu, Mikel A. Yntxausti, permiti zaiguzu superatu ez dugunoi, denon artean superatzea. Horretan ari gera.

Sinets zaidazu, herrikide M. A. Yntxausti: ez naiz seta hutsez ari galderaok jartzean.

Julen Kalzada (3).

Julen Kalzada'ren erantzunak lau puntu desberdin dauzka. Lehenengo hirurak alde batera utziko ditugu: dirua nahi baduzu, edo ohorezko izen eder baten jabe bilakatu, edo ta marxista bazera, ez

(3) Cfr. Z.A. 211 (1967, epaillak 12).

landu euskal izatea (eta ziplo! derrefente, norbaitek, komunista nai-zela!?!).

1. "Baiña persona nai baduzu izan..."

Jatorriak eta inguruak emandako bereiztasunak danok daukuz. Bereiztasun orreik balioak dira; eta balioak diran ezkerro landu bearrekoak. Gure bereiztasun orretakoa dugu euskal izatea.

* * *

Baiñako asko jarri dezaizkiokegu Julen Kalzada'ren arrazoi honi. Gertaeren aldetik (USA-tara aldatu-aleman, polako, etc.) nahiz azterpen teorikoen aldetik (ikutu gabe gelditzen baita, esate baterako, balioak aldatzen doazela eta ez dirala molusko gogortuak; balioak ez direla ere zera abstraktorik, gu axolatz gaituenerako behiñepelin, etabar. Bestetik, euskera balio go dan bezalaxe da balio go erdera, ta balio go gure ahale aldean millakatxo diran ezkerro, aukera batera obligatuak ikusten gera. Horixe baita puntua, ea zergatik gauden gure kasu konkretuan euskera aukeratzera obligatuak, edo egon ba ote gauden, arrazoiren bategatik obligaturik egon). Galdera honi ez dago balio go abstraktuen mundutik erantzuterik.

Arrazoi honi, gairera, beste eskasia hau seiñalatuko nioke: hortaz, euskaldun jaio zanak ederki egin du euskerari jarraituz. Erdeldun jaio zanak, ostera, (nahiz eta Euskalherrian jaio izan) erderari jarraitu behar ote zion?

Hontaz guztiaz oraindik, hizkuntzaren eta pentsakeraren arteko loturen eta zerikusien korapilloa daukagu tartekaturik. Gogora Txillardegui-Ereño eztabaida.

2. Beste arrazoi bat dakarkigu Kalzada'k: "Gizona ez da berantzako egina, gizartearen serbitzuko baiña".

Honi lotzen natzaio ni batez ere. Azkenaldera ikusiko dugu berriz.

Izengabea

Z.A. 211 (1967, epaillak 12) niri zuzendutako eskutitz agiri bat ekarri zuen. Izenik gabe zetorren eta, dakidanez, egillea nor danaren argitasunik ez da gerora eman (Z.A.-k beste kasu batzuetan egin duen bezala). Zergatik? Zer pentsatu behar dugu idazki agiria idazten duen idazle izkutuaz? Z.A. bera ote da, ba? Baiña idazkiari giro pertsonala dario eta ez nekien Z.A. beajean ta hola ibiltzen zitzaigu-

nik... Zai nago beti, Z.A. argitasunen bat ematera dignatuko ote zaidan...

Izan dudan erantzunik luzeena hauxe da (Intxausti-ren oraingoa aparte) baiña hemen alde batera bazturtuko dugu.

Iritzira

Honekin bukatu zala esan ditekete gure eztabaida. Unamuno'rekin uztartu nahi ninduen **Iritzira**'ren pasadizoko hitz batzuek agertu ziran geroxeago (4). Ba dakit ondotox **Iritzira**k ez zuela merezi eman nion errepikarik. Berak ez baiño beste batzuek, sekula esan ez ditudanak bizkarreratu nahi zizkidaten izkutuko gautxori batzuek, mezeztatkoa eraman zuen, batere kulparik gabe.

Garbian utzi nahi nuke: ezagutzen nauen San Martin adiskideak ez ninduen bere erantzunean ifiun ta ifiola Unamuno'rekin berdindu (eta banindu ere). Haren lanaren akaberan, aitzitik, arreta hobez irakurtzea komeni litzakean ohar bat eransten zuen. Hala ta guttiz ere San Martin'en hitzetatik zillegi ez dana atereaz barreiatu da, ezpairik gabe, unamunista naizelako hautsa. San Martin adiskideak ederki erantzun zion, noski, eta Unamuno'ren beraren hitzetan orpoa finkaturik, gaiñera, puntu honetan Unamuno'ren antzeko ez dan bati!

Nire errepika ta nireari Imanol Laspiur'ek emandako erantzuna Z.A. 217 (1967, jorrrailak 23) eta Z.A., 221 (1967, lorrrailak 21) begira ditezke.

Paulo Iztueta (5)

Iztueta ez dago ifiorekin ados. San Martin'i egindako lan batean ari baizaigu, haren aportazio baliosak goratzen ditu. Nik ere eskertzen ditut.

"Baiñan zer dan izkuntza ta zer bere betekizuna gizonagan, gizar-teagan... au ez deritzait egun batean eta artikululu bitan egin litzeken gaia denik... Izkuntza gizonaren izatezko espresio-bide bezela artu ondoren, orduan galde genezake lenengo iturrian: **notakoak dira izkuntzaren eta gizonaren alkarren arteko artu-emanak**... Erantzun-

(4) Cfr. Z.A. 215 (1967, jorrrailak 9)

(5) Cfr. Z.A. 222 (1967, lorrrailak 28)

bideak askotariko izan bide ditezke, ots, soziologoak, sikologoak, izkuntzalariek, metafisikuek... ba lukete parte... Zailla da benetan prolema, arras zailla, zailla den bezala lurraren bestakaldetik gizonak bizi direnentz jakitea, etc.”.

* * *

Prolema erreza ez dalakoarekin inguratu gatzaizkion gehienok konturatuta geundean, honezkero. Erantzun akabaillarik emateko gauza ez bahaiz ere, motell, planteamentu zuzenago baterako behintzat lagun dezaigukek. Zor diguk laguntza hori. Jarrita baizeukagu, nire ustean, desegoki xamar jarrita, gure prolema. Zai hagokit orain JAKIN'en

Gabriel Aresti

Z.A. 224 (1967, jorrrailak 11) gai honen inguruan oraindik. Aresti adiskideak ezpatazo batekin ebaki zigun korapillo gordianoa:

“Jose Azurmendi fraile gazteak munduko injenuidade guztiarekin galdetu zuen: Zertarako euskaldun?... Tabu bat ikutzen zuen nere lagunak”.

“Eta ifior ez da ausartu egiarekin erantzutera. Zertarako euskaldun? Baiña, gizonak, zergatik ezkutatu nahi dugu guztiok daki-guna? EZERTARAKO EZ”.

Xabier Lete (6)

Xabier Lete'k nire planteoaz idatzi duela pentsatzeko arrazoi zuzenik ez daukat batere. Jeneralean esanda, Lete'k denok (eta nire iritzirako ez dugu planteo berdifia egin denok) batean kontsideratzen gaituela dirudi. Izenemaille komun bat salatzen digu: “Problema planteatzeko era ta bere diskusioan erabili diran arrazoiak franko

(6) Egitasunaren amoreagatik, esaten dugu hemen Azurmendi'ren Xabier Lete'ri erantzuna sintetizatu egin dugula. Bere artikuloa igorri zigunean, ez zekarkian ezer X. Lete'ntzat (nola ekarriko, orduan X. Lete'rena argitaratu gabea bai zegoan Z.A.-n) Gero, Azurmendik eraskin luze bat (sei forrialde) igorri zizkigun X. Lete'ri erantzuki. Guk ordea, halabehartuak, ezin izan dugu osoki argitaratu eta zintzokien sintetizatzen saia gera. (Zuzendaritza'ren charpena).

bidegabeak iruditzen zaizkit eta idealismo ahul baten estiloan inspiratuak". Haren arrazoa: "zeren-eta 1967-an "euskaldun izatea zertarako?" eta beste horrelako galderak egiten astea, metafisikako laño urrutietan abiatzea da". Nik, ordea, ezetz uste dut.

1. Nik ez **nuen** nire artikuloan **izanaren** zergatiko-zertakoez galdetu, irauteaz baizik, superbizitzeaz, burrukaz, ekintzaz... eta zentzun honetan izateaz.

Hau **metafisika** dala diozu. Zuk **metafisika** diozun tokian, oker ez banabil, beste norbaitek plazer haundi batekin **alienazio**, **burjeskeria**, **kasuistika** idatziko zuen. Hitz ikaragarri errexak ahotik jaulkitzen!

Nik ez dut uste **alegiñez** galdegitea absurdu ta metafisiko denik. Orain, izana abstrazio bezala kontsideratu nahi bada...

2. Xabier Lete'k egin duen planteoa ta, bere esate hutsetik atera ditekenez, absurduraino eraman ditekete. Voluntarismo honek ez luke neretzat batere zentzunik.

Bestela berriz, indibiduotasunaren mailan (nahi izatean) jarritako planteoaren zillegitasuna ta balioa alde bat utzirik ere, planteo modu hori arrotz gelditzen zaio nire asmoari, berebat arrotz nik ezagutu ditudan euskera abandonatzeko eman ohi diran objezio eta arrazoi konkretueri: hoek baizeuzkan nire asmoak bixtan.

3. Nire ikuspegia hau izaki ta hoek nire axolak, konprenituko dalakoan nago zergatik planteamentu honetan ahalegin guztiakin enpeñiatzen naizen. Berezko da, halare, planteamentu hau jartzearekin ta eustearekin eta honetatik ezker bestelako zenbait arbuatzearekin ez ditudala ñola ere beste planteoak total desestimatzin. Izan ere, bestelako planteamentu baten perspektiban zeharo ados nengoke Yntxausti, Xabier Lete ta abar adiskideekin. Baita Igara jaunarekin ere (cfr. JAKIN 24, hor. 1-7).

4. Xabier Lete'k bere artikulo atsegiflean dakarren beste prolema, alegia, euskalzaletasunak beste obligazio zozialen batzuek zapaltzen ote dituen hala ez, laburki ikutuko det nik ere.

Ez euskalzaletasunak (berez, abstrakt esanda) ezpada euskalzaletasun ERA batzuek giza eskubide askotxo sakrifika ditzakete. Interpretazioak gora behera, **factum** ukaeziña dala hau uste dut. Baiñan berex dezagun: era horiek aldagarriak izatez gañera (beraz, erauzterakoak), behin baiño gehiagotan BEHARREZKO da giza eskubideek elkar sakrifikatzea.

Xabier Lete'k aipatu besterik egin ez duen puntu honek ere merezi du agian azterketa sakon bat. Eta, beharbada, Xabier Lete'k berak egin dezake hori ederki batean, prolema horren sutondoan bizi dan ezkeru.

* * *

IZAN-JAIO

Asko irauli duk binomio hau gure eztabaidan.

Izatea —gu edo norbait, baiña ez derrigor geu— premisa premiakotzat zeukat nik. Izan ba dan baliogo baten alde ari gaituk euskaldunok, euskaldun jaiotako hala ez; norbaitek dagoeneko gauzatu daukan baliogo baten alde, eta baliogoa norbait horri (euskal herria) ifork ken ez dakion. Ez gabiltzak ba, geuk ames eginiko baliogoren atzetik. Ealiogo baten alde ta herri baten alde, hau duk puntuzkoena niretzat hemen.

Nunbait izatea premisatzat daukadala esaten nian. Izate hau baliogo dala ere (alegia, euskal izatea eta gure hizkuntza: baiña gure ahalegiña ez duk hizkuntzaren aldekoa soillik) axioma tinkotzat hartuko diagu, zenbateraiño eta zein kondizioetan baliogo izatea galduko lukean ezertarako gogoan hartu gabe (gorago aipaturiko eztabaida behin berriro gogoraturaz, halare).

Sentimentuek, eta ez arrazoiek, **eragiten** dutela ekintza, orobat, ez zaidak ifioiz holakorik ukatzea bururatu. Baiña gauza bat duk eragillea, beste bat justifikatzailea. Gure sentimentuek justifikazioa behar diate, ez baituk edozein, ezta helburu zintzo batenganako irrikitzen dagoen sentimentu nobleena ere, beti ta beste gabe txalogarri. Justifikazioaz galdegin eta galdegiten diat nik.

Behin gure jokabidea justifikatu ezkeru pasa gintezkeek aurrerago, asmoaren nahiz helburuaren goitasunari begiratzera.

Euskaldun jaio izateari (hots, ekintza euskaldun jaio izanaren logikan ezartzeari) indar erabakigarri determinantea aitortzea geure buruaren kontrast aurkitzen diat eta —egia esan, nire usteko egia behiñipehin— ezta arrazoi ere ez diat kausitzen. Ba zirudik, hire hizenkide Yntxausti bat, adibidez, irakurrita, gertaera itsu horrek jo ta erabaki zuela betiko gure bizitzaren martxa derrigorreko ta ezin

aldatua. Eta nork uka alde askotatik gertatzen danik? Beste makifia batetik, ordea, nik uste, ez da holakorik gertatzen. Ezta gertatu beharrik ere, norberaren baliogo zenbaiten txikiziotik buruhiltzeraifio, edo guztiz miserable dotaturiko naturaleza doai apartekoz ornitzeraifio ibil baizitekek gizonaren askatasuna. Ez nizek iritzi hura, sentimentuari agiri dion egiazko estimazioa onartu ondoren, bere logikan zorrotzegi estutu nahi. Suizidiora eramango gintzakeala iruditzen baizidak, edo ta, gutxienez, tradizionalismo gogorrenetakoaren iturburu bihurtuko litzaigukeala. Gaurko egberari, gure hau ta hola izateari, **status quo** tristeren bat deklaratu nahi baldin bazioagu, berriz, nire hasierako asmoetatik urruti, oso urruti gero, gabilzazik honezkero.

Jaiotzak erabakitako martxa itsua jarraitzea ez duk inkestek azaltzen digutena besterik eta hilleta martxa diagu hori.

IZAN-EKIN

Zer egin behar duz lur honetan nire bizitzarekin?, galdetzen hasten dan mutil koskorrari agertu hiok dagoeneko baliogo sail bat. Sekula gauzatu ahal izango dituenak baiño milla gehiago. Hoen arteko aukerak bortxatzen dik, orduan, ekintzaren hasiera norberaren neurritasuna aitortzea diagu-ta. Aukera hauxe duk bokazioa (ez noski frailletarakoa bakarrik!), guri ez zaiguk Espiritu Saindurik agertu, ez Boezio'ren zazpi ta gehiago musarik.

Gizartearen ta gizarteko sorkari geran ezkerero ez zeukagu balio guok izarretatik, geure nahikunde banalari entzunez, erasterik. Gizarteari zor gatzazkiok. Alegia, baliogo zenbaiten gauzatzea, geure haragian haragi egitea, zor zioagu gizarteari.

Guk eskubideak dizkiagu (indibiduok): lanegiteko, maitatzeko, euskaldun izateko, etc. Obligazio bat zeukak gizarteak gure eskubide bakoitzaren aurrez aurre. Alderantziz ere, berebat, maitatzaile, langille, euskaldun etabar eukitzeko eskubide dik gizarteak. Eta norbaitek konkretuago, baiña denok nolabait, eskubide horiek erantzuteko ta konplitzeko obligazioa zeukagu. Nork eman dio gizarteari holako eskubiderik? Ez zekiat. Naturelezak sortu diola esango dik filosofiaren batek, kondaira

omen dala emaille urrengo edozeiñek. Datu horren aitortzan filosofia zozial gehienak konforme dauz-kagula esango nitek, iturburuaren azalpenetan des-berdin maillatuak ditugun arren.

Eskubide-obligazioak indibidualismoaren hesitura barnean uler-tzea zeharo erratutzat zeukat nik. Gizarte ta pertsonaren arteko hartuemanen dialektika kristaltzen eta araubihurtzen (eskubide obli-gaziozko ez diran hartuemanik ez baituk falta gizartearen eta per-tsonaren artean) zizkigutek eskubide-obligazioek. Ikasteko dretxo ba diat, obligazio ere ba zeukat noski, zeren eta gizarteak bere aldetik ikasiaren eskubidea kobratzen baizidak.

Horra zergatik idatzi nuen (eta honekin nahiko argi uzten dudalakoan gelditzen natzaizue): "Nik, marxista izan gabe, ez ditut oso ongi konprenitzen obligazioen luze-zabala berdintzen ez dituzten esku-bideak. Kapritxoak sortzen dituen —edo ofiarritu, nahi bada— eskubideak ez dute batere balio".

Bere ahalegin guztiekin nahiko balu ere, ez diat uste ez bere nahiak ez ezerk, esate baterako, gizonari elefante izateko eskubidea justifika dezaiokeanik. Bestetik, aldiz, horixe egin nahi badiagu euskeraren alde jokatzeko eskubiderik ez ziguk zentzun sanoko ifior-k ukatuko, intres zitalez ez baduk behintzat.

Ikusten dukenez, oso gutxi galdezen diat nik euskalzaletasuna eder ote dan (hori hain erlatibua izaki), hala nolabait txalogarri (filo-logo baten kasuan izan leikeana, baiña ez horregatik, gurean, beste-lakoa duk gure kasua eta gure nahia ere bai), hala eskubiderik ote dugun, hitz hau korriente ulertzen dan gisan behiñepehin. Horrek guztiak ez nau ni —oraingoz— arduratu, hori ez dala hasiera zeriz-kioat-eta, eta hasieratik hasi nahi bainikek.

Eta horregatixe ez diat galdetu ere sentimentuez.

Guk gauzatu ta gizarteari eskeiñi ahaleko baliogoak gutxi-asko, asko baiño hobe gutxi, diralarik ba, aukeratu egin beharko diagu. Eta ez geure gustoaren harabera, ez bakarrik behintzat, seiñalaturik. Zerk seiñalatuko ziguk, orduan? Baliogoen primutasunak, gizartearen premiek, geure ahalmenek, bizi geran ingurumariko baldintzek... nik al zekiat! Horixe ere elkarrizketa honek argitu beharko ligukek. Ba zeukagu zer egiña franko guztiontzat ere. Justizia egin behar

zizkiegu guzti horieri. Justizia egite jeneriko honen azpian objeto, arrazoi ugariak idoro genituzkek orduan euskeraren alde. **Eta aurren aurrenik, herri bati zor zioagu justizia. Gure eskubideak kobratzen dizkiogun herriarekin justiziazko obligazioak gelditzen zaizkiguk zorretan.**

Erantzun egokiren baten oinarrriak zedarritzen ari natzaik (hala uste behintzat). Erantzun zihurrik jakin banu tesi bikain bat idatzi izango nian, ez galderarik.

AMA EUSKERAREN MITOA

Literatura ugaria egin diagu ama euskeraz, amaren hilzoriaz...

Farregarri utziko al diagu literatura hau guztia? Nire asmorik ez duk hori. Nik ere sentitzen diat euskera eta gure herria eta gure lurra bera. Sentitzen dizkiat eta ezeren gainetik maite ere.

Baiña literatura horiek guztiak, beste hamaika asmotarako aproposak ditugula ukatu gabe, eskuartean dakargun auzi honetan bixtatik ahal urrutien nahi nituzkek jakin.

Hilzorian dagoen amak eskubide oro dituela, kontrajarriko zaidak. Holako hizkuntzarik, ordea, ez diat nik ulertzen. Sinbolo bat printzipio bihurtzen ari gaituk horrekin, inolako arrazoiketetan diagu hori zillegi (Eliza ama, aberri ama ta antzekoekin oituratxaharturik aski gaudek bai, bestela ere. Baiña ez diagu langille klase ama, esate baterako, sekula entzungo. Ni halare, irudituak hartua negok herriak klase bihurturik dauzkagula).

EZINBESTEKO IZANEAN IRAUN BEHARRA

Kate honek kateiatuta gauzkala esango litzakek. Gu, izanari este-katu Prometeuok! Baldin eta bagera, onartu gaitezen geran bezala, euskaldun jaio gintuzten ezkerro (eta baimenik gabe, areago!). Zergatik euskaldun izan? Ba geraldakoxe ez bestegatik. —Holakoak osteratu zaizkidak eta hori egia dala —egiaren mailla apaltsu xamarrean, nire gardiz— egunaren argia duk. Azter dezagun puntu hau apur bat, hemen.

Zer ote duk euskaldun izatea? Zoro joko duk galdekizun hau eta ba leikek izatea, baiña iku dezagun, euskal folkloreaz etabar izan ditugun eztabaidaren batzuen azpian hauxe dagoela iruditzen baizaidak.

Gure aitak baliogo konkretu batzuek gauzatzeko posibilidadeak ezagutu zizkian eta hoetako batzuek burutzen erre zian bizia. Langille goiherritar edozein bezalaxe, bere bizitza guztian euskaldun **izan** zian, euskalzale izan gabe. Arana Goiri'k beste posibilidade ta bes-telako baliogoak gauzatu zizkiguan eta euskaldun (bilakatu) izaki ere, ta euskalzale, erderaz agertu zizkiguk bere baliogo zenbait (kon-denatzen ez ditudan arrazoiengatik). Beste baliogoak gauzatu nahi izan zizkiguan Unamuno'k eta euskaldun izanik eta izaten jarraiturik (bixtan zegok, honezkero, euskaldun hitza ekiboko diagula), erderaz jardun zitzaiguan ia beti eta ez diagu apika gure hizkuntzaren la-guntzaille fiñena huraxe izan. Haren borondatea zanagatik behintzat. Konta Kanpion ere. Zaragueta'k eta Zubiri'k erderaz eman ziotek beren ordaiña gizarteari, euskaldunak omen dizkiagu. Mixiotara doa-kigun hainbeste euskaldunek guaraniz, japaneraz, ketxuaz gauzatuko zizkigutek.

Ez ote zegok honen guztien artean zedozer diferentziatu beharrik?

Korrientea duk honoko hau ere: herri baten agerpenak era asko-tako agerpenak zeuzkak. Nor **sentitzen** zaigun sekula baiño eus-kaldunago txistu, ttuntun, txalapartarekin. Eta txistua zabalduz la-guntzen zioek Euskalherriari. Nor hizkuntzari emana dagokigun, txis-tua entzungo balik, nahiago izango likek urte pare bat purgatorioetan. Abizen **garbiaren** kontuak lehenago ere kritikatu izan dituk gure artean, etc.

KONZIENZIA

Berehalaxe esan nahiko didak: ezjakiña zegok tartean, konzien-zia falta, hortxe zegok kakoa.

Bai, moteil! Horixe nahi nian, horretarakoxe jarri dizkiat adibide guzti hain desberdiñok batera nahastuta.

Beraz, konzienziak egiten ziguk euskalduna (gure perspektiba honetan, jakifiña; beste perspektiba batetik, naturalezak eta gizarteak egiten dutela esan zitekek, eta hori ere egia duk). **Ez berak bakarrik, agian, errealidade gauzako baten gafiñean finkatu beharko baitik konzien-ziak ere.**

Gure egunotan, geroz eta gehiago, erabaki bat me-riante gelditzen gaituk euskaldun (ez vascon edo vascon-

gado edo vasco holako zerbait). Erabaki hau ez dutenak porru batean zeukatek gure hizkuntza. Euskera galbidean jarri digutenek, semeari dotriña euskeraz irakatsi nahi ez dioten guraso horiek, esate baterako, genozidio bat ko-metatzen ari zaizkiguk (munduko borondaterik onenarekin sarri)... ez diate bere buruaren konzientzia zuzenik, "bas-queitas" akzidente honenik ez duten ezkeru (Yntxausti'ren esakeraz baliatuz).

Izate soilla, euskaldun izate materiala jaiotzak ematen ziguk (bei bati olandres edo suiza izatea eman zion bezalaxe). Baiña giza-kumearen maillan gaudek- eta, euskaldun nor-asuna, nortasun honen konzientziak ematen zio kristauari.

Eta hi ere, Joseba, ez gurasoek, ez lagunek, herriak emandako euskerak, ezpada horietxengana euskeraz itzultzeko erabakiak (honen onderiozko ekintzak, sakonago finkatuz) egin hau euskaldun. Alegia, ez euskera jakitearen errealidadeak ezpada errealidade hau aktibatzeak. (Eta euskaldunarentzako aktibatuko duk, ez txinoaren-tzako).

Erabaki hau hartzea indar askok eraman gintzazketek: politika baten kontrako erreazioak, edo beste baten aldeko oportunismoak, hala tradizionalismoak, hala utilitarismoak (gutxiagotan!), maku-rrentxoena bakarrik aipatzeko. Nobleagorik ez duk falta: Gurasoen-ganako maitasuna, abertzaletasuna, norberaren nortasuna zabaltzea, justizia nahia, etc.

Erabaki hau hartzea indar askok eraman gintzazketek: politika kondaira zehar: protestante, katoliko, apaiz, "apostata" (!), politiko, sindikalista, burjes, komunista etabar. Deabrua bera ere saiatu omen zitzaiguan euskera ikasten, alferrik ordea, ta Arantzazu'ko Ama Bir-jifiak euskeraz hitzegin omen zian Zugarramurdi'n, —dudarik gabe zeruetako ikastoletan infernukoetan baiña irakasle antzetsuagoak dituztelako... Zer demontre pentsatuko diagu indibidualismoaren maillan hoeri guztiori arrazoi batbera ta berdifiak eragiten zienik! Nik ba, ezin diat ondo ulertu zein zentzun duen euskaldun zertarako galdekizuna indibidualismoaren maillan jartzeak: euskaldun bakoit-zarentzako artikulo bana beharko genukek, gutxien gutxienez.

Kasu bakoitzak eragille desberdifiak. Bakoitzak zekiagu, illun hala argi, zergatik nahi dugun euskaldun (hemen euskalzalerekin berdin zezakeagu, nire lehenengo artikulotik honera arte **ekiten** duen euskaldunaz ari bainauk beti), indibidualismoaren planoan, eta eragi-

learen planoan (justifikazioarena besterik izaki, askotan behintzat. Ez beti, etor zitezkek batera).

Zertara zijoakiguk erabaki hori? Indibidualismoaren planoan, berriro, bakoitzak jakingo dik: era askotariko ondorenak euskeraz ere, hedozein hizkuntzatan bezalaxe. Baiña jeneralago begiratuta, ezaugarri komun bat agiri ziguk, alegia, euskaldun-kera ezartzen zioz zernahi jarduni, hedozein ekintzari. Hizkuntza, aurrenik, esango diagu, eztabaida honetan gehienok puntu honi lotu gatzazkioken ezkerero. (Arana Goiri'ren kaso batean, adibidez, euskalzale izanik ere, ez zian beti holakorik gertatu, ikusiko degu geroago zergatik).

Hizkuntza, berriz, gizartearekin, lagun urkoarekin hartuemateko degu (Engels'ek gehiago esango du: lagun urkoarekin aditu beharretik sortua dala). Gizarteari nahiz gizarteagandik, ematekoa euskeraz hala erderaz eman, edo ta hartzekoa euskeraz hala erderaz hartu, ba zegok alde ederra.

Zerk erabakiko gaituk gu bateren hala bestearen hoberiztera? Makiña bat zerek, bai, halajainetan. Zein baliogo gauzatu nahiak eta ahalak, **nori** eskeifiko diogun nahiz dezaiokegun baliogo gauzatu hau, etc. Honen analisiak emango ligukek zergatik eta zertarako euskaldun horren erantzuna.

Kasu guztiotan presente dagoen zerbait ba dala uste diat: euskeraz mintzatzera gaituena, euskaldun jendeari zerbait eman nahia (edo beharra) duk. Euskaldun jendeari lehenik, honen bitartez, besteeri. Gure kasua ez duk hizkuntza hil batena, judeguez izan duten bezala. Euskera bizi duk, hor zeukagu euskaldun herria ta **HORRI** eman nahi zioagu zerbait. Ez zioz ardura, nire ustean, ezertxo ere ni neu euskaldun jaioa al naizen hala ez. Hau duk, nire ustean, puntuzko puntua: jende horri. Nik ez zekiat indibidualismoaren planoan (edo subjetoan) Aresti'k, Txillardegik, etc. zergatik euskera ikasi diguten, seguru asko arrazoi diferenteak izan zituztek. Baiño plano zozial honetan euskaldun jaioa naizen honekin ba diate arrazoi komun hau: euskaldun herriari mintzatu bai zaizkiok.

Alemanekin aleman hitzegiten diat, gaztelarrekin gaztelera, italianoekin italiano, ta ez nintzean holako jaio. Zubiri euskaldun jaio zian, eta euskaldun izango duk agian eta sentituko ere dik bere

burua (ez zekiat), baiña ez zioz jende euskaldun horri eman nahi izan bere lana.

INTXAUSTI/REKIN

Hirera bihurtuko natzaik orain (cfr. JAKIN, 25).

"Atzerrian, erdaldunen artean, nik ez diat neure burua euskaldun-beharrean sumatzen".

Ezta nik ere. Niretzako berezko oñez zetorrek hori: ez diok katalanari euskeraz hitzegingo.

Arana Goiri erderaz mintzatu huan makifia bat aldiz; ez diat uste iñork Barakaldo'ko langilleeri Marx alemanez irakurriko dienik; hik eta nik ez diagu Biblia griegoz nahiz hebreoz predikatzen.

"Neri, herbestek ez zidak sorterri-miñik sortzen", (hor. 3).

Niri bai. Eta zer?

Ezin sortuko dik ere sorterri miñik, ez euskera miñik, euskal jendeari zerbait eman beharra ez duken artean. Baiña hagon Barzelona horretan iñoiz goiherritar kanbionerorik topatu baduk, ez zekiat miñarekin hala gabe, baiña euskeraz mintzatu hintzaion noski. Euskal **jendearikiko** miña duk, nire ustean erabakitzaile.

Hire sentimentu hori jeneral xamarra diagu, ikasleen artean behintzat. Ez dala euskeraz mintzatzeko erreztasunik, edo ta dana dala, zertarako behar dut euskera? —galdetu ohi duk. Galdera hori absurdo izango duk, zentzungabe, ta nahi dukena. Baiña errealidade kaltegarri bat diagu Euskal herrian, hortixe joaten zaizkiguk hamaika gizon eta indar, eta hori aztertzea gure obligazio zala pentsatu nian nik.

Hik agiri duken sentimentu horrek eta askoz gehiagok tarraka daramaten berdifiak (nik erantzun bat eskatzen niona), beste galdera hau pizten ziguk: nor zegok euskal herriari euskeraz mintzatzera obligaturik? Zeren-eta hor baizegok herria (gizartea), personak sortzen dituen herria, norbaitek eman beharko zioz herriari konferentziak, eskola, nobelak, artea, musika, eta guzti hori herriari dago-kion eran (eusk-eran).

Ez natzaik honetan luzatuko, prolemaren bihotz-bihotzean gauden arren. Denon artean puntuok borobilduko ta osatuko al dizkiagu.

Atzera hirekin:

"Hire galdera "kaltegarria" ez duk hik asmatua: hik eta nik ta beste hamaika euskaldunek beregan eta beren ahotan darabiltena baizik" (hor. 3).

"Galdera hori kaltegarri gerta dakigukeala? Segun nun eta nola egiten dugun; segun nola aztertzen dugun..." (hor. 4).

"Ba litekeek galdera hauetarako lekurik egokiena aukeratu huana ez izatea" (hor. 4).

Konforme. Mea culpa.

Analisi berri batekin jarraitzen duk.

EUSKERA HALA ERDERA?

"Euskaldun izan eta iraun izankizun gogorra ta, askorentzat, gogai-karria duk... Gizonaren euskaltasuna nahiz erdaltasuna haren gizaera "betetzeko" dituk... Jatorriz euskotar ditugun aunitzei (ta herbesteratu batzuei) beren gizaera erdal-giroz mardulkiago osatuko ez ote dutenaren zalantza sortzen zaiek hor barruan".

"erdalduntasuna erosoago duk "geuretasuna" baiño"...

Mintzabiderik, pentsabiderik eta sentibiderik izan dezadan, nere "nitasunak", ez dik euskera-premi sentigarririk. Izpiritu-barnea jaulkitzean, erderaz hitz-bide zabalagoa aurkitzen diat eta neregan daramakidan bizia samurrago ta libreago ematen, beraz".

Milla ta bat esker zor dizkiat. Ez noski hori sentitzen dukelako, sentitua aitortzen dukelako baizik. Nik uste, euskaldun eskolatueta-ko proportzio haundi bat zeukagu horrelaxe, erderaz mintzatzeko hitz-bide naturalago, errezago behintzat, daukalarik.

Neuretzat ere halaxe duk, zenbait gaieri buruz mintzatzeko garaian (ez nohiznahi). Usadio falta duk noski horren sustraia. Dana dala, gaurko istante honetan, guk euskera dakigun eta erabiltzen dugun einean euskerari erdereri ez bezalako gunea gustatu ezin diogun asko gaudek, zeren-eta katoiarekin hasi gifañ ezkeroko kultura gehien-gehiena —ta kulturarekin pentsamentuaren mardultzea— erderetan iruntsi baitiagu. Hoek honela baldin badituk, ba, eta gure prolema indibidualismoaren maillan jarri nahi badiagu, jende gutxi aurkituko diagula uste diat eskolatuen artean euskera erdera baiño hobeto ta atsegiñago, edozein gaitarako, menderatzen digunik. Hortatik zetorkiguk kultura gai bat ikutu orduko euskaldun gehienok buruz behera erderetan amildu-behar ukatu ezin eta hamaika aldiz salatu hori. Eta zer, ez dakigula euskerarik, aski ta erosoago zaigula erdera ta abandonatu egingo al diagu euskera, hots, euskal herria?

Planteamentu indibidualista (ego-ista) batean egiña zeukagu au-

kera: erdera. Jeneralki. Eta erosotasunari jarraiki, horixe egiten ziguk makina batek.

Horrekin, hau ere egia duk, gure doai bat desestimatzan eta alferrikaltzen diagu. Balioak, esan zidak Julen Kalzada'k eta ni konforme, landu beharrekoak dituk. "Jatorriak eta inguruak" emandako baliogo hoetakoren bat osotu gabe uzten badiagu ez gaituk persona oso, erabili ezak eskubia fiantzartzen baziguk maingu gifaiketan gisa berean. Egia hutsa hau ere. "Jatorriak eta inguruak" ezkeifi dizkiguten balioen artean, ordea, gure kasu konkretuan, hor zeuzkagu erderak ere. Jatorriak euskera eman zidakean eta gizarteak (neure gizarte euskaldunak besterik ezinda) geztelera, latin... eta milla tximista eskeifi ta esijitu zizkidak, neure burua haiekin baliatuki osatzera behartua ikusi nauk urteok zehar. Horixe eman zidak "inguruak" eta niri bezala gehieneri, ikastoletan minoria koxkor bat dabilkigun artean. Ezin landugabe utzi genizkian balioguok, derri-gorra izan diagu lege-ta. Hortaz kanpo, ordea, eta errealdadea hori diagula kontaturik, eta ezeren aurretik individualismoaren intresak jartzen badizkiagu, zer dala-ta hobetsiko nioan jatorriak emana inguruak eskeintzen zidanari? Ze, hau ere bixtan dagoela zerizkioat, hots, baliogo gehiegi lantzeko eskastxo dirala gure ahalmenak. Gerezko ajea diagu ezinbestean nahiko maingu gelditu beharra ta horixe duk gure bizitzako eginkizun azkengabea: geure burua burutu. Ez ahaztu, gaifera, bilinguismo inperfekto deritzanaren okerrenetakoa dala gure kasua. Euskera ez zegok zabalero egoki batean menderatzerik propio horretaraxe jarri gabe, eskola faltatik hasi eta ez zekiat noraiñoko kondizionamentu txaharrean aurkitzen dalako. Beraz, euskera abandonatzen digutenek baliogo bat abandonatu diate, segurutik, baiña beste bat hartu. Nekez proba zitekek hobea zala, berez, abandonatua, irabazia baiño.

Hemendik aurrera jokatzeko kriterioa zerau dalakoan negok: alegia, mintzatu nahi gatzazkion herriarena. Euskera abandonatu gabe landu behar ditugula erderak esatea, igesbide bat duk nirezat: euskerarik ahazten ez diat uste ifior apropos enpeifiatzen danik. Baiña besterik egiteko erabaki sendo batek eusten ez dion euskalduna, bere karrera bukatzen duenerako, hizkuntza argal deusez batekin aurkituko duk gaurko gizartean. Gaur gauzak dauden bezala, gure estudiantek euskeraz jakin nahi ba-

diat txino ikasi zezaketen denpora batean euskera ikastera obligatuak zeuzkagu. Hortxe jartzen duk jeneralean galdera, hortxe zegok aukera beharra ere-ta.

Indibidualismoaren eta bakoitzaren intresen bidetik egin behar balitz aukera, jaio izanak eta sentimentuak gora behera, gutxirekin geldituko gerala bildur nauk. Nire aburuan, ordea, ez duk hori bide zuzena (norbaitzuentzat bai, izan zitekek eta ba duk, plano biek, indibidualistak eta zozialak, zorionean bategiten dutelako: San Martin, adibidez; euskalduneri mintzatu nahi duen batean aurkitzen zioek euskerari gune berezi bat. Gutako gehienentzot, aldiz, konflikto baten elkarburrukan presentatzen zaizkiguk bi planoak. Eta burruka honetan euskeraren alde erabakitzen badiagu ez duk, gehienetan, euskerari berari ezer berezirik —guretzat!— aurkitu diogulako, **euskaldun jendearen aldeko erabakiaren** ondorengo bezala baizik). Beraz, guretzako, jaio gerala ta nahi badugu eskubide dugula ta abar mundu abstrakto irreal besterik ez duk, ez dalako hori gure galderaren lurra. Erderara doazkigun gure ikasleek ez ziotek ñori ukatu ohi euskera lantzeko eskubiderik, nahi izan ezkeru. Baiña horietako gutxi konprenitu ziguk gure erabakia; askok diskutitu, ordea.

Atzekoz aurrera bazeukagu puntua, kostako zaiguk bertsorik osatzea. Bai hizkuntzez baliatzekoan, bai baliogoak lantzekotan, nire gardiz, gizarteari begiratu behar zaiok, gure lana ta bizitza eramango ditugun gizarte horri. Nire bizi ta lan guztiak Txina'n egiteko balira, hobe izango diat txinera landu, Txina'ko jendeak horixe eskatuko zidak-eta.

Baiña, Jainkoa lagun, gure gizartea Euskal herria izango diagu.

HERRI BATEN BIZI NAHIA

“Zer egingo diat, beraz, egun batez eman zitzaidan hizkuntzarekin?” heuk jakingo duk. Galdera bueltatzen diat: nori mintzatu nahi hatzaio?

Egia duk amak euskeraz erakutsi dikela bere bihotza. Ba leikek egunen batean norbaitek beste hizkuntzaren batean egitea ta hik, orduan, haretzen hizkuntzan agertuko (edo izkututuko) diok. Amari hitzegiteko euskera erabiliko duk. Baiña amari hitzegiteko ez heun-kan euskal aditzari tripak atera beharrik batere. Euskal gizartearen serbitzurako behar huen hori, ordea.

Euskal herrian jende esplotatu asko zegok. Bat euskalduna, bere

izpirituan despojatua. Langille ginoan esplotatua danean, doble despojatua. Gutxi sentitzen diagu lehenengo despojoaren injustizia, minoria bat gaituk.

Izan ere, "kuixtio zozialak-eta" oso modan zeukagu eta modan zegok ere protesta zoziala ta ezkertiar izatea. Kuixtio zoziala, ordea, guk asmatu dugun bezalakoa, gure fantasian asmatzen ditugun koprojillo ta goibehekin, ez errealidadean ikasia. Che Guevara, berriz, alegia, "profeta" ez duk hizkuntzez arduratu: ta horra nundik nora gure mutil trebeak, Marx'en liburuetan orientaziorik aurkitzen ez dutela-ta, noragabe dabilzkgun. Urrutitik ere alienazioa zer dan igarri ezin duten horiek! Gizonaren esplotazioa jornalean eta honen eskasean (edo ta esistentzian bertan ere, nahi baduk) balego bezala.

Eta hor zegok euskalduna, kulturaren aldetik prakajario negargarri bihurtua, batzuen zitalkeriak eta besteen abandonoak larrutua, trapuzar bat eginda, edozein enplegaduren parrerako, billetea ateratzeko berea dan eta dakien hizkuntza bakarraz baliatu ezinda. Euskera abandonaturik beste nitasun bat jatorrizkoaren truke hartzea sentitzen ez al dudan galdetu zaidak, eta ez diat sentitzen, ez zekiat hori zer izango litzakean, baiña beste goiko hori, euskaldun hori, sentitzen diat eta nola.

Hor jaio gaituk, Joseba, ta hemen bai, asko esan nahi dik nun jaio izanak, nire ustean. Ba zekiagu injustizia hobe dagoela baztar gutietan ere aide garbia baiño ugariago, baiña —beti nire ustean— injustizia etxean dagoenean etxeko injustizia ahaztu ta beste berrien billa joateko behar dizkiagu aukera honetarako arrazoiak. Hanartean emana zeukagu aukera, hots, baliogoa, lana, eskubidea ta obligazioa. Ahalmena nork duen bakoitzak ikus dezala.

Gure kasuan, euskaldun gehienon kasuan, injustizia horretzek zanpatu gaituk eskolara hasi giñan lehenengo egunetik Unibersidade billa atzerriratu geran egunera arte. Injustizia horren kontra justizia min apur-apurtxo bat bederik duen edozein erreboltatu behar litzakek, euskaldun jaio hala ez, eta gu iñor baiño lehenago ta gogorrago. Eta hemen ere arrazoiak eman behar dizkiagu: zergatik guk besteak, ez-euskaldunak, baiño gehiago. Hemengoa argitzea erreza goa izando dala uste diat.

Kontuz, Joseba! Injustiziaz mintzatzea arrisku bat bihurtu zaiguk gaur, edonohiz, edozertaz eta edonun beti injustiziaz mintzatzen zaizkgun norbaitzuek meriante ta komeriante. Hoentzat injustizia, beste batzuentzat neska baten irribarrea danaxe duk: propaganda. Baiña ni injustiziaz mintzatzen natzaiken guzti honetan, nire hitz honek ez zeu-

kak usadio politikoak gustora gaiferatu ohi dion kargarik batere. Gure moralean (kristauan) argitzen zaigunez, gizonari legokioken eta iritxi ez duen doai faltazko situazio oro duk injustizia. Injustiziarik txaharrena, orduan pekatua: hain zuzen, gureztat, horixe, injustizia duk pekatua (graziaren eta naturalezaren jatorrizko ordena kraskatzea, ez duk besterik jatorrizko pekatuaren mitoaren mami sakona). Hau esan ta gero, ba, ez duela inork nire hitzak ziri politikotzat ulertzeko tentaziorik izango, uste diat. Politika suberte guztien gainetik, etikak arduratzen nauk ni hemen, etikaren deadarrak.

Eta zentzun honetan, politika diferentzien gainetik aitortzen ziguk gaur hedoziefiek gure egoera injustiziazkoa dala: Nafarroa'ko Unibersidadeak, Tolosa'ko Herrietxeak, Gipuzko Bizkaletako Diputazioek, mojaren batzuek, Menendez Pidal'ek, Edukazio'ko Ministroak —euskerari laguntzera prestatzen ari zaizkigun guztiek. Euskeraren egoera injustiziazkoa dala konstatatzea ez diate horiek politika danik pentsatu —are gutxiago euskerari laguntzekoan politikak batere sartuirtenik izan behar lukeanik (...) Euskerari **guztiek** lagundu behar ziotek.

Lehengora bihurtuaz. Barzelonan gelditu nahi baduk egizak euskerarekin nahi dukena, euskaldunoi zer esanik edo zer emanik ez badaukak behintzat.

Baiña Euskalherrira bagoazik, injustiziaren kontra, injustizia guztien kontra lanegiteko joan behar diagu.

Ez jαιο nintzalako ta ez abar, ni ez nauk gaur euskaldun beste ezergatik ez beste ezertarako. Ez nauk larritzen euskera baztertzea NIRE baliogoak edo ta NIRE nortasuna birrintzea izango omen litzakealako batere. Baiña ez nitek euskera abandonatu nahi, nahiz eta nahiko neke hortatik sortuko zaidala ezin uka, zeren-eta euskera abandonatzea, gaur gaurkoz eta luzaro izan dedilla, herri bat abandonatzea duk. Beraz, niretzat, “zergatik euskaldun” galdekizun hura, “zergatik euskal herriaren alde” bihurtzen duk. Horixe, sustraietaratu ezkeru.

Eta hemen tartekotu nahi nizekikek Europa'ren etorkizunari buruzko San Martin'en oharrak, nola ere baita hizkuntzaren (euskeraren) baliogo zozial kulturalenak, etab.

Españolek za zeukatek eredu bat: Guzman el Bueno. Zera sentituko zian harek ezer semea baiño gehiago. Ez zian sentimentua segi.

Ba duk film bat, ez nauk izenaz oroitzen, errusiar nobela batetik jasoa dik gaia. Guduan zeudek bi uri ta uria inguratzen dagoen gudari buruzagiaren semea uri inguratuko buruzagiaren alabarekin enamoratzen duk. Uria asaltatzeko gaba datorrenean etsaiarengana pasatzen duk mutilla, bere kuttuna salbatzeko... Sentimentua jarraitzen dik. Urrengo goizean aitak ajustiziatu eragingo dik, eta ikusleen negar guztien arren mutil hori traidore duk.

Urlia bankero seme omen duk. Ez zioz inork galdetu langille klasearen baitan jaioa ote zan, klase honen zoritxarra sentitzen al zuen. Erabakitasuna eskatu zaiok. Eta kuraia.

Marx ez huan langille klasean jaio, eta sentitu ere, haren sikologiaz jardun zaizkigunen batzuek (agian denak, ez zekiat horixe) diotenez, ez huan taldeak **sentitzeko** bereziki dotatua. Baiña injustizia ezagutu zian eta bere erabakia hartatik hartu. Ez nahi zuelako, ezpada justiziaren esijentziek eraginda. Eta Lenin.

Jesus Nazaret-ekoa ez zian publikano jaino.

Heuk esan duk: "*Euskal-herriak, edo herri honen parte batek, ere euskeraz egin nahi dik*". Eta: "*giza-legeak, euskal-inguru guziari euskeraz egitera naramakik*" (hor. 7). Heuk berriro: "*Gizonak, ezertarako baldin badu, bere izaera modua aukeratzeko eskubide osoa dik. Giza askatasun honen alde negok, eta egongo nauk*" (hor. 8).

* * *

Aski duk honekin, adiskideok. Ba dakit auzia ez dudala ebaki ta garbitu. Laburregui mintzatu izanak-edo, prolema aldrebestu dugu, ta okerrak zuzentzeko (itxaro dudanez) gaur arte egon behar izan du. Saiatu naiz nire pentsamentua argitzen, zuek esango duzute oraingoan lehenagokoan baiño zorte hobez jokatu ote naizen.

Luze izan naiz, ia illun utziak zertxobait argitu ahal nituen. Ez dakit: milla erantzunek akosatzen nautela idatzi behar izanik, bihurri da argitasunik irixtea. Bestela ere bai nahiko. Hain zuzen, ez nuke ukatu nahi beste planteamentu batzuek ere posible ba direla. Nire esperentziak erakutsi didanetik, eztabaida askoren esperentzia, haundia ez bada ere, jardun izan naiz ni. Hortik dabiltzala uste du, nik ezaguturiko euskera abandonatzaileen zergatikoak eta nundikoak. Ez zioten euskal herriari hitzegin nahi, beraz ez zuten euskerarik behar. Eta bidezko litzake, intres personalen, hots, indibidualismoaren mailan: hik nahi duk, nik ez.

Ta hor konpon! (Hemen dauka, inñun izatekotan, Aresti'k arrazoia, hemen: intres personalen maillan bagabiltza, euskera, gehienentzat behiñepehin, EZERTARAKO EZ da. Baiña Aresti zoro dagoelako, alegia, intres egoistek eta individualismoak arditik signifikatzen ez diotelako, euskaldun egin da eta da. Intres egoisten errepudio horretxek betetzen du haren poesia guztia. Aresti, nik uste, ez da euskaldun nahi duelako —hori ere egia da, noski!— ezpada nahiago izango lituzkean gustoen gaiñetik herri batekiko justiziazko betebeharra ezagutu duelako —hau ere egia da, uste dudanez, eta batez ere hauxe egia. Prolema bat mailla bitan erabil diteke, agi danean biak egiazko ta niretzat ardurazko bigarrena bakarrik). Justizia al da, ordea, euskal herrian bizi, eta euskal herriri hitz bat ez mintzatzea? Justizia, euskeraz dirua eskatzeko bakarrik predikatzea? Hau da nire galdera, hau nire pentsamentua. Esateko daukadan guztia hauxe da: niretzat, eta bakarrik ez nagoelakoan, euskeraren alde jokatzeta ez da jaio izanaren kontu, ez sentimentuaren kontu, ezpada batez ere justizia kontu, beste haiek zeharo ukatu gabe.

Hemen esandakoak arrazoi denak ez dirala esan beharrik ez daukat. Perspektiba bateko ikuspegi batzuek baizik ez dira. Prolema bestela jarrikerik, bestelako arrazoiak beharko genituzke. Askok jartzen digute, ordea, horrela ta horrelaxe tratatu nahi izan dut nik. Gogoz aitortzen dut hori amaitu aurretik. Gaurko galdera KONKRETO bat pentsatzeko era konkretoa da hori. Metafisika danik ez dut uste, hasieran itxura horrekin nentorrela pentsa bazitekean ere. Ez nuen poltxiko metafisikotik atera galdera, ezpada San Martin'ek Olaetxea jaunarekin izandako eztabaidak eman zion okasio. Euskaldunok euskaldun ote gera euskerarik gabe?, zan orduan galdera, oker ez banago. Galdera honen azpian beste gaur darabilkigun hau zegoela iruditu zitzaidan. Eta beste hura Donostia'ko jaietan agiri-agirian erabilli bazitzaigun, agirian erabilli ta erantzun beharra dugu galdera hau, bere sakoneneko erroetaraiño.

Hau da nire ustea.

Onar zaidazute orain nire agurra: San Martin, Yntxausti, Kalzada, Izengabe, Iritzira, Iztueta, Aresti, Lete, Intxausti adiskideok. Denok bategiñik saia gaitzela puntuok osatzen ta argitzen.

KRONIKA

Rejioeri buruz liburu berri bi

Frantzia izan da jacobinismoaren aberria. Jacobinismoak zentralismoa esan nahi du. Estaduaren antolaketa moduaz iritzi sakon bat daramaki bere baitan zentralismoak. Sozialismoarekin batera estaduaren eginkizuna gehiegi indartu da, zoritxarrean behar bada, estaduak kapitalista ta burokraten atzaparretatik iges egin ez duanean batez ere.

Gutxi badira ere, asiak dira Frantzia'n sozialista diran pentsalari ta politikagilleak sozialismoaren, eta horretxegatik estaduaren, eginkizunak berpentsatzen. Rejioaren prolematikak zer-ikusi ta relazio aundiegia du horrekin, berpentsatze horren eboluzioan ez azaltzeko. Hori da bi liburu hauetan gertatzen dana.

Bi liburu auek erabat inportanteak dira guretzat. Batetik, zentralismoaren arazoak zenbaiterañño ikuitzen gaituzten ez dago esan beharrik eta Frantzia'ko ezkertiar eta jacobinistak asmatua danez, hauen pentsalariak diotena interes aundienekoa da guretzat. Bestetik, bi liburu hoietan Frantzia'ko rejioen izaera ta izatea aztertu eta astintzen den ezkerero, hoién artean Euskal Herria'ren zati bat arkitzen da. Horrekin dana esana dago.

Lehendabiziko liburua frantzes batek egifia da. Frantzia kriterio bezela artuta, Frantzia berpentsatu behar delako egin behar dela erreboluzio rejionalista dio. Frantzia kontratu kolektibu batek definitua omen dago. Hori 1789'gnekoko erreboluzioan egindakoa da. Esaten duanez, nazio baten definizioa bi mailletan egin diteke. Lehendabiziko mailla, primitiboa, etñniarena da. Bigarrena, aurrerratuagoa, politikoa. Frantzia bigarren maillakoa da. Hori da egilleak bere inbestigazioari jarri dion muga, bere baitan pentsatzen baiditu guztiak Argiako ikusten da hori rejioak dakarkiten prolematikaren aurrean

LIBURUAK

LA RÉVOLUTION RÉGIONALISTE, Robert Lafont'ek, Gallimard'en, Idées bilduman 123'gn. alea, Paris'en 1967'gn.

LA GAUCHE ET LES REGIONS, Michel Philipponneau'k, Calmann-Lévy etxean, Paris'en 1967'gn.

planteatzen diran posturen klasifikazioa egiten duanean. Mutur batean estatuaren burokrazia ofiziala jartzen du: hauek honelako estatuak egindako gaitzak ezagutzen dituzte. Erru hoiiek estali ta gutxitzeko bakarrik egiten dute lana, ez estructures ta moldeak aldatzeko. Hauen lana goitik beherakoa da, erreformista ta paternalista da une berdinean. Beste muturrean "abertzaletasun probintzianoak" (nationalismes provinciaux) jartzen ditu. Hauek Frantzia'ren izatea atakatzten dute. Egillearentzat, estatu ofizialaren gaitz ta jokatzeko zitelen ondorenak dira. Hauek indartzen diran neurrian aunditzen dira abertzaletasun probintzianoak. Irugarrengoz federalistak daude. Hauen ztat rejiok demokratiaz duten pensamentuan dute tokirik egokiena. Demokrazia behetik gora dijoana da. Indibiduotik estaturaino bidean rejiok arkitzen dira. Ta azkenik rejionalista ezkertiarak. Hauen ztat ere demokrazia ta sozialismoa derrigorrean rejiotik pasatzen dira.

Rejionalista ezkertiarra bezela idatzi du egilleak liburu hau. Frantzia, bere iritzian, Erreboluzioan egindako kontratu batetik jaio da nazio bezela. Ta ez du nazio hori ikuitu nahi bere izatean. Halare kontratu batetik jaioa denezkeroz parte artu zutenen artetik batzuk desegin nahi izatea ametitzen du. Ta hortarako eskubidea dutela aitortu ere bai. Baiñan ez du posibilidaderik ikusten Herri hoientzat Frantzia'n besterik.

Benetako Erreboluzioa egin zuten konbenzionalak pentsatu zuten Frantzia ez da gaurko Frantzia zentralista amorratua. Zekarkiten demokrazia Frantzia'ren lurralde guztietan ezarri ahal izateko aginte ta indar guztiak leku ta zentro batean bildu beharrean arkitu ziran. Konserbadore ta reaktionarioak, ordea, bereala konturatu ziran zentralismoa zela mediorik egokiena Herriarengandik zetorren demokrazia ta sozialismo eskeari mugak jartzeko. Hortarako ideietan konfusio bat zabaldu zuten. Zentralismoa ta nazioaren izatea bat dirala. Ta lehendabizikoari frentze egitea bigarrenaren kontra joatea zela.

Frantzia'n rejionalismo bat beti izan da baiñan eskubi aldeko usaiarekin. Eskubitarrak, gainera, rejionalismoaren indarra bereganatzeko saiatu izan dira.

Gaur egunean rejiorearen prolematika bizi bizian azaltzen da. Erdi azitako rejiore izateak (subdesarrollatutakoa esan nahi dut) egin du hori. Gaitz hori kapitalismotik dator: honek industriaren eta nekazaritzaren industrietazaren garaiean ez ditu kontuan artzen leku batean oinarritutako jendeen interesak, produtibidadearenak eta konkurrentziarenak bakarrik. Estatu zentralista da, ordea, arkitu ditekene okeerrena auzi hori konpontzeko: estatu horren barruan kapitalismoaren

ordenarik ezak askatasun osoa du, protezionismoa estadu guztiaren maillan bakarrik pentsatzen delako ta ez rejio bakoitzarenean. Rejio baten atzerapenak, gaifera, ez du estadu guztiaren barruan asko esan nahi estadu guztiaren ekonomia aurrera baldin badijoa. Gaitz hоек sendatzea oso zailla da frantzesak zentralismo gogorrenean edukatuak izaterakoan hauek bere rejioaren defentsan ezin lezatekelako pentsatu. Dirudunak baldin badira bere dirua beste rejioetan inbertituko dute horrela diru gehiago irabazteko posibilidadea baldin badute. Langille ta nekazariak badira, jornalak aundiagoak diran beste alderdietara joango dira. Estaduak hortara bultzatuko ditu gaifera.

Rejio berriak ez dira erreinuaren probintziak, ezta ere Erreboluzioaren departamentuak. Hauek gaifiekzkatuak daude. 1945'gn. ondorenean azaldu ta indartu dira. Ez ofizialki, errealdadean baizik. Hortik jaiotzen da estadu kapitalistaren'zat eragozpenik aundienetakoa. Realista izan nahi baidu, honek relioaren jaiotza indartu behar du, hortan erreboluziogintza eraman lezaken guztia ittoaz ordea. Etorkizun gertu batean rejioaren eginkizun demokratikoa indartuko duen liberalismo erreformista bat etorriko dela ikusten da, **baifian honek Estaduaren zaindaritza arriskuan jarri gabe**. Gauzak horrela gertatu ez ditezen rejioaren alde burruka egin behar da. Burruka honek burges agintaritzta ta kapitalismoaren aginte absolutua arriskuan jartzen duelako burruka hau erreboluziogintza da.

Ondorenean, egilleak rejio batzuen estudio konkretu bat egiten du. Hauek zergatik pobretuak eta atzeratuak gelditu diran. Gauza konkretuak diranez, ez ditugu aitatuکو. Bakar bakarrik Occitania'z mintzatzen dalarik diona jasoko dugu: "Obeto ikusten da nola 1907'gn. urteko mugimentua izan ziteken erreboluzioa eta ez zen izan. Erreboluzio hau **produzio** baten defentsa zen eta ez **herri** guztiarena, nahiz eta occitaniar pentsamentuaren azi batzuek zutik izan (aifn erromantikoak ordea!)"

Gero, barruko kolonialismoaz mintzatzen da. 1789'gn. aurretikako gertaerak zaharregiak diralako gaurkoaz itzegingo duela dio. Konkretuan, rejio batzuetako ekonomia nola beste "atzerriko" (horrela dio egilleak) kapitalisten eskuetan erori den estudiatzen du. Ta kolonialismo hori ez dela itxurazko erreformismo batekin ezereztuko. Neokapitalismoa Afrika'n eta Asia'n nazioen askatasun politikoeekin pakean bizitzen ikusi dugu. Hori da Europa'n gertatzen dana rejioetako egiten diran plan ekonomioekin.

Gero ekonomiaren eta ethniaren artean dauden artu-emanak az-

tertzen dira. Frantzes inperialismoa ta barruko kolonialismoa ez dirala gauza berdiña ta kontzientziaz egindakoak, baiñan nazio frantzesaren historitik gertatzen diranak. Soziologiaren aldetik ethniaren alienazio kulturalaren eta rejioaren alienazio ekonomikoaren artean paralelismoa agertzen dela. Puntu berdiñ batzuek arkitu ditezkelaren rejio ekonomiko, ethniko ta historikoen artean. Rejioaren berpiztea ezin ditekela bakandu izkuntza ta kulturaren berpiztea alde batera utziaz eta ekonomia bakarrik indartuaz.

Ta azkenik rejioak Europa'ri begira estudiazten ditu. Rejioak ethnia askotakoak izan ditezke. Rejioa zeñ eta nolakoa herriak aukeratu behar du. Rejio bakoitzak bere parlamentu ta agintariak behar ditu. Hortarako sozialismoan pentsatu behar da. Ez erreformista den hortan, itxuraz nazioartekoa ta mamiz nazionalista. Ez autoritarioa denarekin. Sozialismo rejionalistarekin baizik.

Robert Lafont'ek liburu sendo ta borobill bat, erreboluzioaren perspektiban idatzi duen bezela Bretainia'ko lurraldetatik Michel Phlipponneau'k geografoak^o arlo hontan amabost urteetan burrukan egin duenak eskeintzen du bestea. Phlipponneau politikalaria dugu, sozialdemokrata. Frantzia'ko Demokrata ta Sozialista Ezkerraren Federaziokoa (F.G.D.S.). Hau ere rejionalismoara bere rejioaren pobreziatik esnatu zen.

Zentralismoa ezkertiar izaeraren kontra dijoala dio ta erregeen tradizioaren jarraipena. Erregeena txartuaz noski, Erregeen garaiean probintziak bere autonomia zutelako. Departamentuetan prefetuak ditu eskubide guztiak eta bertako kontsejuak (hemengo Diputazioen antzekoak) prefetuaren indarraren e'la agintearen kontra apenas duen probabilidaderik, amen esateko ez bada.

Gaullista agintariak rejio-zaleen burrukagatik separatismoaren bildurra astintzeak ez duela iñor ikaratu behar, dio. Ta hontan Michel Debré'rekin polemikan beñ baiño gehiagotan sartzen da. Honek, aginte zentraletik askatasun aundia duten rejio zabalak sortzea, nazioa **desintegratua** izango litzakelako Frantzia'k izaera folkloriko bat besterik izango ez duen **integratutako** Europa bat prestatzea ez ote den galdetzen du balean.

Liburu hontan, dato ugariekin, 1945'gna, ezkeroztik rejioen aldeko burruka mola sendotu ta indartu den esplikatzen da. Eboluzio hortan ba da urte bat, 1962'gna., erdibitzaillea. Urte honen aurretik lan asko egin zen eta rejio berrien maillako antolaketak sortuerazi ziran. Garai apolitikoa zela esan ditekete. Estudio serioen bitartez eta rejio burrukalarientatik igotzen zen presioaren bitartez Paris'eko guber-

nua rejioen alde lege batzuek eman beharrean arkitu zen. 1962'gn., ordea, degaullistak majoria sendo bat bereganatu zuten parlamenturako. Rejio burrukalarienak ez ziran gertaera hortan eszepzio biurtu. Breitaiña esateko baterako. Ordu ezkeroztik gobernua rejioen burrukei, itxura gordeaz, mamia kentzen saiatu da. Aunditasunaren politikaren barruan Paris'eko rejio aundi bat egin nahi du degaullista gobernua, horrela Europa'ren rejio aundienean eta uriburuan biurtu dedifi.

Rejioen prolematika sozialismoaren bitartez entenditu ta konpondu diteke. Oker dabilta ezkertiarak zentralismoaren alde jokatzen dutenean.

Rejio bakoitzekoei utzi behar zaie erabiltzen bere rejioa zeñ eta nolakoa izan behar duen.

Rejioak bere parlamentua behar du. Ta bi kamaretakoa izatea obe. Bata diputaduen, herriak zuzenean aukeratutakoa. Bestea, sendu gisan, ekonomí ta gizarte antolaketan ordezkariek osatua.

Rejio bakoitzak gobernu bat behar du ta bere dirua ere bai. Rejioaren izkuntza ta kultura bertako edukazioan sartu behar da.

Herrien Europa egindakoan rejioak Europa'ko instituzioekin zuzen zuzenean entendituko dira.

Honela dio egilleak, eta honela bukatzen dugu liburu hauen berri ematea: "La participation directe, active, des représentants des régions à la via de la Communauté européenne qui ne serait plus "un magma technocratique", mais exprimerait la volonté populaire, assuserait un bon équilibre du territoire auropéen, elle donnerait la garantie que l'Europe démocratique et socialiste, l'Europe des peuples, serait aussi l' Europe des régions".

Bikardo Arregi